

Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz

IÑIGO URRESTARAZU PORTA

Master Amaierako Lana

Zuzendaria: JOSEBA A. LAKARRA ANDRINUA

erman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentala Masterra

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2021

Abstracta

Euskal dialektologia diakronikoa nahiko diziplina berantiarra da inguruko tradizioen aldean, baina baita euskararen historiaren ikerketan ere. Lan honetan, Euskara Batu Zaharraren (EBZ) hausturaren inguruan jardun dugu. Horretarako, batetik dialektologia diakronikoa egiteko oinarri teorikoak finkatu ditugu. Ondoren, euskal dialektologia diakronikoa izan duen bilakabidea laburbildu dugu, Mitxelenaren aurreko garaietatik gaur egun arte, eta ikusi dugu dialektologia diakronikoa inoiz baino indartsuago dagoen ikerlerroa dela. Horren atzetik, EBZren gaiari heldu diogu. Batetik, EBZren behar linguistikoa aldarrikatu dugu, baita oreka puntuatua bezalako proposamenak zergatik ez diren egokiak argudiatu ere. Jarraian, EBZren hausturaz egindako lanak berrikusi ditugu. Bi hipotesi daude: a) lehen haustura mendebaldean gertatu zen, edo b) lehen haustura ekialdean gertatu zen. Hipotesi bati eta besteari, aldiz, ez zaio berdin eutsi. Lehen haustura mendebaldean gertatu zela diotenen artean heterogeneotasun handia dago, baita mendebala definitzean ere, eta, gainera, izan dira dialektologia diakronikoaren oinarri teorikoen arabera jokatu ez dutenak ere. Lehen haustura ekialdean gertatu zela dioten hipotesia oso bestela defendatu da, batez ere Lakarraren (2011 [2014]) aldetik. Haren arabera, ekialdeko mintzoak III-IV. mendeetan bereiziko lirake gainerako eremutik, *n* eta *l* ondoren herskari ahoskabeak garaturik. Argudiatu dut, ordea, hori askoz berrikuntza modernoagoa izan daitekeela, Mendebaldeko Euskara Zaharra bereizi ondokoa eta bearnesaren ukipenaren eraginez gertatua. Horregatik, lehen haustura mendebaldean dioten hipotesiaren alde Erdi-Ekialdeko Euskara Zaharra berreraikitzeke zer aukera egon daitekeen aztertu dut, eta ondorioztatu EBZren lehen haustura mendebaldean gerta zitekeela, nahiz eta uste baino berrikiago (VIII. mendetik aurrera). Azkenik, zenbait berrikuntzaren hedadura ikusirik, Nafarroa Garaiko Iruñeak aurreko lanetan egotzi zaion baino garrantzia txikiagoa ez duen izan iradoki dut.

Aurkibidea

0. Sarrera	7
1. Oinarri teoriko-metodologikoak	8
1.1. Hizkuntzalaritza historikoa eta dialektologia diakronikoa	8
1.2. Azpimultzoen auzia	10
1.2.1. Filiazio-hipotesiak frogatzeko baliabideak: berrikuntzak eta arkaismoak.....	11
1.2.2. Berrikuntzak	12
1.2.2.1. Iragazki geografikoa.....	13
1.2.2.2. Iragazki kronologikoaz	15
1.2.2.3. Hizkuntz iragazkia	15
1.2.3. Arkaismoak	18
1.2.4. Hautuak.....	19
1.2.5. Berrikuntza edo arkaismoa.....	21
1.3. Zuhaitzak eta kritikak.....	22
1.3.1. Zuhaitzak eta uhinak	23
1.3.2. Uhin-hipotesia eta difusio-eredu hierarkikoa	26
2. Euskararen dialektologia (diakronikoa)ren ibilbidea eta <i>status questionis</i>	29
2.1. Mitxelenaren aurretik	29
2.1.1. Bonaparte.....	30
2.1.2. Lacombe eta Uhlenbeck.....	31
2.2. Mitxelena eta bere ekarpena	32
2.3. Mitxelenaren ondorengo garaia	33
2.3.1 2008-2011, beste mugarri bat?.....	34
2.3.2. 2011 [2014] - 2020	36
3. Euskara Batu Zaharra eta haren haustura.....	37
3.1. Euskara Batu Zaharraren beharra	38
3.2. Euskara Batu Zaharra eta oreka puntuatua	39
3.3. Euskara Batu Zaharraren haustura: bi hipotesi.....	42
3.3.1. EBZren haustura mendebaldean	44
3.3.1.1. Zuazo (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014)	44
3.3.1.2. Reguero-Ugarte (2012a, 2012b, 2013).....	48
3.3.1.3. Aldai (2014)	49
3.3.1.4. Abaitua (2018)	50
3.3.2. Euskara Batu Zaharraren haustura ekialdean: Lakarra 2011 [2014] eta Camino 2011 [2014].....	54
3.3.2.1. Ekialdeko euskararen zahartasunaz	56
3.3.2.2. <i>n</i> eta <i>l</i> ondoko herskari ahoskabeen zahartasunaz	57

3.3.3. Atzera ere lehen haustura mendebaldean?	66
3.3.3.1. Hasperena	66
3.3.3.2. Azentu-aldaketa	69
3.3.3.3. *edunen 3. pertsonako *da(d)u > du monoptongazioa	72
3.3.3.4. Izanen (iraganeko) adizkietan -e-	74
3.3.3.5. -ek ergatibo plurala	75
3.3.3.6. Hipotesiaren abantailak eta arazoak	77
3.4. Eredu historikoa: Pozo (2016)	78
3.5. Iruñeren lekuaz.....	79
4. Ondorioak.....	82
5. Erreferentziak	86

Irudien aurkibidea

1. irudia: Zenbait hizkuntza indoeuroparren isoglosa-mapa.....	24
2. irudia: Uhinaren hipotesiaren irudikapena.....	25
3. irudia: Difusio-eredu hierarkikoa	28
Irudia 4: Euskararen zuhaitza Mitxelenaren (1981) lanean	34
5. irudia: Iranieraren zuhaitza	35
6. irudia: Euskararen dialektalizazioa	36
7. irudia: EBZren haustura mendebaldean	43
8. irudia: EBZren haustura ekialdean.....	43
9. irudia: Euskararen dialektalizazioa Abaituaren (2018) arabera	50
10. irudia: EBZren haustura mendebaldean, baina ondoren ErEZren eta EkeEZren arteko berdintzea	65
11. irudia: EBZren haustura hirutarra.....	66
12. irudia: Euskal azentueren bilakabidea	70
13. irudia: * <i>edunen</i> 3. pertsona singularreko formak EHHAn	73
14. irudia: * <i>izanen</i> iraganeko 3. pertsona singularreko formak EHHAn.....	74
15. irudia: Ergatibo pluraleko <i>-ak</i> morfemaren hedadura	75

Laburdura-zerrenda

ablat.: ablatiboa

AE(M): aitzin-euskara (moderno)

A: arabera

arag.: aragoiera

B: bizkaiera

kat.: katalana

D: edozein herskari ahostun

E (eta Err): erronkaria

EBZ: Euskara Batu Zaharra

EHHA: Euskal Herri Hizkeren Atlas

EkBN: ekialdeko behe-nafarrera

EkEZ: Ekialdeko Euskara Zaharra

eus.: euskara

err.: erromantzea

ErEZ: Erdialdeko Euskara Zaharra

ErEkEZ: Erdi-Ekialdeko Euskara Zaharra

fr.: frantsesa

G: gipuzkera

gal-pt.: galiziera-portuges

gask.: gaskoiera

gast.: gaztelania

HGN: hegoaldeko goi-nafarrera

IGN: iparraldeko goi-nafarrera

ines.: inesiboa

instr.: instrumentala

L: lapurtera

lat.: latina

MBN: Mendebaldeko Behe-nafarrera

MEZ: Mendebaldeko Euskara Zaharra

MERZ: Mendebal-Erdialdeko Euskara Zaharra

NE: nafarrera

occ.: okzitania

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*

T: edozein herskari ahoskabe

S: edozein txistukari

Z: zuberera

0. Sarrera¹

Dialektoez edo *euskalkiez* jarduteko ohitura nahiko handia da gurean. Are gehiago, lehen testuetatik aipatu izan da zenbat aldatzen zen euskara leku batetik bestera. Euskal dialektologia diakronikoa, aitzin-hizkuntzatik dialekto modernoetarako bidea nolakoa izan den ikeretzen duen hizkuntzalaritza historikoaren atal bezala, ordea, nahiko berantiarra da, inguruko tradizioekin alderaturik, baina baita Mitxelenaren obran ere. Nahiz eta gogoetak ugari izan eta datu dialektalak erabili —oso ongi ezagutzen baitzituen—, ziurrenik premiazkoagoak ziren lanetan aritu zen maisua. Zorionez, hutsune hori betez doa, apurka-apurka hasieran, abiada bizian azkenaldian. Lan honek ere horretan lagundu nahi du, Euskara Batu Zaharra (EBZ) berreraikitzea lanaren mugatik kanpo gelditu bada ere, behintzat haren hausturaren inguruan aintzat hartu beharreko zenbait alderdi mahaigainera ekarriz.

Aldiz, lan honekin hasi nintzenean —hasi ginenean!—, Erdialdeko Euskara Zaharraren inguruan jardun eta aurretik hasitako bidean (Urrestarazu-Porta 2019) aurrera egitea zen helburua. Erdialdeko dialektoak, ordea, ez datoz aitzin-hizkuntzaren hausturatik zuzenean, baizik eta aitzin-hizkuntzaren hausturatik sortutako hizkuntz egoeraren baten hausturatik. Hau da, bigarren mailakoak dira. Horren inguruko ohar txiki bat izan nahi zuena luzatuz joan zen eta, konturatze orduko, lanak dituen (karaktere) mugez kanpo aritzeko arriskua zegoenez, lana EBZren hausturaren ikerketara mugatzea erabaki behar izan genuen.

Bestalde, oinarri teoriko-metodologikoen lan honen zati handi bat hartzen dute, baita gaiaz jardun dutenen lana oinarri horien arabera baloratzeak ere. Nahita harturiko erabakia izan da. Izan ere, oinarri teoriko sendoak eta helburuen, beharren, metodoen eta mugen inguruko ezagutza funtsezkoak dira, zer ikertu nahi den eta nola begiratuko diogun baldintzatzen duelako.

Lanak egitura hau du: 1. atalean, dialektologia diakronikoa eta, kasu honetan, EBZren haustura ikertzeko oinarri teoriko-metodologikoak finkatu ditut. Ondoren, 2. atalean, euskal dialektologia diakronikoa izan duen ibilbidea laburbildu dut, Mitxelenaren aurreko garaietatik 2020. urte ezin oparoagoraino. Azkenik, 3. atalean, EBZren hausturarako bi hipotesien inguruan —lehen haustura ekialdean edo mendebaldean gertatu zen— esandakoak berrikusi ditut, §1n jarritako hertsapen metodologikoak oinarri harturik. Horrekin batera, hipotesi horien alde eta kontra zer esan daitekeen eztabaidatu dut. Bukatzeko, 4. atalean ondorioak jaso ditut.

¹ Eskerrik eman nahi dizkiet lan honetan lagundu nauten guztiei, eta ez dira gutxi izan, baina, batez ere, Joseba A. Lakarrari, laguntza, aholku, zuzenketa, galdera eta eztabaida-ordu luzeengatik, Aitor Lizardiri paperera igaro aurretik ideia guztiak bere baitatik pasa baitira, eta Ander Egurtzegiri, besteren artean, aurreko bertsio bati egindako ohar eta iradokizunengatik.

1. Oinarri teoriko-metodologikoak

Atal honetan, lanaren oinarri teoriko eta metodologikoak azalduko ditut. Atalak hiru ardatz ditu: lehenik dialektologia (diakronikoa) hizkuntzalaritzan eta hizkuntzalaritza historikoan kokatuko dut, helburua iraganeko egoera bateratuago batetik egoera dialektalizatu leku-kotura doan bidea berreraikitzea dela azpimarratuz. Ondoren, berreraiketa horretan, ondorio sendoak ateratzeko berrikuntzek (eta arkaismoek) duten lekua eta bete behar dituzten iragazkiak jorratuko ditut. Azkenik, dialektoen arteko filiazio-hipotesiak irudikatzeko zuhaitz-diagramen, egin zaizkion kritika batzuen eta berrikuntzen difusio-ereduen inguruan jardungo dut.

1.1. Hizkuntzalaritza historikoa eta dialektologia diakronikoa

Hizkuntzak bi ardatzetan aldatzen dira gutxienez: denboran eta espazioan, nahiz eta espazioan aldatzeko, denbora behar den, berrikuntza sortu duen pertsonarengandik gizartera eta, ondoren, sorgunetik kanpora. Profanoak ere badaki hizkuntzak denboran eta espazioan aldatzen direla, era intuitiboan besterik ez bada ere, “aitona-amonek eta guk ez dugu berdin hitz egiten” edo “aldameneko herrian ez dute guk bezala hitz egiten” esaten duenean. Besterik da aldaketa azaltzea eta Blanca Urgell irakasleak *Euskararen Historia I* ikasgaiko lehenengo eskolan esan zigunez, hizkuntzalaritza historiko edo diakronikoaren helburua honela laburbil daiteke: “Zergatik da X hizkuntza den bezalakoa? Nola iritsi da den bezalakoa izatera? Hori azaltzea da hizkuntzalaritza historikoaren helburua”. Campbellen (2013: 3) hitzetan, hizkuntzalaritza historikoak hizkuntz aldaketa (*linguistic change*) ikertzen du: zergatik eta nola aldatzen den.

Hizkuntzalaritza historikoa harremanduriko hizkuntzen konparaziotik abiatu zen, hizkuntza horien jatorri komuna berreraiki eta hortik harremanduriko hizkuntzetarako bidea azaltzeko —hizkuntzen konparaziotik edo dialektoen konparaziotik; *dialekto* terminoaren definizio eta gogoeta txiki baterako, ikusi hurrengo orrialdea—. Hau da, lehen hizkuntzalari historikoek hizkuntza indoeuroparren aldaera geografikoen konparaziotik historiaurre komuna berreraiki zuten, saioen arrakasta gorabehera. Bestalde, *The Handbook of Dialectology* (Boberg *et al.* 2018) dialektologia-eskuliburuan ere dialektologiaren eta hizkuntzalaritza historikoaren arteko harreman estuaren adibideak sarreratik aurki daitezke (Boberg *et al.* 2018: 1-2), eta liburuaren lehen kapituluan, “Dialectology, Philology and Historical Linguistics” (Hickey 2018), azaltzen da nola sortu zen dialektologia, diziplina zientifiko bezala abiatzen ari zen hizkuntzalaritza historikotik.

Beraz, dialektologia, hizkuntzalaritzaren barruko diziplina zientifiko bezala, hizkuntzalaritza historikotik sortu zen eta hizkuntzalaritza historikoak dialektologiatik edaten du hizkuntzen eboluzioa azaltzeko. Zer da, baina, dialektologia eta zertaz arduratzen da? Aditu gehienak

ados egongo lirateke dialektologia hizkuntza baten aldaera geografikoen azterketa dela, diren modukoak zergatik diren azaltzea. Maiz, ordea, eman lezake egitekoa hizkuntzen aldaera horiek sailkatzea dela, denboraren sakontasunik gabe, aldaera geografikoak betikoak izan balira bezala, zergatirik eta bilakabiderik egongo ez balitz bezala. Alderantziz, dialektologia egiteko diakroniaz aritu behar da —edo beharko litzateke, azaltzeko nahia izanez gero bederen—, Caminok 2008ko lanean oso argi adierazten duen bezala: “Dialektologiaz dihardugunean kronologiaz jardun behar dugu baitezpada, hizkuntzaren historia eta dialektoen azterketa uztarturik baitaude” (Camino 2008a: 209). Izan ere, “dialekto bat berrikuntzen eta hautuen sorta bat da” (Camino 2008a: 212). Bestela esanda, denboran zehar gertaturiko aldaketen ondorio geografikoak dira dialektoak. Ez da, aldiz, *dialektoren* definizio bakarra:

[E]gitura geolinguistikotik abiatuz gero, auzuneen, herrien eta eskualdeen gainetik dagoen hizkuntza-entitate bat litzateke dialektoa, hizkuntza-errealitate “supralokala” ere izenda genezakeena. Dialektoak hainbat lekutako mintzoa barrenean harrapatuko luke eta mintzo horiek baldintza bat ase beharko lukete dialekto horren partaide izateko: ezaugarri jakin batzuk izan edo partekatu beharko lirateke” Camino 2009: 162-163.

Definizio horrek, ordea, bi arazo ditu: batetik, une jakin bateko definizio estatikoaren antza dauka. Izan ere, noiz eta nola sortu da “errealitate supralokal” hori? Noizkoak dira dialektoaren parte izateko mintzoek bete behar dituzten ezaugarri horiek? Bestalde, tautologiarako —edo subjektibotasunerako— arrisku handia dago: norik erabakitzen du zein diren ezaugarri esanguratsu horiek? Zeren arabera? Noraino iristen da “supralokaltasun” hori? Zer gertatzen da eremu batean leku bateko eta besteko berrikuntzak gurutzatzen direnean?

Caminoren (2008a: 209) aurreko hitzen bidetik, erabilgarriagoa izan liteke diakroniatik egindako definizio bat. Adibidez, aitzin-hizkuntza baten hausturatik sortutako aldaera geografikoa da dialektoa. Hala ere, dialektoaz baino, hizkuntz egoeraz hitz egitea erabilgarriagoa izan liteke, hizkuntz egoera horretarako hainbat galderari erantzunez; gutxiengutxienez, non hitz egiten zen, noiz sortu zen, zer hizkuntz egoeraren hausturatik sortu zen, zer hizkuntz ezaugarri (zer berrikuntza bereizlek eta arkaismo bateratzailek) definitzen zuten, eta galdera horiei erantzuteko egin litezkeen galdera guztiak, hala nola berrikuntza horiek nola hedatu ziren. Horrela, neurri batean, *hizkuntza*, *dialekto*, *aldaera* edo *hizkera* terminoen arteko bereizketa ontologikoa gainditu litekeelakoan nago.

Dialektologiaren eta Hizkuntzalaritza Historikoaren arteko harremanera itzuliz, eta aipatu berri ditudan ideiekin loturik, Caminoren (2009: 54-55) hitzok ere oso esplizituak eta jakingarriak dira bataren eta bestearen arteko loturaz:

Egungo dialektoek erakusten diguten aniztasun horren sorburua oinarri edo iturri bateratuago batean bilatu beharko litzateke (...). [I]turri bateratzaile zaharrago horretara ahalaz xuxen iris-

teko bidea hizkuntzalaritza historikoa egitea da, inolaz ere, aspaldian baliatu dituen ikuspegi teoriko eta lanabes teknikoak lagun: lanabes horien arteko bat, garrantzi handikoa gainera, dialektologia da.

Hitz horiek arreta berezia merezi dute. Dialektoek, nahiz eta elkarren artean bestelakoak izan, jatorri komun bat dute, batua edo bateratuagoa, eta Hizkuntzalaritza Historikoak “iturri bateratzaile” hori berreskuratzea du helburu. Iturri hori ez ezik, jatorri komun horretatik egungo egoerarako bidea ere azaldu behar dituela gehi genezake. Hortxe ikusten dut nik, hain zuzen, dialektologia diakronikoaren lekua: hizkuntza batu komunitik garai historikoetan lekukoturik ditugun dialektoetarako bidea azaltzen.

Aldiz, ezagutzen ditugun dialektoak ez datoz aitzin-hizkuntzaren hausturatik zuzenean, baizik eta aitzin-hizkuntzaren hausturatik sortutako aitzin-dialektoen hausturatik, edo aitzin-dialektoen hausturatik sortutako aitzin-dialektoen hausturatik, edo aitzin-dialektoen... Hain zuzen, hamaika tarteko hizkuntz egoera egon litezke —edo, hobekiago esanik, egon ohi dira— aitzin-hizkuntzaren eta lekukotutako dialektoen artean. Izan ere, dialektoak ere aldatzen dira, haien mugak eta ezaugarrien konbinazioak aldatzen diren bezalaxe. Hizkuntzalariaren lana da gertatuz joan diren haustura horiek berreraikitzea eta, aitzin-hizkuntza batu(ago)ra iritsi arte, ezagutzen ditugun dialektoak azpimultzotan bilduz joatea.

1.2. Azpimultzoen auzia

Hizkuntzalaritza historikoan luze landu izan da azpitaldeak eratzearen auzia, askotan ez baitu konponbide errazik, eta edozein eskuliburutan aurki daiteke horri eskainiriko kapitulu edo atalen bat; adibidez, Hockett (1958: 490-505), Greenberg (1957), Hock (1991: 578-580), Campbell (2013: 174-184), Wichmann (2010), Ringe & Eska (2011) lanetan azpitaldeei eskainitako zatiren bat dago. Beste behin ere, Caminok (2008a: 213) ezin argiago azaltzen du auzia zein den:

Iraganean hizkuntza komun baten zatiketa gertatu denean, bertatik sortu diren kide guztien ahaidetasun genetikoaz mintzo gara, baina zatiketaren garaian dialekto batzuen artean ahaidetasun espezifikorik gertatu ote den jakin nahi izaten du hizkuntzalariak, dialekto batzuk beren artean beste batzuegandik baino hurbilago ote dauden, zer-nolako talde dialektalak osatu diren, zein diren.

Aldiz, ikertzaile guztiek ez dute azpitaldeen auzia modu berean ulertu eta azpitaldeak eratzeko bi modu daude gutxienez: fenetikoa eta filogenetikoa. Lehendabizikoa partekatutako ezaugarrien kopuruan oinarritzen da, taldeak osatzeko; adibidez, lexiko-estatistikan oinarrituriko sailkapenak fenetikoak dira, bilakabideari erreparatu gabe azaleko antzekotasunetan —analogietan— eta horien kopuruan oinarritzen direlako: zenbat eta axaleko antzekotasun gehiago, orduan eta talde berean biltzeko aukera handiagoak. Besterik ezean,

sailkapen horiek historiaren eta eboluzioaren ardatza ahazten dute (Bowern & Koch 2004: 3, 6), hau da, historia egiteari uko egiten diote, aurreko paragrafoetan zehaztu dugun dialektologia diakronikoaren helburuen aurka.

Badago, bestalde, azpitaldeak ulertzeko eta eratzeko beste modu bat, Caminoren (2008a: 213) azken aipuaren bidetik. Zailagoa da eta lan handiago eskatzen du, baina azalpenak asegarriagoak dira eta dialektologia (diakronikoa) egiteko modu estandarra da: sailkapen filogenetikoa. Sailkapen filogenetikoetan, hurbiltasun *genetikoari* erreparatzen zaio, hau da, jarauntsitakoan eta berrikuntzetan jartzen da arreta —jarauntsitakoa ez dena, konbergentziak, ahaztu gabe, jakina—. Sailkapen filogenetikoak filiazio-hipotesiak planteatu eta egiaztatzearen ondorio dira. Horretarako, hizkuntz ezaugarrien zahartasuna edo berritasuna zehaztu behar da: noizkoak diren zehaztu behar da eta, horren arabera, erabaki zer dialekto historiko datozen aurreko egoera komun batetik. Bestela esanda, kronologia erlatiboak eraiki behar dira horiek baitira filiazio-hipotesietarako diagnostikoak, berrikuntza komunak, berrikuntza paraleloak, arkaismoak eta abarrak identifikatzeko modu bakarra (Bowern & Koch 2004: 3). Horiek guztiak identifikatzea, hain zuzen, funtsezkoa da historia egiteko eta azalpenak aurkitzeko.²

Sailkapen filogenetikoak baita hizkuntzalaritzatik kanpo ere ezagunak diren arboletan laburbiltzen dira. Zuhaitzak hizkuntza baten dialektalizazio-prozesuaren teoria laburbiltzen du, dialektoen arteko filiazio-hipotesi guztiak jasotzen eta irudikatzen dituen diagrama baita.³ Hortaz, azalpenak trinkotzeko edo sintetizatzeke moduak dira. Beherago (§1.3) itzuliko naiz arbolek izan dituzten zenbait kritikatarara, baina, aurretik, filiazio-hipotesiak egiaztatzeke baliabideei helduko diet, hau da, berrikuntza eta arkaismoei.

1.2.1. Filiazio-hipotesiak frogatzeko baliabideak: berrikuntzak eta arkaismoak

Ikusi dugu dialekto (historiko)ak, direla (aitzin-)euskararenak, direla (aitzin-)erromantze edo latinarenak, direla (aitzin-)wolofarenak, ez direla betidanikoak; hots, bilakabide diakroniko baten ondorio direla eta (aitzin)hizkuntza baten hausturen produktuak direla. Aldiz, ezagutzen ditugun dialektoak ez datoz aitzin-hizkuntzaren hausturatik zuzenean, eta aitzin-

² Cf. Mitxelenaren (1963:19) hitzok: “La nuestra es una ciencia empírica por cuanto que toda reconstrucción tiene que basarse en lenguas reales tal como nos las ofrece la experiencia y también porque *su valor se demuestra comprobando hasta qué punto es capaz de explicar las formas de esas lenguas*” [etzanak nireak dira I.U.P.].

³ Mitxelenaren (1963: 80) hitzok bide horretan doaz: “Nadie puede esperar hallar en el árbol genealógico la imagen acabada del proceso de diversificación de las lenguas reales, como nadie puede esperar obtener fruta o leña del árbol de Porfirio: ese árbol ‘no es más que un diagrama de la aplicación del método comparativo a la reconstrucción de familias de lenguas’. Parece mentira que los a los lingüistas, gentes de letras por lo común, se les suponga carentes de imaginación hasta el punto de creer que no van a ser capaces de reconocer e interpretar un tropo cuando tropiecen con él”.

hizkuntzaren eta dialekto (historiko)en artean hamaika tarteko hizkuntz egoera egon daitezke.⁴ Gure lana dialekto historikoak azpitaldeetan biltzea da, hau da, tarteko hizkuntz egoera edo dialekto horiek ahal den neurrian berreskuratzea: dialekto(historiko)en arteko filiazio-hipotesiak egitea eta kronologia erlatiboen bidez egiaztatzea.

Nola egiaztatzen dira, baina, filiazio-hipotesi horiek? Zertan oinarritu behar dugu proposatzen ditugun azpitaldeak benetan (azpi-)iturri komun batetik datozela frogatzeko? Nola eraikitzen dira kronologia erlatibo horiek?

Ikertzaileak bat datoz oinarrizkoena berrikuntzak direla. Jada neogramatikoen idatzietan ageri da azpimultzoak osatzeko irizpidea berrikuntza (zahar) partekatuak direla.⁵ Leskien izan zen hori aipatzen lehena (1876: vii *apud* Zuloaga 2020a: 61) eta, horregatik, *Leskienen hatsarre* izenaz ere ezaguna da. Halaber, hamarkada bat beranduagoko Brugmannen (1967 [1886]: 24) hitzok ideia bera adierazten dute.⁶

Hizkuntza baten adarren arteko harremana argitzeko bide bakarra (...) adar horietako biren edo gehiagoren arteko egokitasun zehatzak, berrikuntzak, dira. Izan ere, berrikuntza horien bidez aldatu dira adar jakin horiek eta ez beste batzuk.

1.2.2. Berrikuntzak

Caminoren (2008a: 212) hitzetan, “[h]izkuntzaren ordura arteko egitura aitzindari batekiko edo egoera zaharrago batekiko, dialekto batean sumatzen den haustura da berrikuntza, hizkuntza-forma batean sortu den aldaketa”. Are gehiago, “ez baldin badago berrikuntzarik, ezin mintzatu gara dialektoaz: hizkuntzalari gehienen ustean, berrikuntzarik ez badago, ez dago dialektorik” (Camino 2008a: 212).⁷ Berrikuntza guztiak, baina, ez dira berdinak, eta ez

⁴ Cf. Garrett (1999) beranduagoko errealitate linguistikoak —edo administratibo eta sozialak— aurreko garaietan proiektatzearen arriskuez, batez ere geroko ideia ideologikoak tartean sartzen direnean. Bide horretatik, Lakarrak (2011 [2014]: 181): “Ikustekoa litzateke, demagun, zerk bultzatuko gintuzkeen Goierriko euskara edo Urolakoa xiii. mendean gipuzkeratzat hartzera, Hernani edo ekialderagokoarekin, eta ez Hegomendebaldekotzat edo Araba-ipparraldekotzat, Araia eta Oñati aldekoarekin”.

⁵ Neogramatikariek ezarri zuten filiazio-hipotesiak egiaztatzeko baliabide nagusia berrikuntzak direla eta maiz hizkuntzen eboluzioaren eta berrikuntzen garrantzia biologiako eboluzioaren teoritik hartutako jo izan dira. Zuzenagoa ematen du, ordea, testu-kritikatik zetorren tradizioarekin lotzea eta akats bateratzaileak eta berrikuntzak parekatzea (Mitxelena 1963: 80; Hoenigswald 1966: 6, 13. oin-oharra, *apud* Petit 2007: 15).

⁶ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoa: *Das einzige non, was auf das Verhältnis der einzelnen Sprachzweige zu einander[, auf die Art des Hervorgangs der Einzelsprachen aus der idg. Ursprache] Licht werfen kann, sind die besonderen Übereinstimmungen zwischen je zwei oder mehreren von ihnen, die Neurungen, durch die jedesmal gewisse Sprachzweige gegenüber den andern in der Entwicklung vorangeschritten erscheinen.* Brugmannen (1884: 231, *apud* Petit 2007: 15) lanean ere ideia bera aipatzen da.

⁷ J.A. Lakarrak ohartarazten digunez, berrikuntzarik gabe ez dago dialektorik, ezta hizkuntzarik ere. Hau da, aldatzen eta berritzen ez duten bakarrak hildako hizkuntzak dira.

daude maila berean. Zuloagak (2020a: 63-64) ezin hobekiago deskribatzen du zer-nolako berrikuntzak behar diren dialektoen arteko harreman estuagoak frogatzeko:

[O]ndoz ondoko bi dialektotan fonologiaren edo morfologiaren esparruko berrikuntza berezia, positiboa, zaharra, bateratzailea, sistematikoa, eskusiboa eta hedadura zabalekoa aurkituz gero, tresna egokia izango da bi dialekto horiek lotzeko eta berrikuntza lehenagoko egoera linguistiko batetik eratorritzat jotzeko; berrikuntza hori kokatu ahalko da zuhaitzaren adabegian: iragazki horiek guztiak betetzen dituzten berrikuntzak aurkitzea gaitzagoa da, baina horietan oinarritutako proposamenak sendoagoak izan ohi dira.

Bistan denez, oso berrikuntza jakinak bilatzen ditugu, eta irizpide, iragazki edo hertsapen oso zehatzak eta zorrotzak ezarri behar zaizkie, Zuloagak berak esaten duen bezala, “proposamenak sendoagoak” izateko. Hertsapen horiek guztiak, ordea, ez dira ausazkoak, badute beren zergatia eta zenbait elkarren artean loturik daude. Izan ere, hertsapen horiek berrikuntza komunak eta kronologia erlatiboak eratzeko aukerekin daude loturik, jarraian ikusiko dugun moduan. Hala ere, Zuloagaren (2020a: 63-64) hertsapenak hiru multzotan bil daitezke: iragazki geografikoa, iragazki kronologikoa eta hizkuntz iragazkia. Bestalde, iragazki horiek Meilleten (1984 [1908]: 10) zoria, halabeharra, saihesteko hertsapenen garapena edo fintzea dira. Meilleten “la contrainte de proximité”, “la contrainte d’antiquité” eta “la contrainte de singularité”, iragazki geografikoaren, iragazki kronologikoaren eta hizkuntz iragazkiaren parekoak dira, hurrenez hurren.

1.2.2.1. Iragazki geografikoa

Iragazki geografikoan, sartzan da berrikuntza ondoz ondoko bi dialekto baino gehiagotan agertzea, bateratzailea izatea, eskusiboa izatea eta hedadura zabala izatea (Camino 2009: 322-323). Ordea, eskusiboa, bateratzailea eta hedadura zabalekoa izatean utzi liteke, aurreko hirurak betez gero ondoz ondoko zenbait dialektotan agertuko baita. Esan bezala, Meilleten (1984 [1908]: 10) “la contrainte de proximité”rekin dago loturik. Hau idatzi zuen frantziarrak: “les faits communs doivent se trouver dans des langues qui aient été voisines” (Meillet 1984 [1908]: 10).⁸

⁸ Galde liteke non uzten dituen Meilletek duela gizaldi bat baino gehiago finkaturiko hertsapen metodologikoak proposatu diren euskararen ahaidetasun-hipotesi gehienak, hizkuntz argudio sakonetan (egokitasun erregularretan) sartu gabe ere. Adibidez, Fornik (2013) euskara eta indoeuropea ahaideak zirela aldarrikatu zuen. Aldiz, Gorrotategik & Lakarrak (2013) Meilleten iragazki horiek aplikaturik —eta hizkuntzalaritza konparatzaileko oinarritzko beste metodo eta irizpide batzuk erabilirik— erakutsi zuten Forniren (2013) hipotesia ezinezkoa zela. Bestalde, berrikiago, Bakkerek (2020) Blevinsen (2018) liburuaren erreseina bat argitaratu du. Haren arabera, “[l]ogically, the neighbouring language family, Indo-European, should be the first to be taken into consideration, but that has rarely happened. My intuition had been that a connection with Indo-European and with the Caucasus, would be most promising” (Bakker 2020: 563). Norberaren intuizioak intuizio, Euskal Herri historiko eta ezaguna eta Kaukasoa urruti daude auzokotzat edo “neighbouring”tzat jotzeko. Are zalantzarriagoa egiten zait

Berrikuntzak eksklusiboa eta bateratzailea izan behar du. Hau da, lekukotzen den eremuan baino ez da lekukotu behar eta, gainera, eremu horretan orokorra izan behar du, eremua batu egin behar du.⁹ Izan ere, loturik ez dauden hainbat eremutan agertuko balitz, aukera handiak egongo liriateke ezaugarria arkaismoa edo berrikuntza paraleloa izateko. Arkaismo bateratzaileek beren lekua izan dezakete dialektoak definitu eta haien historia egitean —ikusi beherago §1.2.3—. Kasu horretan, ordea, ez litzateke arkaismo bateratzailea, baizik eta, *area lateralli* irizpidearen arabera —ikusi beherago §1.2.5; Bartoli 1925—, aitzin-hizkuntzarako proposatu behar den ezaugarria.

Irizpide hori erabili zuen, adibidez, Mitxelenak (1964: 51]) ondorioztatzeko mendebaldean eta ekialdean lekukotu *iratzarri* hitzak garai batean orokorra izan behar zuela eta erdialdeko *esnatuk*, berriagoa. Bestetik, berrikuntza paraleloak, definizioz, jatorri poligenetikoa duten ezaugarriak dira, hau da, hainbat gunetan era independentean garaturiko berrikuntzak, eta hor ere ez da mintzoen arteko filiaziorik. Gainera, kronologiari dagokionez, garai desberdinetan gertaturiko berrikuntzak izan daitezke edo izaten dira berrikuntza paraleloak.

Horrez gain, berrikuntzak hedadura zabala izan behar du. Hertsapen hori kronologiarekin lotu ohi da, berrikuntzek hedatzeko denbora bat behar izaten dutelako eta, beraz, berrikuntza zenbat eta hedatuago, orduan eta zaharragoa izateko aukera handiagoa duelako. Ezaugarri bakoitza bere garaian kokatu nahi dugunez, haien hedadura kontuan hartu behar da eta pentsatu behar da, oro har, hedatuen daudenak zaharragoak izan ohi direla; horregatik, ondoz ondoko hainbat dialektotan agertzen direnek aukera handiagoak dituzte (oso) zaharrak izateko.

Adibidez, Erañak (2020a: 52) hiru geruza bereizi ditu Arabako euskararen numero-komunztaduraren galeran. Kronologia erlatibo hau proposatzen du, zaharrenetik berrienera: 1. galera: aditz ditransitiboetan galdu zen, eta Arabako lautadatik Debagoiena eta Goierriara hedatu zen. 2. galera: iragangaitz datibodunetara hedatu zen. 3. galera: **edunen* adizkietara hedatu zen, baina ordurako Arabako lautadaren eraginak behera egin zuen eta, horregatik, Leintz bailara ingurura besterik ez zen iritsi.

indoeuropearen auzotasun edo hurbiltasuna, jatorria itsaso Beltzaren eta Kaspiar itsasoaren iparraldean badute (Anthony 2007). Ringek (2009) Europa indigena nolakoa izan zitekeen —eta nolakoa ezin zen izan— gogoeta egiten du eta euskara-indoeuropea bezalako ahaidetasun-hipotesiei oso leku txikia uzten die. Ez du ematen iragazki geografikoa gaindi dezaketenik eta, beraz, euskara Kaukasorekin eta indoeuropearekin lotzeko hipotesiek aurrera egin dezaketenik.

⁹ Ondartzak (2020) araberako zenbait ezaugarri eztabaidatzen ditu eta ikusten du guztiak —edo ia bat ere ez— ez direla eremu osoan lekukotzen. Horrek azalpen diakronikoa beharko du, hau da, berrikuntza bakoitza dagokion garaian kokatu beharko da eta beharbada horrek ezaugarrien banaketa azaltzen lagunduko du. Izan ere, ematen du ezaugarri horien sorgune eta abiapuntua Araba dela.

1.2.2.2. Iragazki kronologikoaz

Halaber, euskara historikoan jada dialektalizaturik aurkitzen dugun hautsi aurreko garaiez ari bagara, analisisetan kontuan hartzeko ezaugarriek zaharrak izan behar dute. Hori da, hain zuzen, iragazki kronologikoak zehazten duena: darabiltzagun hizkuntz ezaugarriak —hizkuntz berrikuntzak— zaharrak izan behar dira, edo, behintzat, zein bere garaian kokatu behar da. Horretarako, berrikuntzen kronologia erlatiboak egin behar dira —aukeran, baita absolutuak ere—, eta berrikuntza bakoitza dagokion garaian eta egoera linguistikoan kokatu behar da.

Petitek (2007: 18-19) ezin argiago azaltzen du Meilletek (1984 [1908]: 10) “contrainte de d’antiquité” deitu zuena:

Par contrainte d’antiquité, il faut entendre la nécessité de prendre en compte les proto-langues communes et non leurs aboutissements historiques différenciés, afin d’écarter les innovations tardives qui ne remonteraient pas à l’origine des chacun des groupes considérés : on ne reconstruit pas l’indo-iranien en comparant le hindi moderne et le kurde, ni même le sanskrit et l’avestique, mais bien en comparant le proto-indien et le proto-iranien, tous deux reconstruits par la comparaison interne.

Esaterako, gipuzkera definitzeko *al* partikula (*ikusi al dezu?*) aipatu izan da (Zuazo 2003: 142; 2008: 123; 2014: 84).¹⁰ Aldiz, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arabera, XIX. mendeko erdialdera arte ez da ia lekukotzen —bizkaieraz eta gipuzkeraz, gainera— eta, beraz, ez luke, adibidez, XIII. mendeko gipuzkera definitzeko balioko —baldin eta XIII. mendean gipuzkeraz hitz egin badaiteke—. Gauza bera esan liteke goi-nafarrerako *-ren bat > -ron bat* bokalaren bilakabideaz: XVIII-XIX. mendeetako autoreek ez dakarte (Reguero-Ugarte 2020: 625) eta, beraz, goi-nafarreraren sorrerarako ez da egokia. Berdin, ez genituzke X. mendeko berrikuntzak erabili beharko XVI, XVIII edo XX. mendean sortutako dialekto edo aldaera bat definitzeko, arkaismo bateratzaile moduan ez bada.

1.2.2.3. Hizkuntz iragazkia

Iragazkiekin bukatzeko, hizkuntz iragazkiaren barruan Zuloagak (2020a: 63-63) aipatzen dituen hertsapenetatik hauek sartzen dira: fonologiaren edo morfologiaren esparrukoa izatea, berezia izatea, positiboa izatea eta sistematikoa izatea.

Zuloaga oso esplizitua da, eta berrikuntzak fonologiaren edo morfologiaren esparrukoa izan behar duela nabarmentzen du. Horrek sintaxia eta lexikoa kanpoan uzten ditu, nahiz eta kanpoan uzteko arrazoiak bestelakoak izan.

¹⁰ ikusi lan honetan §3.3.1.1 eta §3.3.1.4; Zuazok (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014) eta Abaituak (2018) EBZren hausturaz esandakoak berrikusi ditut eta erakutsi dut iragazki kronologikoa ez dutela inondik inora betetzen.

Sintaxiari dagokionez, zaila izan ohi da sintaxiaren historiaurrean murgiltzea, aitzin-hizkuntzen sintaxia nolakoa zen definitzea eta aldaketak zer norabidetan gertatu diren erabakitzea. Horrek ez du esan nahi, jakina, sintaxi diakronikoa ezin egin daitekeenik, baina, maiz, eremu labainkorra izan daiteke.

Bestetik, lexikoa ere alde batera uzten da. Izan ere, lexikoa da modari lotuen dagoen hizkuntzaren atala, eta lexemak oso erraz mailegutzen dira, harremanduriko aldaeren edo dialektoen artean, baita genetikoki loturik ez dauden hizkuntzen artean ere: “[l]e domaine du lexique, en effet, est plus étroitement lié aux contacts culturels entre les civilisations que le domaine phonétique ou morphologique et par conséquent est moins approprié à établir une parenté dialectale” (Petit 2007: 24). Mitxelenaren (1964: 72) hitzetan, “[la] parte [del lenguaje] más postiza y menos estructurada: el vocabulario” da hiztegia, eta maiz ezer gutxi esan dezake bi dialektoren iraganeko harremanaz. Meilleten (1984 [1908]: 126) hitzok ideia bera azpimarratzen dute: “les coïncidences de vocabulaire n’ont en général qu’une très petite valeur probante”. Badaude salbuespenak, jakina, eta oinarrizko lexikoa zailagoa da mailegatzen. Hala ere, hor ere fonosinbolismoek beren lekua har dezakete eta, jakina, horiek ez dute konparaziorako balio. Esaterako, gurasoei erreferentzia egiteko hitzak oso antzekoak dira munduko hizkuntza askotan, nahiz eta horien artean harreman genetikorik edo geografikorik ez izan; adibidez, euskaraz *ama* da eta birmanieraz, /əmè/. Horregatik, lexikoa baino, lexikoak jasandako hots-aldaketak (egokitasun erregularrak) erabiltzeak ematen du irizpiderik zuhur eta zurrunena.

Kasu baterako, B (eta A) *urten* : G (eta A) *irten* & *erten* : GN, L, BN, Z *egorri* / *egort(z)en* parekatzen baditugu, *BGA (= MEZ?) **eorten* lortuko genuke. Hau da, pentsa genezake, ekialde zabal gordetzailean gertatutakoaren aurka, bokalarteko *g* galdu zela ($g > \emptyset / V_V$), bizkaiera, arabera eta gipuzkera sortu aurreko hizkuntz egoera komunean. Nahiz eta bokalarteko *gren* galera berrikuntza negatiboa izan, lexema horretan gutxienez bi berrikuntza positibo ere badaude: batetik, **eo* > *eu* gertatu da; bestetik, partizipio burutugabea (*e(g)orten*) partizipio burutu bezala interpretatu da eta mendebal zabaleko partizipio burutugabeak horren gainean eraikitzen dira egun: *urteten*, *ertet(z)en*, *irtet(z)en*. Lexema berriak sortzea edo aurretik ziren lexemak aipatu berri dugun moduan aldatzeak ahaidetasun hipotesiaren aldeko ebidentziatako har daitezke (Petit 2007: 24), baina, nolana ere den, hots-aldaketen eta berrikuntza morfologikoen inguruan gabiltza berriro ere. Hau da, lexema bakarrean gertaturiko berrikuntzen inguruan gabiltza eta, horrek hizkuntzaren sisteman muinekoa den berrikuntza batek baino indar frogatzaile txikiagoa badu ere, ez gabiltza bat-etortze lexiko hutsen inguruan, horiek frogagarritasun txikia dute eta.

Bestalde, eta berrikuntza paraleloen poligenesiarekin loturik, berrikuntzak bereziak izan behar dira, nahiz eta hizkuntzan berezia zer den esaten zaila izan daitekeen. Berrikuntza bereziez hitz egitean, esan nahi da aldaketa asko testuinguru (foniko)ak baldintzaturik dau dela eta testuinguru duen ia munduko edozein hizkuntzatan aurki daitezkeela aldaketa horren adibideak, garai zaharrago edo berriagoetan. Meilleten (1984 [1908]: 10) “*contrainte de singularité*” delakoa berezitasunari dago loturik. Esaterako, Ringeren & Eskaren (2011: 257-259) arabera, [ti] (> [tsi] > (...)) > [si] aldaketa(-katea) hainbat hizkuntzatan gertatu da: genetikoki loturik ez dauden eta elkarrengandik urrun dauden hizkuntzetan, baita garai desberdinetan genetikoki loturik daudenetan ere. Bistan denez, aldaketa horrek ez du balio handirik bi dialekto iraganean bakarra zirela frogatzeko, bilakabide *natural* bat delako, giza sistema edo gaitasun fonetikoak baldintzatua (Ohalá 1993; Blevins 2004). Gauza bera esan daiteke Euskal Herriko mendebaldean gertatu diren zenbait *e > a / _r* bilakabideez: *berri > barri*, *gerri > garri*, *txerri > txarri*, *gernu > garnu*. Zuloagak (2020a: 166) dioenez, Iberiar penintsulan bertan gaztelaniaz, leonera, aragoieraz, judu-gaztelaniaz eta katalanez ere gertatu da, baita beste Europako hainbat hizkuntzatan ere.

Horrek ez du esan nahi munduko hizkuntzetan hainbatetan lekukotzen diren hots-aldaketa *arruntak* filiazio-hipotesiak egiaztatzeko baliabideetatik kanpo utzi behar direnik. Ringe & Eskak (2011: 259-261) hizkuntza germanikoetan gertaturiko zenbait aldaketa batera edo bakoitza independenteki gertatzeko zer aukera dagoen ikertzen dute. Aipatzen dituzten aldaketetako gehienak ez dira eksklusiboak eta familia indoeuroparraren barruan bertan adibide gehiago aurki daitezke; adibidez, Grimmen legea tokarieraz ere gertatu zen ziurrenik (Ringe & Eska 2013: 260). Hots, aldaketa horiek ez dira bereziak. Aldiz, aldaketa txiki horiek elkarri loturik daude hizkuntza germanikoetan, ordena jakin batean gertatu ziren, kronologia erlatibo jakin bat osatzen dute. Horrek bereizgarritasuna ematen dio eta, beraz, zenbait aldaketa arruntek, era jakin batean konbinaturik, balio dezakete azpitaldeen arteko harremana frogatzeko.

Bestetik, Zuloagak (2020a: 63-64) berrikuntzei ezartzen dien beste hizkuntz hertsapenetako bat positiboa izatea da. Ideia hori jada Leskienek baitan (1876: vii, *apud* Zuloaga 2020a: 61) irakur daiteke: “Die Kriterien einer engeren Gemeinschaft können nur in *positiven Übereinstimmungen* der betreffenden Sprachen (...) gefunden werden” (etzanak nireak, [I.U.P.]). Berrikuntza positiboak behar ditugu, berrikuntza negatiboak, hots, ezaugarri baten galerak, ez dakarrelako berarekin filiaziorik. Horrek ez du esan nahi, jakina, berrikuntza negatibo bat ezin denik esanguratsua izan, baizik eta ez duela ziurtasunik eskaintzen ondorio sendoak ateratzeko.

Azkenik, hertsapen garrantzitsuenetako bat sistematikotasuna da. Sistematikoa izateak eskatzen du hizkuntzaren sisteman garrantzitsua izatea, muinekoa izatea. Horrez gain, gertatu beharko litzatekeenetan oro har gertatzea eta salbuespenik gabea izatea eskatzen du irizpide edo hertsapen horrek.

Zer-nolako ezaugarriak bilatzen ditugun azaldurik, ikus ditzagun hizkuntza indoeuroparren adibide batzuk, eta zergatik ez duten balio filiazio-hipotesiak frogatzeko. Adibideak Petiten (2007: 19) lanetik hartu ditut, nahiz eta berak gutxienez lehenengoa aitortuki Meilletengandik (1922 *apud* Petit 2007) hartzen duen. Polonieraz, *e > ie* gertatu zen: **tep-l-* > pol. *cieply* “bero”. Bilakabide hori bera hainbat hizkuntza erromantzetan gertatzen da: lat. *tepidum* > it. *tiepido*, fr. *tiède*. Bilakabide horrek ez du, aldiz, poloniera eta hizkuntza erromantzeak azpitalde berean biltzeko balio. Berria da hizkuntza horietan guztietan, ez zegoelako poloniera eta erromantze zaharretan eta, are gutxiago, konparatu beharko genituzkeen aitzin-hizkuntzetan. Hau da, iragazki kronologikoa ez du gainditzen. Horrekin nahikoa litzateke berrikuntza hori alde batera uzteko, baina beste bi iragazkiekin ere arazoak izango genituzke. Geografiaren aldetik, erromantzeak eta poloniera ez daude ukipenean eta ez du ematen inoiz egon direnik. Azkenik, hots-aldaketa huts horrek, bere horretan, frogagarritasun txikia dauka, hainbat toki eta garaitan dokumentatu delako. Esaterako, gaztelaniaz beste erromantzeetan gertatu ez denean ere gertatu da beranduago (gaz. *piensas* : cat., fr. *penses* : gal. *pensas*), eta finlandieraz ere gertatu omen da (Petit 2007: 19). Gauza bera esan liteke hasierako **p*-ren galeraz. Zelteraz eta armenieraz gertatu zen, baina, printzipioz, elkarrengandik urrutiegi, iragazki geografikoa gainditzeko. Gainera, berrikuntza negatiboa litzateke eta, beraz, hizkuntz iragazkia ere ez luke gaindituko.

1.2.3. Arkaismoak

Arkaismoak, berrikuntzak bezala, erlatiboak dira. Goian Caminoren (2008a: 212) berrikuntzen definizioa jaso dut. Honela dio: “[h]izkuntzaren ordura arteko egitura aitzindari batekiko edo egoera zaharrago batekiko, dialekto batean sumatzen den haustura da berrikuntza”. Definizio hori irauliz, esan genezake arkaismoa hizkeraren ordura arteko egitura aitzindaria dela, egoera zaharragoa, dialekto batean edo gehiagotan gordetakoa, beste dialekto bat(zu)etan sumatzen den berrikuntzarekiko.

Esan bezala, ikertzaileak ados daude esaten berrikuntzek frogatzen dutela dialektoen arteko harreman filogenetiko estuagoa, hau da, zuhaitzeko adar bereko ondorengoak direla ondorioztatzeko indar handiagoa dutela. Arkaismoek duten lekuaz, aldiz, ez da horrenbesteko adostasunik. Ez dira gutxi arkaismoak alde batera utzi eta aintzat berrikuntzak besterik ez dituztenak hartzen. Bower & Koch (2004: 11), adibidez, berrikuntzak baino ez erabiltzearen aldeko dira. Mitxelenaren (1964: 51) hitz hauek ere ikuspegi hori irudika dezakete: “La con-

servación conjunta de un arcaísmo en dos o más variedades de una lengua no supone, por el hecho de tratarse de algo pasivo que se explica por simple inercia, ninguna relación especial entre ellas”.

Aldiz, badaude arkaismoak neurri batean aintzat hartzearen aldekoak ere, hala nola Rodríguez Adrados (1997 [1952] *apud* Zuloaga (2020a: 65-67) eta Watkins (1966 *apud* Zuloaga 2020a: 65-67). Gerta daiteke hainbat arkaismoren mugak bat etortzea, berritu duen eremuarekiko. Kasu horietan, arkaismoak berritu ez duen eremuaren batasunaren adierazle izan daitezke eta, are gehiago, beste nonbaiten sortutako berrikuntza bat hartzeak ez du zertan pasiboa izan, baizik eta aktiboa (Camino 2008a: 237) —ikusi beheago §1.3.2 difusio-eredu hierarkikoak pasibotasuna nolabait azaltzeko ematen duen aukeraz—. Aktibotasun hori zertan den edo nola gauzaten den garatzea interesgarri litzateke, talde-erabaki kontziente bat iradokitzen duelako eta horrek ez duelako oso egiantzekoa ematen.

Nolanahi ere den, horrekin ez da esan nahi arkaismoak berrikuntzen pare daudenik edo arkaismo bat gordetzeak zuzenean darabilgun filiazio-hipotesiaren alde egiten duenik, benetan aktiboa den frogatzeko arazo metodologikoak berdin irauten baitu: benetan dinamika komun baten ondorio da arkaismoari eustea edo zerbait pasiboa? Adibidez, bokal sudurkariak erdialdean galdu baina mendebaldean —luzeago— eta ekialdean —oraindik ere— mantentzea ezin da pasiboa baino izan, edo ez, behintzat, arkaismo bateratzaile aktiboa bi eremuetan batera.

Aitzitik, berrikuntza zahar esanguratsuak eta arkaismo bateratzaileak gordetzen direnean, dinamika komunak eta, beraz, iragan komuna daudela ondorioztatzeko erabil ditzakegu. Hau da, arkaismo bateratzaile zaharrak berrikuntza zahar eta bereizleen laguntzaile eta indartzaile izan daitezke filiazio-hipotesiak egiaztatzeko.

Euskararen kasuan, berriki Urgellek (2020: 715-716) proposatu du, Mendebaldeko Euskara Zaharra (MEZ) definitzeko, $a + a > ea$ eta *egin* laguntzailearen gramatikalizazioa berrikuntzez gain, **edunen* 3. pertsonetako diptongoari eustea (*dau / deu* vs. ekialde zabaleko *du*) eta *rean* ablatiboa (vs. *-rik*) arkaismoak erabil daitezkeela.¹¹ Nolanahi ere den, arkaismoak kontuz hartu beharreko ezaugarriak dira dialektoak definitzeari dagokionez (Zuloaga 2020a: 64-67).

1.2.4. Hautuak

Bukatzeko, *hautu* izenez deskribatzen edo etiketatzen diren ezaugarri linguistikoak erabili izan dira dialektologian berrikuntza eta arkaismoekin batera, irudia osatzeko nonbait. Tradizio batzuetan besteetan baino gehiago erabili izan dira eta gurean, itxuraz, nahikotxo

¹¹ *-rean* arkaismoa edo berrikuntza den, ikusi Urgell 2020: 716, 31. oin-oharra.

erabili dira. Kanpoko ereduetan begiraturaz gero, ordea, bitxia da —edo ez hain bitxia— mundu mailan zenbait lan esanguratsutan aipatu ere ez direla egiten. Hori da, adibidez, Campbellen (2013) eskuliburuaren kasua. Antzera, Bowernek & Kochek (2004) Australiako hizkuntzen azterketa dialektologiko-diakronikoa egiteko finkatu metodologian ere ez dira hautuak aipatzen. Hona hemen Caminok (2008a: 226) ematen duen hautuen definizio eta azalpena:

Sorburu-hizkuntzak zerbait adierazteko aukeran zituen posibilitateetarik dialekto jakin batek forma bat hartzeari eta hedatzeari *hautua* esaten zaio. Hizkuntzaren barrenean dauden aukeren artetik, dialektoek egin ohi dituzten hautuak ez dira hizkuntzaren apaletan erakusgai dauden adizki, atzizki, morfema, hitz, hots edo fonemak, dialekto bakoitzak gogoko aukera egin dezan. Ez da guztiz honela. Hizkuntza sistema bat edo sistema-multzo bat da, eta sistemok batzuetan aldaerak eta hautuak aukeran dituzte, itxuraz sinonimo edo baliokide direnak, baina irudi horren gibelean historiak itzalpean utzi dituen errealitate gramatikalak ezkuta daitezke.

Definizio horretan, egin beharreko zehaztapenez gain, kontraesanak ere badaude, esaten dena seriotan hartzen bada bederen. Zer dira *aukera* horiek? Zertan dira baliokide? Hizkuntzak sistemak (edo sistema-multzoak) dira, baina forma bat edo bestea erabiltzea aldaera baten arabera egiten dela esaten den unetik, ene ustetan, ezin da sinonimiaz¹² edo baliokide hutsez hitz egin. Aldaera diatopikoez ari bagara, bi formak baliokideak izango dira, euskarazko *etxe* eta gaztelaniako *casa* diren bezala: ezin da bata bestearekin ordezkatu egoera komunikatiboaren logika apurtu gabe. Gauza bera gertatzen da dialektoen arteko baliokide geografikoez ari bagara eta, gainera, kasu horretan badakigu bat zaharra eta bestea berri(tzaile)a dela, ez direla bata eta bestea garai berean sortu, nahiz eta une berean erabili. Adibidez, gaur egungo euskaran —jatorriz ebakera bakarra zuen— *hitz* hitza [its] eta [hits] ahoskatzen da, baina hori ez da hiztunaren erabaki edo aukera bat; hasperena atxiki duten inguruetan [hits] da, eta galdu dutenetan, [its]. Beraz —edo berez—, ez da *hitz* hitza hasperenarekin edo hasperenik gabe ahoska daitekeela, baizik eta hasperenarekin edo hasperenik gabe ahoskatzen dela, lekuaren arabera. Gainera, hasperena duen ahoskera

¹² Beharbada nire uste hutsa baino ez da, baina, aldaera beraren barruan, sinonimoak edo baliokide hutsak, nire aburuz, ez dira existitu ere egiten, besterik ez bada, garunaren prozesamenduaren ekonomia eta praktikotasunagatik. Zertarako ikasiko ditu hiztunak egoera berean erabil ditzakeen bi, hiru edo sei forma? Besterik da hainbat lekutako edo erregistrotako baliokideak ezagutzen eta bakoitza dagokionean erabiltzen dituen. Ene ustez, benetako sinonimoak daudela pentsatzearen arrazoia hizkuntzei prestigioa emateko saiakeretan bilatu behar da, aberastasun seinaleztat jotzen baita —edo jo izan baita— erreferente berarendako hainbat etiketa izatea (eta bidean bakoitza nongoa den ahaztea). Sarean bilaketa azkar bat eginda, gaztelaniako *comerek* sinonimo hauek dauzka gutxienez: *tragar, engullir, devorar, embocar, embaular, zampar, manducar, papar, jamar, papear, corroer, roer, desgastar, gatar*. Nork erabiliko luke horietako edozein —edo ezagutzen dituenak— *comeren* lekuan, edozein egoera komunikatibotan?

gordetzailea da, eta hasperena galdu duena, berritzailea. Hau da, berrikuntza / arkaismo terminoetan azaltzen da.

Aldaera diastratikoez ari bagara, hots, soziolektoez, antzekoa esan daiteke. Aldaera sozialaren arabera, gauza bera adierazteko bi forma badaude, izan gazteek, langileek edo aristokraziak modu batera eta, hurrenez hurren, helduek, aberatsek edo herritar xumeek beste batera esaten dutela, formak ez dira aukerakoak, baizik eta egoera komunikatiboaren mendekoak. Alde horretatik, ez dago aldaera diatopikoekiko alderik: forma batzuk gordetzaileak izango dira, eta besteak, berritzaileak. Besterik da prozesu historikoa nola gertatu den aztertu nahi duen ikertzailea bata eta bestea edo horien arteko ñabardurak bereizteko gauza ez izatea, baina, beste askotan bezala, hori aztertzailearen arazoa da, ez errealitate historikoarena eta ez ditu testuinguru desberdinetan erabiltzen diren formak trukagarri —hots, sinonimo edo baliokide oso— egiten.

Horregatik guztiarengatik, zuhurragoa eta egiantzekoa ematen du *hautuez* ez hitz egitea, baizik eta arkaismoez eta berrikuntzez edo berrikuntza-kateez. Bide horretatik, Lakarrak (2011 [2014]: 198) hautu bezala sailkatu izan diren laguntzaile triperpersonalak (**eradun*, *-i-* eta **edutsi*) berrikuntza-kate bezala azaltzea proposatzen du.

1.2.5. Berrikuntza edo arkaismoa

Aurreko atalean ikusi dugu nagusiki berrikuntzak bilatu behar ditugula eta, gainera, berrikuntza jakin batzuk: ondoz ondoko dialektoetan agertzen direnak, fonologiaren edo morfologiaren esparrukoak, bereziak, positiboak, zaharrak, bateratzaileak, sistematikoak, eskusiboak eta hedadura zabalekoak. Eta nola bereiziko ditugu berrikuntzak eta arkaismoak? Hau da, nola ziurtatuko dugu ez dugula berrikuntza bat arkaismotako hartzen, edo arkaismo bat berrikuntzatako? Zoritxarrez, ez dago kasu guztietan aplikatu daitekeen erantzunik, eta kasuan-kasuan ikusi eta interpretatu behar dira datuak. Camino (2008a: 212) honela mintzatzeko da gaiaz:

Dialektologiaren barrenean eztabaida ugari gertatu da azterketan baliatzen den ezaugarri bakoitza berrikuntza ala tasun zaharra den erabakitzean; bereizketa nagusi hau egoki egiten ez bada, analisiari eragin kaltegarriak etor dakizkioke; dena den, ez pentsatu behar batzuk eta besteak bereiztea horren gauza erraza denik.

Zuloagak (2020a: 48) gogorarazten duen bezala, *kau*, *kori*, *kura* erakusleen inguruan asko eztabaidatu izan da (esaterako, Mitxelena 1951: 575-576), zer garaitako arkaismoak izango ote ziren, eta, testu gehiago aurkitu direnean, hala nola Etxarten eta Rosen arteko gutunak (Lakarra *et al.* prestatzen), duela gutxiko berrikuntzak ematen dute (Lakarra 2011 [2014]: 73. oin-oharra).

Zorionez, badaude interpretazio ahalik eta zuzenena egiten laguntzen duten irizpideak. Hasteko, argi izan behar da *arkaismo* eta *berrikuntza* termino erlatiboak direla. Ezaugarriak garai eta egoera linguistiko batekiko dira gordetzailerik edo berritzaile eta garai batean berrikuntza zena arkaismo izan liteke gero. Hortaz, garaian garaiko egoera linguistikoak ahalik eta hobekien ezagutzea funtsezkoa da. Zer egin, ordea, garaia eta, beraz, egoera linguistikoa historiaurrekoa denean? Idatzirik ez dagoenean? Nola erabaki dezakegu testuetan agertzen diren ezaugarriak garai bateko arkaismoak edo berrikuntzak diren? Horretarako ere badaude zenbait lagungarri, hala nola neolinguisten *hatsarreak* (Bartoli 1925). Nik Caminoren (2009: 146-147) lanetik hartu ditut:

- I. Bi egoera linguistiko daudenean, eta horietako bat bestea baino lehenago lekukotzen denean, hori izan ohi da zaharrena.
- II. Eremu geografiko islatuek, komunikazio-bideen oztopo gehiago dituztenek, arkaismo gehiago bildu ohi dituzte oztoporik gabeko komunikazio-bideak dituztenek baino.
- III. Bazterretan (periferian) erdialdeko eremuetan baino arkaismo gehiago bildu ohi dira.
- IV. Ezaugarriak zenbat eta hedatuago, hainbat eta zaharrago izan ohi dira.
- V. Hizkuntzak hedatu diren lurralde berria(goa)k berritzaileago izan ohi dira.
- VI. *Fase sparitan* dauden ezaugarriek emankor direnek baino aukera gehiago dituzte arkaismo izateko.

Horiekin batera, aldakortasunaren irizpidea ere erabili izan da ezaugarri jakin bati zahartasuna aitortzeko, erlatiboan bederen. Irizpide horren arabera, zenbat eta aldakortasun dialektal txikiagoa izan ezaugarri batek, orduan eta aukera handiagoak ditu zaharra izateko; eta alderantziz, zenbat eta aldakortasun dialektal handiagoa izan, orduan eta aukera handiagoak ditu modernoagoa izateko.

Aldiz, irizpide horiek guztiak joerak dira, eta ez arau, elkarri kontrajarriak egon litezke eta, horregatik, kontu handiz interpretatu behar dira datuak. Irizpide horien eta beste batzuen inguruan ere ezin utzizkoa da Mitxelenaren (1963) *Lenguas y protolenguaseko* "Métodos y criterios" kapitulua.

1.3. Zuhaitzak eta kritikak

Dialektalizazio-prozesua zuhaitz genealogikoen bidez irudikatzea hizkuntzalaritza historikoa diziplina bera bezain zaharra da, ia-ia. Jada 1862. urtean Schleicherek *Stammbaum* (alemanez, *Stamm* 'erro' + *baum* 'zuhaitza) edo zuhaitz genealogikoaren eredua proposatu zuen jatorri bereko hizkuntzen arteko harremanen egitura (filiazio-hipotesiak) irudikatzeko. Eredu horretan, aitzin-hizkuntza *batutik* abiatzen da, eta adarkatuz doa denboran aurrera zuhaitzean behera egin ahala, egungo dialekto edo hizkuntzetara iritsi arte. Beraz, jarauntsitakoan jartzen du arreta. Aldiz, eredu horrek hainbat kritika jaso zituen baita hasiera-hasieratik ere,

jarauntsitakoa eta goitik beherakoa hizkuntzaren eboluzioaren alderdietako bat besterik ez delako, eta beste alderdi batzuk alde batera gelditzen zirelako, hala nola konbergentzia eta elkarren ondoko hizkuntza, dialekto eta hizkeren arteko transmisioa (Schmidt 1872; Schuchardt 1900).¹³

1.3.1. Zuhaitzak eta uhinak

Atal honetan, zuhaitz genealogikoari kontrajarri zaion *eredu* nagusia berrikusiko dut *uhinen teoria* (alemanez, *Wellentheorie*) alegia. Datorrenaren abiapuntua Jacques & Listen (2019) lana da. Lan horretan, zuhaitz-ereduaren sorrera azaltzen dute, egin izan zaizkion kritiketako batzuk jasotzen eta zenbait alternatibaren ahuleziak erakusten dituzte, hala nola uhin teoriarenak eta glotometriarenak, zuhaitzek dakartzaten onurak eta dituzten mugak eztabaidatzen, eta haien beharra aldarrikatzen dute.

Esan bezala, zuhaitz genealogikoak, aldeleez gain, aurkariak ere izan ditu. Schmidtek (1872) *uhinen teoria* deitu izan dena proposatu zuen, zuhaitzaren ordez, zenbait ezau-garriren banaketa gorabeheratsua azaltzeko asmoz. Eztabaida luzeak sortu ditu zuhaitz-ereduaren eta uhin-teoriaren arteko talkak. Aldiz, zer den ere ez dago argi, teoria —edo hipotesia— edo isoglosak irudikatzeko eredu bat (Jacques & List 2019: 132-133), eta, nire ustez, hortik etor litezke geroko hika-mika, gaizki-ulertze, eztabaida eta desadostasunetako asko.

Schmidtek (1872: 27), formulatzen duen moduan, hizkuntz aldaketaren inguruko teoria bat —edo, berriz, hipotesi bat— da: “Haren [hots, arbolaren irudiaren] ordez, uhinaren irudia jarri nahi dut; uhinok eraztun kontzentrikoetan urruntzen dira erdigunetik, eta zenbat eta urrunago orduan eta ahulagoak dira”.¹⁴


Horren arabera berrikuntzak, uhinen moduan, zirkulu kontzentrikoak deskribatuz hedatzen dira eta, erdigunetik urrundu ahala, indarra galduz doaz, iristen ez diren arte. Horraino, berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzeko hipotesi bat da —“Zerbait azaltzeko edo frogatzeko abiapuntutzat hartzen den behin-behineko baieztapena, gerora egiaztatu behar dena”, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*—, eta, beraz, egiaztatu beharrekoa. Horregatik, hemendik

¹³ XIX. mende bukaerakoak edo XX. mende hasierakoak ez ezik, kritika modernoagoak ere jaso ditu. Esaterako, Dixonen (1972, 1997, 2001) arabera, hizkuntzalaritza historikoko metodo konparatua oso ongi doa dokumentazio luzeko eta kontaktu *urriko* hizkuntza indoeuroparretarako edo austronesioendako, baina haren metodoak ezin dira aplikatu gutxienez Australiako hizkuntzak aztertzeko, hango hizkuntzak *punctuated equilibrium* delako batean egon direlako. §3.2n azalduko dut sakonago Dixonen proposamena; horrekin batera, egin zaizkion eta egin dakizkion kritikak berrikusi, eta eztabaidatuko dut zergatik ezin zaion EBZren kasuari aplikatu.

¹⁴ Nire itzulpena da. Jatorrizkoa: “Ich möchte an seine Stelle [zuhaitzaren ordez alegia] das Bild der Welle setzen, welche sich in concentrischen mit der Entfernung vom Mittelpunkte immer schwächer werdenden Ringen ausbreitet”

aurrera, *uhin (moduko difusioaren) hipotesi* esango dut berrikuntzak hedatzeko modu honi erreferentzia egiteko. Are, hipotesi hori hizkuntz aldaketaren inguruko teoria orokorrean txertatu beharko litzateke, besteak beste hots-aldaketa erregularren erregularitasunarekin batera, Alemanian, Euskal Herrian edo Myanmarren edozein hizkuntzatako berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzeko hipotesia baita —teoria: “jakintza batean, gertakari sail jakin baten azterketatik ateratzen diren ezagutzen sintesi sistematikoa; *alor jakin bati buruzko ideien edo hipotesien multzo egituratua*” Euskaltzaindiaren Hiztegia (etzanak nireak [I.U.P.]—¹⁵. Horren bidez, hizkuntzetan aurkitzen zuen zatikako banaketa azaldu nahi zuen Schmidtek (1872).

Bestalde, ikertzaile batzuek mapa batean hainbat ezaugarriren isoglosak marrazteari, Bloomfieldek (1933: 316) dakarrenaren moduko mapak egiteari, eta elkar nola gurutzatzen duten ikusteari esaten diote *uhin teoria*. Esan gabe doa hizkuntz ezaugarri bat(zuk) mapa batean irudikatzea ez dela teoria edo hipotesi, datuak aurkezteko modu bat baizik, eta, hutsean, ez du ezer azaltzen. Horrekin ez dut inondik inora esan nahi mapan isoglosak irudikatzea erabilgarri edo lagungarria ez denik; gogora bitez Mitxelenaren (1964: 37) hitzok: “Y nunca debemos olvidar que la distribución actual de los fenómenos lingüísticos suele ser distinta de la pasada, aunque aquélla nos proporcione indicios y claves para reconstruir esta”. Nekez imajina daiteke hizkuntz ezaugarrien mugak eta banaketa irudikatzeko isoglosa-mapa baino modu hobe edo erosoagorik, eta historiako une jakin bakoitzean isoglosak non zeuden irudikatzeko ezin hobea da, baina horrek ez dio azalpen-izaera ematen, hau da, ez du hipotesi edo teoria egiten.




1. irudia: Zenbait hizkuntza indoeuoparren isoglosa-mapa. Zenbakiz markaturiko zirkulu bakoitzak ezaugarri bat irudikatzen du. Iturria: Bloomfield (1933: 316).

¹⁵ Aukeran, eman ditudan *hipotesiren* eta *teoriaren* definiziook zientzia-eskulibururen batetik atera nahiko nituzke, baina horrelakoak ez dira aurkitzen errazak eta definizio horiek nekez hobe litezkeelakoan nago. Konpara bitez definizio horiek, adibidez, *DRAEK* dakartzanekin. “Hipótesis: suposición de algo posible o imposible para sacar de ello una consecuencia”; “Teoría: “Hipótesis cuyas consecuencias se aplican a toda una ciencia o a parte muy importante de ella”.

Hala ere, uhin teoriak kritika asko jaso zituen eta jasotzen ditu. Aldiz, kritiketan ere (ezaugarren hedapenaren inguruko) hipotesiaren eta isoglosa-maparen arteko nahastea nabari da, eta kritika batzuk eta besteak ez dira maila berekoak. Horregatik, lehenik biak argi bereizi behar direla uste dut. Hortik hasiko naiz.

Schmidtek (1872) *Wellentheorie* delakoa *Stammbaum* edo arbola genetikoaren aurka egiteko proposatu zuen. Ordea, ez da kritika (egokia). Zuhaitzak, edo zehatzago arbolaren adarkatzeak, filiazio-hipotesiak dira eta berrikuntzak nola hedatu diren ez zaizkio axola. Hau da, adarkatzeak hau trinkotzeko modua dira: lehen bateratua zegoen aitzin-hizkuntza, aitzin-dialekto edo *aitzin-dena-delakoa* hautsi egin zen, A eremuan X berrikuntza sortu eta hedatu zelako eta B eremuan Y berrikuntza sortu eta hedatu zelako edo, besterik gabe, ez zelako X gertatu (arkaismo bateratzailea). Schmidten hipotesia, ordea, berrikuntzen hedapenaren inguruko hipotesia da, esan bezala, Schmidtek nahi zein ez, berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzen du, baina ez dakar berekin filiazioaren inguruko kontsideraziorik. Are, uhinen hipotesiak ez du inongo hizkuntz egoerarekin loturarik, erabat independentea da, eta berrikuntza batzuk eta besteak gurutzatzen diren ez du axola, bere aplikazio eremutik kanpo gelditzen delako. Beherago hipotesiak jaso kritikei helduko diet.

Horregatik guztiarengatik, uhin-moduko difusioaren hipotesia irudikatzeak ere ez du zentzurik eta, hipotesiak dioena muturrera eramanez —edo, egin beharko genukeen moduan, seriotan harturik—, Hernández-Campoyk (1999: 269) egiten duen irudi abstraktua ere ez da uhin-hipotesiaren irudikapena, baizik eta uhin bidez hedaturiko berrikuntza baten isoglosa hiru unetan.



2. irudia: Uhinen hipotesiaren irudikapena. Iturria: Hernández-Campoy (1999: 269).

Izan ere, ezaugarri jakin baten isoglosa hiru garaitan markatuko bagenu mapa batean, hiru garaitako isoglosa-mapa izango genuke, baina ez hedapenaren irudia.¹⁶ Hedapena prozesu

¹⁶ Fisikan ere antzeko arazo bat dute: Heisenbergen ziurgabetasun printzipioa; hots, ezin da une jakin batean partikula baten kokapen zehatza eta momentu lineala ezagutu: ezin da auto baten abiada une jakin batean

bat da, bilakabide bat, puntu batetik bestera doan bidea, eta ez hasierako eta amaierako puntuak. Demagun $a + a > ea$ hartu eta zer eremutan egiten zen markatzen dugula mapa batean. 1. unea berrikuntza sortu zen unea bera litzateke, non Gasteizen baizik ez zen egiten. 2. unean, hedaturik dago eta MEZ definitzen duen lehen berrikuntza da. Hedadura zabala izango luke, eta Gipuzkoako ekialdeko muturretik gertura arte iritsiko litzateke —ikus *Urgellek* (2020) dakartzan MEZren ekialdeko mugaren inguruko oharrak—; izan ere, *Salmo misererean* (Unzueta 1982) egiten da, eta testuak Gipuzkoako (ipar-)ekialdekoa izan daiteke, besteak beste **edunen* ergatiboko pluralgilea *-te* delako. 3.ean, hedadura galduko luke eta Gipuzkoako (ipar-)ekialdean eta euskara Araban galdua legoke. Hiru isoglosa horiek nondik nora hedatu den erakutsiko lukete, baina ez noiz eta nola hedatu den, ezta noiz, nola eta zergatik egin duen ondoren atzera.

Horrez gain, irudikapen hori azalpena ere ez da, deskribapena baizik. Balizko azalpena uhin-hipotesiak ekarriko luke, nahiz eta isoglosa-maparen beharrik ez izan. Uhin-hipotesiaren arabera, ondoz ondoko hizkeratik hizkerara hedatuko litzateke eta epizentrotik urrundu ahala indarra galduko luke, hurrengora igarotzeko indarrak ez duen arte.

Bestalde, *uhin-teoriari* egotzi izan zaio ez duela denbora kontuan hartzen. Garatzen ari naizen argudiaketaren argitan, bai eta ez. Uhin-hipotesiak denbora kontuan hartzen du, prozesu bat azaltzen duelako, eta denbora prozesuaren aldagaietako bat delako. Isoglosen irudiak, ordea, ez du denbora kontuan hartzen, une jakinetako irudiak direlako eta hor ez delako bilakabiderik. Berdin, Bloomfielden (1933: 316) irudiaren modukoetan —lan honetan, 1. irudia—, egotzi izan zaio ez dutela denbora kontuan hartzen. Aldiz, une jakin bateko argazkia da eta, esan dudan moduan, une jakin batez ari garenean, ez dago denboratarerik. Horrez gain, aldea da irudiak ez duela ezaugarri bakarraren isoglosa jasotzen, baizik eta hainbatena; guztiak garai eta jatorri berekoak direla, hots, erakusten duten egoera betikoa dela pentsatzea bada ezinezkoa eta guztiz anakronikoa. Dialektologia diakronikoaren lanak izan beharko luke berrikuntzak gutxienez erlatiboki datatzea, berrikuntza bakoitza bere garaian kokatzea eta, beraz, hamaika isoglosa nahas-mahas dituen irudia sinpletzen joatea.

1.3.2. Uhin-hipotesia eta difusio-eredu hierarkikoa

Iragarri bezala, uhin-hipotesiak ere kritikak jaso ditu. Batetik, sinpleegia izatea egotzi zaio, ez dituelako difusioaren nondik-norakoak azaltzen, ez dituelako difusioak zer ezaugarri eta zer egituraren bidez hedatzen den azaltzen. Bestela esanda, geografiari mugatu eta gizarte

ezagutu, abiadura (bilakabidea) x puntutik y puntura bitarteko distantziaren eta autoak distantzia hori betetzeko behar izan duen abiaduraren arteko erlazioa delako, eta ez x eta y puntuak (isoglosak garai jakin batean).


aldagaiari ez erreparatzea leporatu izan zaio (Camino 2009: 124). Zuloagak (2020a: 83) hau esaten du uhin teoriaren ahultasunen inguruan:

[A]ise ikusteko moduan erakusten du zein izan bide den berrikuntza linguistikoaren sorlekua eta nola ahuldu den gune horretatik urrundu ahala. Alabaina, *azaltzeke edo ikusteke uzten ditu zein izan diren difusioaren ezaugarriak eta egitura, nola eta non zehar heldu den benetan berrikuntza gerora lekukotutako lekuetara*. Uhin teoriak difusio-prozesuaren emaitzak erakusten ditu, ezer erakustekotan, ez difusio-prozesua nolakoa izan den. (etzanak nireak dira [I.U.P.])

Aurretik azaldutakoaren bidetik, etzanik gabeko zatietan aipatzen direnak uhin-hipotesia mapan islatu nahi izanaren ajeak dira, baita emaitzak erakusten dituela egozte ere. Etzandakoetan, aldiz, badira uhin-hipotesiaren aurkako kritikak. Izan ere, uhin-hipotesiak, printzipioz, nondik nora eta non zehar azaldu beharko lituzke: eremu fokaletik kanpoaldera, eraztun kontzentrikoak egiten, ondoz ondoko ukipenagatik. Kritika horiek egin behar izatea, ordea, hipotesiak huts egiten duen seinale da. Datozenak Caminoren (2009: 124tik aurrera) eta Zuloagaren (2020a: 83tik aurrera) tesitik atera ditut. Halaber, Zuloaga Hernández-Campoyren (1999; Zuloaga (2020a) 1999 [2001] bertsioan) eta Bergsen (2006, *apud* Zuloaga 2020a) lanetan oinarritzen da, besteren artean.

Batetik, difusioa epidemikoa edo hierarkikoa izan daiteke. Epidemikoa uhin-hipotesiaren arabera litzateke funtsean: berrikuntza sorgunetik kanpoaldera abiatzen da, ondoz ondoko lurraldeetara, auzotasun-efektuarekin loturik. Aldiz, difusio-eredu hierarkikoaren arabera, berrikuntza maila bereko edo antzeko biztanleri gune batetik bestera hedatzen da lehenik, eta hortik biztanle gutxiagokoetara, bizilagun gutxien dutenetara iritsi arte.¹⁷ Eredu horrek uhin-hipotesiarekin talka egiten du, eta, itxura denez, uhin-hipotesiak proposatzen duen eredu epidemikoz hedaturikotzat hartzen ziren berrikuntza asko, benetan, difusio hierarkikoaren bidez hedatu ziren (Zuloaga 2020a: 84) —bestalde, hierarkian kontrako bidea egin duten, hots, behetik gora hedatu diren berrikuntzez ikusi (2020a: 86-87)—. Hona hemen Wolfram & Schiling-Estesek (1998: 145, *apud* Zuloaga 2020a: 85) difusio-eredu hierarkikoaren irudi abstraktua —txikikeria eman arren, ohar bedi gezien bidez irudikatzen dutela difusio-bidea edo prozesua, eta ez hiru garaitan isoglosaren mugak non dauden irudikatuz—:

¹⁷ Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, *eredua* “zerbait egiteko edo moldatzeko iturburutzat hartu behar den gauza; bere nolakotasun bikainengatik norbaitek bere egitekoetan jarraitzen dion edo jarraitu beharko liokeen pertsona edo gauza” [etzanak nireak dira I.U.P.]. Gurera etorririk, honela ulertzen dut *eredua*: baieztatutako hipotesi bat erabiltzea beste kasu batzuk azaltzeko. Difusio-eredu hierarkikoa berrikuntzak nola hedatu diren azaltzeko —edo, zehatzago, hipotesia egin eta egiaztatzeko— erabil daiteke, egiaztatu delako beste berrikuntza batzuk horrela egin zirela.



3. irudia: Difusio-eredu hierarkikoa. Iturria: Wolfram & Schilling-Estes (1998: 145, apud Zuloaga 2020a: 85).

Difusio-eredu hierarkikoaren adibide paradigmaticoenetako bat [R] dardarkariaren hedapena da. Trudgillen (1974: 218tik aurrera) arabera, dardarkariaren [r > R] bilakabidea Pariseko berrikuntza izan zen, eta hortik inguruko herrialdeetako hiriburuetara hedatu zen lehenik — Berlinera, Koloniarra, Bruselara, eta abarretara—, eta, hiriburuetatik, inguruetara. Euskaraz, Zuloagak (2020a: 568tik aurrera) berriki proposatu du txistukarien neutraltzea horrela azal litekeela hobekien, neutralizazioa indar demografiko handiko guneetan hasi zelako.

Difusio-eredu hierarkikoan, horrenbestez, geografiaz harago faktore soziologikoak dira berrikuntzen hedapena baldintzatzen dutenak: pisu demografikoa, indar sozioekonomikoa, tamaina, zerbitzuak, inguruko muga politiko-administratiboak, inguruko geografia, eta abar (Taeldeman 2005: 283). Bistan denez, eredu horretan hiriak eta hiriguneak, *urban centers* Taeldemanen (2005: 276) hitzetan, dira berrikuntzen abiaburua. Egile horrek (Taeldeman 2005: 269) hiru eredu ikusten ditu:¹⁸

- 1) Hiri(gune) bat, berrikuntzaren sorgunean izanik, foku berritzailea izan daiteke eta, ondorioz, dibergentzia eragin dezake.
- 2) Hiri(gune) batek beste nonbaiten sortutako berrikuntza bat bere egin dezake eta, ondorioz, dibergentzia edo konbergentzia eragin.
- 3) Hiri(gune) batek beste nonbait sortutako berrikuntzari uko egin diezaioke eta, beraz, dibergentzia eragin dezake.

¹⁸ Kanpoko eredu horietan, aldaketaren motorra hiriak eta hiriguneak dira, eta inoiz ez mendiak (cf. Barrena 1989: 110etik aurrera, apud Zuazo 2010a: 165).

Azken puntua oso interesgarria da. Izan ere, horrela ulertuta, beste nonbaiten sortutako berrikuntza bat ez onartzea ez da gauza pasiboa, erabat aktiboa baizik. Camino (2009: 127) ere horretaz mintzo da:

Berrikuntza ez onartzeak ez du zertan egoera pasiboa izan, non distantzia luzearen eraginak berrikuntzaren etena dakarren; berrikuntza ez onartzea egoera aktiboaren ondorioa izan daiteke, gizartearen egokieratik sortu dena. Egokiera horrek egituren multzo hierarkikoa erakusten digu, produkzio- eta ugaltze-bideak jendearen irispidean oso era eta maila desberdinetan daudela.

Interpretazio horren argitan, arkaismo bateratzaileak ere oso esanguratsuak izan daitezke, nahiz eta benetan arkaismo bateratzaileak direla frogatzea zaila izan. Hanka sartze handiak saihesteko besterik ez bada ere, berrikuntza zahar bereizleekin batera erabiltzeak ematen du jokamolderik zuhurrera. Zuloagak (2020a: 703) eta Urgellek (2020) horrela jokatzen dute, *a + a > ea* disimilazio morfonologikoarekin eta *egin* laguntzaile bezala gramatikalizatzearekin batera, hurrenez hurren ergatibo pluraleko *-ak*, **edunen* 3. pertsonako adizkietako *dau* dip-tongoa mantentzea eta ablatiboko *-(r)ean* arkaismo bateratzailetako proposatzen dituztenean.

2. Euskararen dialektologia (diakronikoa)ren ibilbidea eta *status questionis*

Atal honetan, euskal dialektologiaren ikerketak izan duen bilakabidearen laburpen txiki bat egingo dut. Hirutan bereizi dut: Mitxelena aurreko garaia (§2.1), Mitxelenaren ekarpena (§2.2), eta Mitxelena ondoko garaia (§2.3), halaber bitan banandurik: 2008-2011[2014] arte (§2.3.1) eta 2011[2014]tik 2020ra (§2.3.2).

2.1. Mitxelenaren aurretik

Hizkuntzaren historian —*lato sensu*—, historiaurretik historiarako —*stricto senso*— jauzia lekukotasunek definitzen duten moduan, euskararen ikerketa historikoa Mitxelenarekin hasi zen ia-ia. Hala ere, paralelismoarekin jarraituz, historiaurretik historiarako jauzia ez da bat-batekoa izaten eta proto-historia garai bat dago askotan —euskararen kasuan, mila urtetik gorakoa da garai hori—, eta, zilegi bazait, euskararen historiaren ikerketan ere proto-historia garai bat defini liteke. Ez dut Mitxelena aurreko euskararen inguruko lan eta ikertzaile guztien bilduma egingo, luze joko lukeelako batetik, eta bestetik, guztiak ez direlako lan honetarako esanguratsuak. Dialektologia (diakronikoa) ukitu duten lan nagusietara mugatuko naiz.

Adibidez, Larramendi kanpoan utzi dut, dialektoen gaira hurbildu bazen ere, ez zituelako hizkuntz ezaugarriak eztabaidatu (Pagola 1990). Gutxienez, bi arrazoi daude Larramendik dialektologia —diziplina zientifiko bezala— ez egiteko: batetik, bestelako asmoak zituen: euskara “goren gradura eraman” nahi zuen (Lakarra 1985: §4) eta, horregatik berariaz, Hiztegi Hirukoitzean hitzak nongoak ziren ere ez zuen adierazi; bestetik, Larramendik nekez

lan zezakeen XVIII. mendearen lehen erdian XIX. mendean garatu zen diziplina bat (Boberg *et al.* 2018: 5).

2.1.1. Bonaparte

Mitxelenaren aurretik euskararen dialektoak aztertu, sailkatu eta eztabaidatu zituztenen artean, Bonaparte printzearen egitasmoak leku nabaria merezi du, hura izan baitzen datu asko biltzen, isoglosak irudikatzen —nahiz eta isoglosa kontzeptua beranduagokoa izan— eta euskararen eremu osoko dialektoak isoglosa horien arabera definitzen saiatu zen lehena —Bonaparte ondoko dialektologiaren inguruko laburpen baterako ikusi Zuazo 1995—. Zenbait hizkeraren (ia) lehen —eta azken— lekukoak Bonaparteri zor zaizkio. Osotara, zortzi eremu bereizi zituen: bizkaiera, gipuzkera, ipar goi-nafarrera, hego goi-nafarrera, lapurtera, mendebaldeko behe-nafarrera, ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera. Ñabardurak ñabardura, atzetik etorri direnek Bonaparteren sailkapena izan dute oinarri, eta Mitxelenak berak (1964: 26) “una clasificación muy cómoda, además de razonable” zioen printzearen sailkapenez. Mitxelenaren (1964: 26) aipua, ordea, ez da hor amaitzen, eta osorik ikustea merezi du:

[E] Príncipe nos ha legado una clasificación muy cómoda, además de razonable, que todos venimos usando como marco de referencia hasta el día de hoy, pero también nos ha legado con ella, aunque esto sea despreciable, algunos temas de discusión puramente académicos. Pues el lingüista de hoy, que desea saber no dónde termina el dialecto vizcaíno y dónde empieza el guipuzcoano, sino los únicos límites que se pueden determinar, los de hechos lingüísticos concretos (el de *alabea* / *alaba* ‘la hija’, por ejemplo), de poco le sirve una clasificación de este género.

Mitxelenaren hitzak, ohi bezala, xeheago ikustea komeni da. Mitxelenaren arabera, Bonaparteren sailkapena eroso da, baina baditu bere arazoak: dialektoen mugak islatzen ditu, eta ez isoglosak, ezaugarrien mugak, hizkuntzalariak —edo hizkuntzalari historikoak— nahiko lukeenaren aurka. Horregatik, hizkuntzalariarendako oso erabilgarri ez direla irizten die horrelako sailkapenei.¹⁹ Bonaparte (1863) oso kontziente zen egindako lanaz, izenburutik: *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l’euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés* [azpimarra nirea da, I.U.P.]. Hots, Bonaparteren lana une jakin bateko banaketaren isla da, une jakin baten argazkia, datu-bilketa baten ondorioa, baina ez du harago joateko asmorik.

Ene ustez, eta Caminoren (2008a: 209) gorago aipatutako hitzak gogoan —“Dialektologiaz dihardugunean kronologiaz jardun behar dugu baitezpada, hizkuntzaren historia eta dial-

¹⁹ Mitxelenaren (1964: 25-26) Bonaparteren inguruko hitzok ere esanguratsuak dira: “Pero su capacidad para la minuciosa observación microscópica no iba acompañada de la facultad de elevarse a la región enrarecida de los principios abstractos. De aquí que su obra de dialectólogo sea mucho más importante por el peso bruto de los copiosos materiales recogidos y ordenados por él que por el valor de sus aportaciones teóricas”.

ektoen azterketa uztarturik baitaude”—, hor dago Mitxelenak aipatzen duen erabilgarritasunik ezaren funtsa: Bonapartek ez zuen helburu historikorik —beharbada, ezta aldaketa linguistikoaren inguruko teoriarik ere—: ez zuen aurkitzen zuen irudia nola sortu den azaltzeko asmorik, ez dakar berekin euskararen dialektoen iraganaren inguruko hipotesirik. Horregatik, dialektoen mugak islatzen ditu eta ezaugarrien isoglosak bigarren maila batean gelditzen dira. Datu horiek bigarren mailan gelditze horrek, baina, iraganaren inguruko hipotesiak egin eta egiaztatu nahi dituenarendako esanguratsu diren zenbait datu estalirik gelditzea dakar berarekin.

Dialektologia egiteko bide horrek egungo eguneraino iraun du, gehiago edo gutxiago. Azken saioa Aurrekoetxea *et al.*ek (2019) *Euskalkien sailkapen berria* aurkeztuaz eta argitaratu duten liburua da: EHHako datuetan oinarriturik, kalkulu estatistikoak egiten dituzte —haiek baino, ordenagailuak— eta haien hitzetan sailkapen “objektibo eta zientifiko” bat lortzen dute lehenengoz euskal dialektologian. Zuazok (2020) eta Coyosek (2020) gogor eta zentzuz kritikatu dute lan hori, eta kritiketatik asko EHHAeko datuak erabiltzeari dagozkio. Adibidez, EHHA egin zenean euskal dialektologiaren ezagutza apal xamarra zen eta, ordutik hona, dialektologia moduren batean edo bestean lantzen duten tesiak, artikuluak, liburuak, hiztegiak, eta abarrak argitaratu dira. Bistan denez, EHHAn ezin zen gerora ezagutu diren ezaugarrien inguruan galdetu. Are gehiago, EHHako datu asko ere ez dira fidagarriak, askotan galdetua galdetzailearen hizkerara hurbiltzen edo prestigio handiagoko formak, eza gutzen zituen neurrian, ematen saiatzen zelako (Zuazo 2020: § 2.2).

Hala ere, benetako kritika oinarrizkoagoa da: Aurrekoetxea *et al.*en (2019) lana ez da zientifikoa ez duelako ezer azaltzeko asmorik; datuak itsu-itsuan hartu eta sailkatzea baizik ez du bilatzen. Zientzian, aldiz, kontrakoa da bidea: azalpenek dakartzate sailkapenak, eta, zenbat eta azalpen sakonagoak izan, orduan eta sailkapen zuhurragoak lortzen dira. Filiazio-hipotesiak planteatzen eta egiaztatzen falta den lan handia eta lan horrek ekarriko lukeen Euskararen Dialektalizazioaren Teoriaren gabezia salatzen dute horrelako saioek.

2.1.2. Lacombe eta Uhlenbeck

Mitxelenaren aurretik, egon zen dialektoen iraganaren inguruan bere ideiak eman zituenik. Lacombe (1924) bizkaiera dialekto beregaintzat hartu zuen eta gainerako aldaerak talde berean sartu zituen, haren arabera muga gotoragoa edo jauzi handiagoa zegoelako bizkaieratik gipuzkerara gainerako dialektoen artean zegoena baino.²⁰ Lacomberen sailkapena oinarri, Uhlenbeck (1947) harago joan zen eta hipotesi esplizitu bat proposatu zuen: bizkaiera eta gainerakoak, jatorriz, aspaldiko hizkuntza desberdinak ziren eta, denboraren

²⁰ Caminoren arabera (2009: 505), Bonapartek berak, Duvoisinek, Campionek & Borussainek eta Urkixok ere nabarmendu zuten bizkaieratik gipuzkerara muga gotoragoa zegoela, gainerakoen artean baino.

eta ukipenaren poderioz, elkarri hurbilduz joan omen dira. Haren arabera, euskara hau zen: “langue mixte, qui se compose d’éléments très hétérogènes, mais qui depuis des siècles s’est harmonisée” (Uhlenbeck 1947: 59, *apud* Lakarra 2003 [2008]: 301-302). Aldiz, ez zuen, beharko lukeen bezala, lekukotasunen azterketarekin eta hizkuntz ezaugarrien historia eta kronologia gutxienez erlatiboarekin egiaztatu hipotesia. Lan hori, beste zenbait alderditan bezala, Mitxelenak egin zuen.

2.2. Mitxelena eta bere ekarpena

1981ean “Lengua común y dialectos vascos” artikulua argitaratu zuen Mitxelenak. Lan horretan, Hans Vogten (1955: 131 *apud* Mitxelena 1981: 296-297) usteari jarraituz, dialekto guztiek partekatzen dituzten ezaugarriak azpimarratzen ditu, eta erakusten du dibergentziak txikiak direla eta, askotan, dibergentzia horiek partekaturiko baliabideekin osaturikoak direla. Adibidez, izen-morfologia komuna da, mendebaldeko *-rean* ablatiboa izan ezik nahiz eta baliabide komunekin egindakoa izan, eta mendebaldeko *-gaz* ere bizidunetako *-ga-* (cf. *-gandik*) eta instrumentaleko *-z* morfemekin dago osatua izan (Mitxelena 1981: 301). Gainera, testuetan atzera egin ahala, alde horiek txikitzen doazela nabarmentzen du (1981: 300). Hots, Uhlenbecken (1947) hipotesia baliogabetu zuen. Horregatik, euskal dialektoak ez zirela betikoak, jatorri komun bat zutela eta arbaso komun hori denboran oso atzean egon ezin zuela aldarrikatu zuen. *Éuscaro* esan zion azken batasun egoerari, guretako *Euskara Batu Zaharra* (EBZ). Ordea, ez zuen EBZ linguistikoki mamitu, hizkuntz ezaugarriez hornitu, berak berreraikitako Aitzin-euskara Modernoarekin AE(M)rekin oposizioan, eta ez zuen dialektoak nola bereizi ziren azaltzeko proposamenik egin.

Hautsi aurreko azken egoera batua litzatekeen EBZ aldarrikatzeaz gain, V-VI. mendeetako izan zitekeela proposatu zuen (Mitxelena 1981: 312), kanpoko historian garai hartan Erromatar inperioaren gainbehera ondoko egoera azaltzeko paradigma zen Barbero & Vigilen (1965) lanean oinarriturik. Aldiz, paradigma horrek kritika handiak jaso zituen 80-90eko hamarkadetan eta jada ez da historialarien artean indarrean —Barbero & Vigilen ereduak jaso zituen kritiken laburpen baterako ikusi Pozoren (2016: 62tik aurrera) tesia—. Beraz, ez dugu EBZ Mitxelenak proposaturiko V-VI. mendeetan kokatzeko hizkuntzaz kanpoko arrazoirik. Bestalde, hizkuntz ezaugarririk ere ez dugu garai horretan, edo lehenagoko edo ondorengoko batean kokatzeko ere.

1981eko lana mugarri edo euskal dialektologia diakronikoaren abiaburu bezala jarri ohi bada ere, Zuloagak (2020a: 117-118) argi eta garbi esaten duen moduan, aurretik ere lan horren mamia izan zirenen zertzeladak utziak zituen han-hemen. Adibidez, bizkaiera zaharra gipuzkeratik gertuago zegoela eta testuetan ikus zitekeela denbora joan ahala urruntzen joan zela

adierazi zuen jada 1964ko *Sobre el pasado de la lengua vascan* (Mitxelena 1964; cf. Lakarra 1986).

Are gehiago, 1958an Landucciren hiztegia argitaratu zuen Agudekin batera. Hiztegia argitaratzeaz harago, Mitxelenak (1958b) argitalpenari egin zion hitzaurrearekin ekarpen ikaragarria egin zion euskal dialektologia(-diakronikoa)ri, eta eman dituen emaitzak ikusirik alorreko lan garrantzitsuenen artean sartu behar da. Lekukotasunaren azterketa egitea ez ezik, jada desagerturik zegoen dialekto bat zela aldarrikatu, eta Araban kokatu behar zela proposatu zuen. Geroztik etorri diren aurkikuntzek eta lanek Mitxelenaren azterketa berretsi besterik ez dute egin.²¹

2.3. Mitxelenaren ondorengo garaia

Mitxelenaren ondorengo garaia, oro har XXI. mendean sartu arte, garai gazi-gozotako har daiteke. Dokumentazio lan ikaragarria egin zen eta ordura arte ezezagunak ziren hizkerak deskribatu ziren. Lan horien zati handi baten emaitza da *Euskal Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA). Aldiz, dialektologia diakronikoa lantzen duten lanak urria(go)ak dira, badauden arren; adibidez, Lakarraren (1986) "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", non Bizkaieraren bilakabidea aztertu eta ikusten den ez dela beste dialektoetara hurbildu eta, Arabako lekukotasunak kontuan izanik, arabera, bizkaiera eta gipuzkera iraganen lotuago zeudela.

Dirudienez, Lazarragaren eskuizkribua aurkitu izanak halako susperraldia eragin zuen, 2004. urtetik aurrera, batez ere fokua Araban jartzen zuten ikerketatan (Zuloaga 2020a: 121), eta, ordutik hona dialektologia diakronikoaren esparruan koka daitezkeen hainbat ikerketa argitaratu dira. Esaterako, Urgellek (2006) aditz-izenen histori(aurre)a ikertu zuen, alderdi historikoan eta geografikoan arreta handia jarritz; Urgell ere, Lakarrarekin batera (Urgell & Lakarra 2008) geroko Lakarraren (2011 [2014]) lanaren oinarriak finkatzen hasi zen. Mounolek ere (2007, 2011, 2018) euskal aditzen historia ikertu izan du, ardatz geografikoa ahaztu gabe. Lerro berean, Manterolak (2006, 2009, 2015) euskal artikulu(ar)en sorrera eta garapena ikertu izan du; tesi-lanean, irizpide geografikoa erabiliz besteak beste, ergatibo pluraleko *-ak* zaharra zela, eta *-ek*, aldiz, berrikuntza ondorioztatu zuen. Halaber, Caminoren (2008a, 2008b, 2009) ekarpenak ere ahaztezinak dira. Lan horiek barra-barra erabili ditut lan honetako oinarri metodologikoak finkatzeko eta (euskal) dialektologia (diakronikoa) egin nahi duen edozeinek jo beharko luke lan horietara. Bukatzeko, Zuazok (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014) ere ekarpen handia egin dio euskal dialektologiari, nahiz eta alderdi


²¹ Dena den, Mitxelenak Araban kokatu hizkera hori dialekto beregaina zen eztabaidatu izan da. Esaterako, Zuazok (1998b) Arabako mendebaldeko euskara mendebaldeko euskaran (hots, bizkaieran) sartu zuen, eta Arabako ekialdeko hizkera mendebaldeko eta Nafarroako euskararen arteko euskaratako jo zuen. Gerora, aldiz, dialekto beregaintzat jo du berriz ere (Zuazo 2010a). Ez dakit zehazki zer helburu edo funts duen dialekto beregaina den edo ez eztabaidatzeak, ezta zeren ezagutzan laguntzen duen ere.

kronologikoa (ia) landu ez —cf. lan honetan §3.3.1.1—; nolahi ere den, Mitxelenaren EBZren inguruko ideia batzuk dibulгатzen lan handia egin du, Zuazoren beraren beste ideia batzuekin batera.

2.3.1 2008-2011, beste mugarri bat?


Gauzak horrela, 2011. [2014] urtean Irantzu Epeldek *Euskal dialektologia: lehen eta oraina* liburua argitaratu zuen. Liburu horretan, Caminok eta Lakarrak parte hartu zuten eta lan garrantzitsuak argitaratu zituzten. Caminok (2011 [2014]) ekialdeko euskararen zenbait ezaugarriren historia aztertu zuen. Lakarrak (2011 [2014]), aldiz, gogoeta-lan sakon bat dakar.

Batetik, Mitxelenaren (1981) lanaren gabeziak erakusten ditu: Mitxelenaren lana mugarria izan arren, ez du EBZ hizkuntz ezaugarriak hornitzen, neurri batean arreta kanpo-historian paratzen duelako. Aitzin-hizkuntza ezaugarriak jostea, ordea, aurrebaldintza da geroko berrikuntzak ulertzeko (Campbell 2013) eta, horregatik, AEMtik EBZrako zenbait berrikuntza proposatzen ditu Lakarrak. Bestetik, Mitxelenaren lanak —aurrekoen lanek ere ez zuten bezala— ez duela hierarkiarik nabarmentzen du. Hau da, Mitxelenaren proposamenean ez da zehazten dialektoak nola joan diren sortzen eta eman lezake zuzenean EBZetik etor litezkeela. Ideia hori arbola honetan laburbiltzen da:



Irudia 4: Euskararen zuhaitza Mitxelenaren (1981) lanean. Iturria: Lakarra 2011 [2014]: 170).


Mitxelenaren ideia hori hizkuntza ikertuenen tradizioekin alderaturik, ordea, Lakarrak ikusten du Mitxelenarena *ezinezkoa* dela. Izan ere, tradizio horietan, aitzin-hizkuntzak bereizketa bitarren bidez dialektalizatzen dira, ezaugarri jakinetan oinarriturik, eta hainbat tarteko hizkuntz egoera daude hizkuntza edo dialekto historikoetara iritsi aurretik. Bestela esanda, dialektoak ez dira ez betikoak, ezta guztiak garai berekoak ere, baizik eta bilakabide hierarkizatu bat dago. Hona hemen iranierarako proposatutako zuhaitza:



5. irudia: Iranieraren zuhaitza. Iturria: Blažec (2007: 86, *apud* Lakarra 2011 [2014]).

Gorago esan bezala, bereizketa bitarra da oro har eta, beraz, hierarkikoa. Lakarraren (2011 [2014]) arabera, euskarak ere horrelako eredueta egin beharko luke, besteak beste dialekto historikoen historia eta egungo egitura azaltzeko, eta, horregatik, beste tradizioetan dialektalizazioa aztertzeko irizpide eta metodoen inguruan hausnarketa egiten du: berrikuntza zahar bereizleen pisua, berrikuntza positiboen eta negatiboen arteko aldeak, arkaismoek duten lekua, *hautuak* Meid-en (1975 —Lakarrak Petiten (2007) bidez hartzen du) norma, arkaismo eta berrikuntza bereizketarekin ordezkatzeko beharra, eta abar.

Bukatzeko, balizko zenbait zuhaitz jasotzen ditu, EBZtik dialekto historikoetarako zenbait aukera logiko islatzeko, eta lehenengo haustura zein izan zitekeen eztabaidatzen du: Caminoren (2011 [2014]) lanaren laguntzaz, lehen zatiketa ekialdean gertatu zela argudiatzen du. Honetara beherago itzuliko naiz —ikus beherago §3.3.2—. Euskararen dialektalizazioak honelako itxura izan beharko luke, zuhaitzari egin dakizkioken aldaketak alde batera:



6. irudia: Euskararen dialektalizazioa. Iturria: Lakarra 2011 [2014]: 213).

2.3.2. 2011 [2014] - 2020

Caminoren (2011 [2014]) eta Lakarraren (2011 [2014]) lan horiek garai berri baten hasiera definitzen dute euskal dialektologia diakronikoaren ibilbidean. Izan ere, Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzatik zetorren gorakada indartu besterik ez da egin eta, ondorioz, euskal dialektologia diakronikoa ikerlerro garrantzitsu bilakatu da. Caminok (2013) Lapurteraren eta Nafarroa Garaiairen arteko harremani lan bat eskaini zien. Ulibarrik (2015) bere tesian *Dotrinazko Sermoitegia* testuaren edizio kritikoa egiteaz gain, hizkera garaian eta geografian kokatu zuen, “historia eta geografia modu bateratuan *dialektologia historikoaren* ikuspuntutik begiratu” (Ulibarri 2015: xv). Reguero-Ugartek ere landu du dialektologia diakronikoa. Erdi Aroko egoera dialektala aztertu du batetik (Reguero-Ugarte 2012a, 2012b, 2013), eta, berrikiago, Nafarroa Garaiko azterketa diakronikora hurbildu da (Reguero-Ugarte 2015) eta bere tesian Nafarroa Garaiko garai zaharreko lekukotasunen edizioak eta azterketa dialektologikoa burutu du (Reguero-Ugarte 2019). Atutxak (2011, 2013) txistukarien neutralizazioaren bilakabide historikoa aztertu du. Zuloagak (2013, 2017, 2018) oro har mendebaldeko euskararen historia aztertu, eta, 2020ko urte hasieran, MEZren sorreraren inguruko tesi-lana defendatu zuen (Zuloaga 2020a). Ariztimuñok (2016) Aita Gureak aztertu ditu, euskal dialekto zaharren inguruan zer berri eman dezaketen aztertzeko, nahiz eta berreraiketara eta gai diakronikoagoetara lerratuago ibili izan den (adibidez, Ariztimuño 2011, 2013, 2018). Aldaik (2014), bere aldetik, Mendebaldeko Euskara Zaharrerako proposa zitezkeen zenbait ezaugarri aztertu zituen —cf. lan honetan §3.3.1.3—. Padilla-Moyanok (2017) zubereraren historiari heldu dio. Abaituak (2018) ere euskararen dialektalizazioari heldu nahi izan dio —erabilitako metodoaren inguruko kritika baterako, hala ere, ikusi lan honetan §3.3.1.4—.

Aldiz, ematen du 2020. urtean euskal dialektologia diakronikoak gailurra jo duela, ekarri duen uzta handia da eta. Urte-hasieran, Zuloagak (2020a), esan bezala, Mendebaldeko Euskara Zaharraren inguruko tesi-lan bikaina defendatu zuen. Hainbat ezaugarriren bilakabidea xehe-xehe aztertu du eta egin duen lanak dialektologia diakronikoa egin nahi duen edozeinendako eredu edo erreferentzia ezin utzizkoa izan beharko luke. Ondoren, Gonzalezen, Erañaren eta Leturiagaren master-amaierako lanak etorri dira. Gonzalezek (2020) Orozkoko euskararen deskribapena egin, eta mendebaldeko hizkeren artean duen lekua definitu du. Erañak (2020a) Arabako euskararen dialektalizazioa aztertu du, aditz-morfologiatik erreparaturik. Lekukotasun asko aztertu, eta oso interpretazio jakingarriak egin ditu zenbait berrikuntzaren bilakabideaz, hala nola absolutibo komunztadurarik ezaren bilakabideaz. Bide beretik, Ondartzak (2020) Arabako euskararen egoera dialektala aztertu du bere gradu-amaierako lanean. Leturiagak (2020a) ere, Erañaren moduan, aditz-morfologiari erreparatu dio, baina Gipuzkoako erdialdeko testuetan —hirugarren lan bat ere badu, agertzeaz, Gipuzkoako osagarri pluralen adizki tripersonalen erroen inguruan (Leturiaga, argitarabidean).

Bestalde, Zuazori eskainitako gorazarre-liburuan (Camino *et al.* 2020) pisu handia du du euskal dialektologia diakronikoak. Ariztimuñok (2020) Gipuzkoako zenbait ezaugarriren isoglosak aztertu ditu; Erañak (2020b) *jagin* aditz laguntzailearen nondik-norakoak aztertu ditu, MALean (Eraña 2020a) hasitako haritik segika. Leturiagak (2020b) ere MALean (Leturiaga 2020a) landutako Gipuzkoako pluralgileen azterketarekin jarraitu du. Reguero-Ugartek (2020) goi-nafarrera definitzeko erabili izan diren ezaugarri zenbait hartu ditu, eta diakronikoki izan duten bilakabidea aztertu du. Urgellek (2020) Arabako euskararen iraganaz gogoeta egin du eta MEZ definitzeko esanguratsuak izan daitezkeen ezaugarrien inguruan hainbat ohar egin ditu, hala nola **edunen* 3. pertsonako forma monoptongazio gabeak (*dau*, eta hortik eratorriak) arkaismo bateratzaile bezala izan dezakeen garrantziaren inguruan. Uribe-Etxebarriak (2020) Debagoieneko iragana ikertzen jarraitu du. Bukatzeko, Zuloagak (2020b) Bizkai sartaldeko lexikoa aztertu du.

Azkenik, urtea bukatzeko, Lazarragaren eskuizkribuaren edizio eta azterketa argitara atera da, bi liburukitan. Lehenengoa (Bilbao *et al.* 2020a) azterketari dagokio: Lazarragaren inguruko oharra, edizioaren irizpideak eta eskuizkribuko euskararen azterketa bera (grafia, fonologia, morfologia. Bigarrena (Bilbao *et al.* 2020b) edizioa bera da.

3. Euskara Batu Zaharra eta haren haustura

Atal honetan bi alderdi landuko ditut: batetik, azalduko dut zergatik behar dugun EBZ bezalako hizkuntz egoera bat, AEMtik linguistikoki bereizia, eta justifikatuko dut zergatik ez den oreka puntuatua euskararen iraganeko garaietarako aplikagarria; bestetik, EBZren

hausturaren inguruan esandakoak berrikusi eta hipotesi baten —lehen haustura mendebaldean— eta bestearen —lehen haustura ekialdean— alde eta kontra zer esan daitekeen erakutsiko dut.

3.1. Euskara Batu Zaharraren beharra

Ez dut EBZ, dialektoak bereizi aurreko azken egoera ba(tera)tu bezala, linguistikoki definituko. Horrek honelako lan batek dituen muga guztiak gaindituko lituzke, tamainaz eta eskatuko lituzkeen ikerketa-orduen aldetik. Horren ordez, Mitxelenaren (1981) bidetik, EBZ behar dugula argudiatuko dut, AEMtik bereiz edo, behintzat, AEMtik hainbat aldaketa jasandako hizkuntz egoera bezala.

Esan bezala, Mitxelenarendako (1981) euskal dialekto ezagunen iturri komuna, EBZ, ez dago gugandik aurretik —eta ondoren— hainbatek uste izan duten bezain urruti. Euskal hizkeren arteko batasun handiaren aldeko ebidentzia hainbat alderditan aurki daiteke, Mitxelenak nabarmendu bezala. Fonologia, oinarrian, berdina da eta aldeak txikiak eta modernoak dira; hain modernoak dira ezen ia-ia datazio absolutuak ere egin ditzakegun. Hori da adibidez (hego-)mendebaldeko hasperenik ezaren eta ekialdeko /y/ren kasua —ikusi beherago §3.3.3.2 eta §3.3.2.1 hurrenez hurren—. ²²

Antzekoa esan liteke morfologiaz. Izen-morfologia oso antzekoa da eremu osoan eta dibergentziak osagai komunekin egindakoak dira. Adibidez, mendebaldeko ablat. *-rean* (gen. *-(r)e* + ines. *-an*) eta soz. *-gaz* (bizidunetako eta (ergatibo) pluraleko *-ga-* + instr. *-z*). Aditz-morfologian, morfema gehienak partekatuak dira; esaterako, ergatibo pluraleko *-de > -de & -te & -e*. Aditz laguntzaileak ere partekatuak dira (*izan*, **edun*, **edin*), eta orokorrak ez direnak ere beste inguru batzuetan dokumentatzen dira (hala nola **ezan* eta **nin* mendebaldean Mounole eta Lakarra 2018: 431, 433) edo, berriz, osagai komunekin osatutakoak dira. Adibidez, **eradunen* **(e)dun* eta *-ra-* (cf. *erabili*, *eraman* & *eroan* < **eraoan*; FHV: 177) orokorrak identifika daitezke (Mounole 2011: 348-349). Horrez gain, eratorpena eta konposizioa ere komunak dira, baita azken horri loturiko bilakabideak ere; esaterako *errege* + *ihera* > *erret ihera* bezalako prozesuak. Gainera, horrek *post quem* data bat eman diezaguke, baliabide horiek ez ditugulako akitanieraz aurkitzen, eta bai, X. mendearen inguruko datuetan.

Bukatzeko, latineko —eta erromantze goiztiarretako— maileguek ere batasuna erakusten dute, euskarara egokitzeko moduan eta ondorengo euskararen barruko bilakabideetan. Adibidez, latineko hitz-hasierako herskariak ahostundu dira (T- > D-): lat. *pace(m)* > eus. *bake*;

²² Deigarria egiten zait Mitxelenak (1981) iragan komun hurbilekoaren aldeko argudioen artan hasperena sartu ez izana, are gehiago fonetika-fonologiako desberdintasun batzuk (hala nola diptongoen bilakabideak) hasperenaren galeraren ondorio izanik.

lat./errom. *turris* > eus. *dorre*; *muta cum liquida* taldeak desegin dira (lat. *cruce(m)* > eus. *gurutze*; lat./errom. *planus* > eus. *lau*);²³ latineko igurzkaria euskarazko lepokariarekin egokitu da (lat. *corpus* > eus. *gorputz*; lat. *causa(m)* > eus. *gauza*); latineko albokaria eta albokari geminatua euskarazko *taparekin* eta albokariarekin egokitu dira hurrenez hurren (lat. *gula* > eus. *gura*; lat. *solu(m)* > eus. *zoru*; lat. *bal.laena* > eus. *balea*; lat. *castellu(m)* > eus. *gatzelu*); eta bokalarteko sudurkariak hasperendu dira —eta ondoren batzuk kokapenez mugitu edo desagertu— eta sudurkari hortz-hobikari geminatua sudurkari hortz-hobikariarekin egokitu da: lat. *arena(m)* > eus. **areha* > *harea*; lat. *anate* > eus. *ahate*; lat. *annona* > eus. *an(h)oa*.

Batasun handi horrez gain, baina, dibergentziak ere badaude eta hor dago koska. Mitxelenaren (1981: 295) arabera, txikiak ziren dibergentzia horiek:

[E]s posible que esas diferencias le parezcan muy grandes al hablante ordinario no iniciado a fondo más que en el euskera de su círculo local o comarcal, pero, para un comparatista, y este es el punto de vista que hay que adoptar aquí, las divergencias, como ya he escrito en algún otro lugar, son deses- peradamente pequeñas.

Horren txikiak ziren, non errenteriarrarendako dialektoen azken egoera bateratua gugandik oso gertu egon behar zuen, eta v-vi. mendeen inguruan kokatu zuen —kanpoko historiako argudioetan oinarriturik—, erromatarren gainbeheraren ondoren alegia. Nik neuk ere Mitxelenaren ideiarekin bat egiten dut dialektalizazioaren *berritasunean*, nahiz eta, beharbada, garaiarekin bat egin ez, ezta hark planteatzen duen Erroma osteko bateratzen aldiarekin ere —cf. lan honetan §3.4—.

3.2. Euskara Batu Zaharra eta oreka puntuatua

Hala ere, bigarren aukera bat ere planteatu liteke: oreka puntuatua —Wikipediako egileek *Oreka taiduna* bezala izendatu dute— edo, ingelesez, *punctuated equilibrium*. Izan ere, familia ikertuenen kasuan hizkuntzak milaka kilometrotako eremuan sakabanaturik daude eta, horien aldean, gurea —ezagutzen duguna— eremutxo txikia baino ez da, eta ez du ematen eremu hori askoz handiagoa izan zitekeela pentsatzeko arrazoirik aurkituko dugunik.

Nahiz eta ez zuen Dixonek berak biologiari hizkuntzalaritzara ekarri (Bowern 2006), hizkuntzalaritzaren barruan oreka puntuatuaren adibiderik ospetsuena hark (1997) Australiako hizkuntzen egoera azaltzeko egindakoa da.

²³ Oso jakingarria da (#)Cl- taldeen inguruan Blevins & Egurtzegiren (2017) lana. Egile horien arabera, eta gainerako *muta cum liquida* taldeek euskaraz eta tipologikoki duten bilakabidea ikusirik, *herskari* + *albokari* taldeak ez ziren euskaraz desegin, baizik eta dagoeneko asimilazio bidez deseginik zituen erromantze (iberiar) batetik hartu zituen euskarak (cf. lat. *flamma* > gazt. *llama* : cat. *flama*).

Dixonen ereduan, hizkuntzen barne eta kanpo historia *oreka* garai luzeak eta *puntuatze* garai laburrak egongo lirateke. Oreka-aldietan, hizkuntzak gutxi(ka) aldatuko lirateke eta, gainera, aldaketa hori, neurri handi batean, hizkuntzen arteko mailegatzearen ondorio izango litzateke. Horrela, ezaugarriak hedatu eta hizkuntz eremuak sortuko eta familia *genetiko*en arteko mugak lausotuko lirateke. Azkenean, konbergentziaz, prototipo komun moduko bat — *koinéa*?— sortuko litzateke. Aldiz, puntuatze-aldietan, kanpo faktoreen eraginez (teknologia berriak garatzea, inbasioak, migrazio handiak, etab.), hizkuntzak asko eta azkar aldatuko lirateke eta zuhaitz filogenetikoak irudikatzen dituen moduko etenak sortuko lirateke. Ez ditut Dixonen proposamenaren arazo guztiak aletuko —ikus, laburpen baterako, Bown 2006), baina beharrezkotzat dut azaltzea zergatik ez den, ene ustetan, oreka puntuatuaren eredua onargarria EBZren kasuan aplikatzeko.

Lehenik eta behin, Dixonen proposamenaren aurkako kritikarik handiena Australiako hizkuntzalarien baitatik dator. Izan ere, Dixonek (1997) Australiako hizkuntzetarako proposatu zuen oreka puntuatua. Aldiz, inguru haietako hizkuntzen historia ikertu dutenek erakutsi dute Dixon hainbat aurreiritzitatik abiatu zela. Adibidez, Dixonek onartzen zuen Australiako hizkuntzetan ezin zirela hizkuntzalaritza historiko estandarreko metodo eta teoriak aplikatu, baina Bownek & Kochek (2004) argitaraturiko liburuan ikusten den moduan Australiako hizkuntzen azterketa historikoa abian da eta emaitzak lortzen ari da, beste tradizioetan erabilitako metodo eta irizpide berak erabilirik. Aitzin-hizkuntzak berreraikitzen, azpitaldeak, mugimenduak, eta abar aurkitzen ari dira, eta horrek guztiak agerian uzten du Dixonen iritzia hizkuntzalaritza historikoa egiten saiatu gabe ere eraikiriko usteak baino ez zirela (Bown & Koch 2004; Bown 2010; McConvell & Bown 2011).

Bestetik, Australiako hizkuntzekin izan ditzakeen arazoez harago, hizkuntzen bilakabideaz dakigunak ere horrelako egoera bat, zeinetan hizkuntzak gutxi eta batez ere maileguen bidez aldatuko liratekeen, anomalotzat jo beharko genukeela iradokitzen du. Hurbileko tradizio bat hartuz, zenbat aldatu dira hizkuntza erromantzeak azken 2000 urteetan? Latina zena guztiz urtu da eta hamaika aldaera sortu, garatu, elkartu, eta abar egin dira. Argudioa Dixonen hipotesira itzulirik, ez da oreka-aldirik egon (hego-)mendebaldeko European azken 2000 urteetan? Niri bat otu zait: azken mendeetan hizkuntzak gutxi aldatu dira eta aldaera asko desagertuz joan dira, haien lekua Estatuetakoz hizkuntzek hartu dutelako. Gainera, hezkuntzaren *unibertsalizazio*ak pisu handia izan du prozesu horretan.

Eredu hori guztiz baztergarria da munduko beste bazter batzuetan duela milaka urte oreka-aldiak gertatu zirela pentsatzeko, anakronismo handiegietan sartu gabe. Are gehiago, latina berdin mantendu zen *latin* etiketa daraman garai osoan? Latinistek latin arkaikoa, klasikoa eta postklasikoa bereizten dituzte gutxien-gutxienez. Beste horrenbeste egiten da

(Ingalaterrako) ingelesaren historiarekin. Labur esanda, ongi ezagutzen ditugun historiek oreka-aldi horien benetakotasuna zalantzan jartzeko nahikoa susmo sorrarazten dituzte. Besterik da konbergentzia-garaiak egotea eta garai horietan *koiné* modukoak sortzea —edo aldaera prestigiodunek prestigiorik gabeak ezabatzea—, baina hizkuntzak etengabe aldatzen dira, eta ez du ematen baliabide nagusia mailegatzea denik.

Europatik kanpo ere, Campbellek (2006) Dixonen proposamenari aurre egiteko zenbait kontradibide jasotzen ditu —eta biologian ere kontzeptu zalantzagarrria dela esaten du (Campbell 2006: 14)—. Batetik, oreka-aldietan aldatzen eta familietan bereizten egon diren hizkuntzen adibideak ematen ditu; adibidez, zenbait hizkuntza maiak edo berriki bereizi diren zenbait zapotekoak. Bestetik, elkarren aldamenean eta oreka-aldietan luzez egon diren hizkuntzen adibideak ematen ditu, zeintzuen artean ez den ia mailegatzerik egon; besteak beste, Ipar Amerikako hego-mendebaldeko hizkuntza athabaskarren (navajoa eta apatxea) eta athabaskarrak ez diren aldameneko hopi, zuni, keresa eta tano taldeen artean ez da ia mailegatzerik egon. Puntuatze-aldietan gertatuko difusioen adibideak ere jasotzen ditu; esaterako, eskandinaviarrek eta normando frantsesek britainiar uharteak konkistatu zituzten eta orduko ingelesak hitzak, hotsak eta izenordainak mailegatu zituen, eta konplexutasun morfosintaktikoa gainerakoekin berdindu zen.

Garatze-bidean ari diren aldaketen inguruan dugun ezagutzarekin ere, ezinezkoa dirudi gutxi edo ezer gutxi aldatu diren hizkuntzetan pentsatzea eta, are gehiago, aldatzeko modu ia bakarra mailegutza izatea. Esaterako, Harrington *et al.*ek (2019) Antartikara zihoan espedizio bateko partaideekin esperimentu bat egin zuten; taldea nazioartekoa zen eta hitzun guztiek ez zuten lehen hizkuntza bera. Joan aurretik hainbat ahoskeraren zenbait alderdi neurtu zituzten. Itzultzean, berriz ere neurtu zituzten eta aurkitu zuten ahoskerak berdindu ez ezik, norabide berean aldatzen hasi zirela. Halaber, Labovek (2020) erakutsi du nola joan den Filadelfiako ingelesean /eiC/ diptongoa aldatzen, oharkabean eta era erabat erregularrean. Hau da, prozesu horietan ez dago mailegutzarik gizarte-taldeen artean Labovenean eta parte-hartzaileen artean Harrington *et al.*enean, eta ematen du hizkuntzak etengabe aldatzen (ari) direla, gu ohartu edo ez.

Aldatzeko modu nagusia mailegatzea izateak ere arazoak ditu. Izan ere, mailegatzean harremanak ez dira *horizontalak* izaten, hau da, mailegatailea eta mailegatua egon ohi dira eta aldaketak ez du eragin bera batean eta bestean (Bower 2006). Adibide ezagun bat hartzeko, noizkoak dira ingelesak frantsesari hartutako maileguak eta noizkoak frantsesak ingelesari hartutakoak? Ingelesak frantsesetik hartzen zituenean, zer mailegu utzi zituen ingelesak frantsesean? Alderantziz, zer mailegu uzten ditu egun frantsesak ingelesean? Gure kasuan, latina (eta erromantzeak) mailegataileak dira, eta euskara, mailegatua eta

nekez aurki daitezke aurkako norabideko adibideak. Horren urruti joan eta euskaratik atera gabe ere, nongo berrikuntzak igaro dira nora? Urdiainekoak Arabako lautadara eta hego goi- nafarrerara edo Arabako lautadakoak eta hego goi-nafarrerakoak Urdiainera (cf. Urrestarazu-Porta prestatzen-1)? —cf. gorago (§1.3.2) difusio-eredu hierarkikoaz esandakoak—.

Bukatzeko, euskararen barruan ere oreka puntuatuaren aurkako argudioak aurki ditzakegula uste dut. Gure herria txikia da: Euskal Herri historikoak 250 km ere ez ditu mendebaldeko muturretik ekialdekora, garaietan hedatuago egon arren: Bilbotik mendebaldera eta Pirinioan ekialdera, nahiz eta, beharbada, ez batzuetan uste izan den bezain hedatu (Salaberri-Zaratiegi 2011). Ez dirudi, ordea, hizkuntza indoeuroparrak bezain hedaturik *inoiz* egon denik. Txikitasun (erlatibo) horrek pentsaraz lezake errazago egin zitzakeela berrikuntza komunak, aldi berean berrikuntza dialektal txikiak sortzen edo sorturik zeudenei eusten zien bitartean. Nire ustez, inoiz horrelako egoera bat izan bazen, aurreko aldaera dialektalak ezabatu zituen. Batetik, Mitxelenak (1981) berak azpimarratu bat-etortze kopuru handia dago. Bestetik, eta garrantzitsuagoa irizten diot, berrikuntzak datatuz joan ahala, nahiko modernoak direla ikusten da. Hori da, adibidez, singularreko artikulua eta hasperenaren galerarekin loturiko aldaketa guztien kasua. Esaterako, *etxea* > *etxia* gertatzeko, lehenik artikulua gramatikalizatu behar da (**etxe + ha(r) > *etxeha*) eta hori VIII. mende ondokoa da (Zuloaga 2020a: 478). Antzera, ekialdeko muturreko /y/, besteak beste, XIV. mende ingurukoa ematen du (Egurtzegi 2017; ikusi lan honetan §3.3.2.1). Horrez gain, ez du ematen mailegatzea oso faktore esanguratsua izan denik gurean, euskal aldaeren artean; erromantzeetatik andana sartu baita. Adibidez, erdialdeko zenbat mailegu aurki ditzakegu ekialdeko muturrean, Mitxelenak (FHV: 375) aipatu *Z ütziik* (cf. ek. *eitzi* zaharra) —eta beharbada *Z galdütik*—²⁴ harago?


Horregatik guztiarengatik, kontrakoaren aldeko ebidentzia agertzen ez den bitartean, euskararen historian dialektalizazio aurreko egoera ba(tera)tu bat behar dugu ezagutzen ditugun dialektoen abiapuntutako, erromatarren etorreraren ondorengoa, eta, egon litezkeen konbergentzia aldiak alde batera, dialektalizazioaren teoria adarkatzeko bitarreko zuhaitz-irudi batera eramango gaituen filiazio-hipotesiak egiaztatuz eraiki (behar)ko da.

3.3. Euskara Batu Zaharraren haustura: bi hipotesi


Atal honetan, EBZren hausturaren inguruan gogoeta egingo dut. Izan ere, Lakarraren (2011 [2014]) lanetik esplizituki dakigu —beste familia zabaletako ikerketan prozedura estandarra gurera ekarririk— euskal dialekto historiko guztiak ezin etor daitezkeela Mitxelenaren (1981)

²⁴ “ronc. *galtu*, sul. *galdü* ‘perdido’, con sonorización anómala” dakar Mitxelenak (FHV: 373 [jetzanak nireak dira I.U.P.]). Datu “bitxi” hori mailegu edo egokitze modernotako har daiteke, edo oraindik ahoskabeek ahostunak guztiz ordezkatu ez zituztela pentsa daiteke (cf. lan honetan §3.3.2.2).

EBZren hausturatik, baizik eta, beste tradizioen moduan, zatiketa hierarkiko eta bitar baten erduan azaldu beharko genukeela euskararen dialektalizazioa. Logikoa den moduan, lehen haustura ezin da erdialdean gertatu; hau da, ez da posible saihetsek elkarren artean komunitate bateratu bat osatzea erdialdekoak kanpoan utzirik. Horrek bi aukera —bi hipotesi— uzten dizkigu EBZren banaketarako: a) lehen haustura mendebaldean gertatu zen, edo b) lehen haustura ekialdean gertatu zen. Lakarra (2011 [2014]: 205, 133. oinoharra) egin zituen arbolen arteko alde nagusia ere hori da: “Zuhaitzen arteko diferentzia nagusia honetan datza: Erdialdeko Euskara [hau da, nafarreraren eta lapurteraren jatorri komuna, eta ez Zuazoren erdialdeko euskara, hots, gipuzkera] nondik ateratzen den, Mendebaldekotik ala Ekialdekotik; hots, hurrenez hurren EkEZ ala MEZ bereizi den lehenago EBZtik”. Hipotesiak zuhaitzean irudikaturik, honela izango liriteke bata eta bestea lehen hausturari dagokionez:



7. irudia: EBZren haustura mendebaldean. Iturria: Lakarra (2011 [2014]: 203).



8. irudia: EBZren haustura ekialdean. Iturria: Lakarra (2011 [2014]: 203).

Dagoeneko, hipotesi baten zein bestearen aldekoak ditugu, nahiz eta ez den, inolaz ere, bataren eta bestearen alde modu eta maila berean egin. Jarraian, batetik, lehen haustura mendebalean gertatu zela dioten iritziak berrikusiko ditut. Ondoren, lehen haustura ekialdean gertatu zela defendatzen duen hipotesiari helduko diot, hots, Lakarrak (2011 [2014]) eta neurri batean Caminok (2011 [2014]) defendatu dutenari. Bukatzeko, lehen haustura mendebaldean gertatu zela dioen hipotesiaren alde §1en finkaturiko irizpide teoriko-metodologikoen arabera zer esan daitekeen erakusten saiatuko naiz.

3.3.1. EBZren haustura mendebaldean

Esan bezala, EBZ mendebaldean hautsi izana da dialektalizazioaren hasierarako egin litezkeen bi hipotesietako bat eta, kuantitatiboki, aldeze gehien izan dituen hipotesietako har liteke, baldin eta aldezeen artean batasunik egongo balitz mendebaldearen definizioan eta metodoetan. Alde horretatik, eta jarraian erakutsiko dudan moduan, hipotesi horren alde egin den ere zalantzatan jar daiteke. Aldeze nagusiak Zuazo (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014), Reguero-Ugarte (2012a, 2012b, 2013), Aldai (2014) eta Abaitua (2018) izan dira.

3.3.1.1. Zuazo (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014)

Zuazoren (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014) arabera, haustura mendebaldean gertatu zen: “Es posible que el alejamiento de Álava y Vizcaya del Reino de Navarra, y su acercamiento al Reino astur, en el siglo VIII, y, más tarde, al Reino de Castilla, tenga algo que ver con este hecho” (Zuazo 2010a: 192). Zuazoren mendebalak Bizkaia, Gipuzkoako Deba ibarra eta Araba hartzen ditu. Zer eremu hartzen duen alde batera, ordea, Zuazoren saioek ez dute hori erabakitzeke balio. Zuazorenak sailkapen fenetikoa ematen du neurri handi batean, arreta bat-etortzeen kopuruan jartzen duelako. Horrelako sailkapenei egin dakizkiekeen kritikak alde batera —ikus §1.2n esandakoa—, Zuazorenak *fenetikotasun* bitxia dauka. Izan ere, modu batera zein bestera esanda, “euskalkietan barreiatuta dauden ezaugarriak oinarrizkoenak eta esanguratsuenak erakustea du muga” (Zuazo 2008: 16) haren lanak eta, horretarako, erabiltzen dituen ezaugarriak iragazi batzuetatik pasatzen ditu.

Zuazoren lanetan, metodologiaren aipamenak bakanak dira eta esango nuke luzeen 1998ko lanean landu zituela.²⁵ Lan guztietan esplizitu egiten ez badu ere, berrikuntzak baino ez ditu erabiltzen (Zuazo 1998a: 192) eta, beraz, arkaismoak alde batera uzten ditu; esaterako, Iparraldeko hasperena —nahiz eta Iparraldean gordetako hasperena (hasperen bat hitzeko, lehen edo bigarren silaban), beharbada, ez den arkaismoa, baizik eta ekialde zabal bateko berrikuntza; cf. lan honetan §3.3.3.2—. Ez dut hemen arkaismoek izan dezaketen garrantzia errepikatuko eta argudiatuko zergatik ez nagoen Zuazoren erabakiarekin (guztiz) ados —

²⁵ Darabilen metodologia gehiago edo gutxiago azaldu, ez dut haren justifikaziorik aurkitu, hau da, zergatik den darabilen metodologia dituen helburuetarako aproposa.

ikusi §1.2.3 eta §1.3.2—, baina haren erabakiak duen arazo bat nabarmenduko dut. Arkaismoen sailean sartzen ditu Erronkari-Zaraitzuetako *gau & kau, gor & kor, gura & kura*. Gorago esan dugun moduan —ikusi §1.2.5—, eztabaidatu izan da erakusle horiek aspaldiko arkaismoak izan zitezkeela, baina, itxuraz, berrikuntza oso modernoak besterik ez dira. Beraz, Zuazoren sailkapene(ta)tik berak nahi lituzkeen ezaugarriak ere kanpoan geratu dira.

Halaber, arkaismoak eta horiek hautematen egon daitezkeen okerrez gain, berrikuntza zaharrak ere —batzuk, eta ez guztiak— kanpoan uzten ditu; adibidez, $a + a > ea$ disimilazio morfonologikoa aintzat hartzen du, baina zenbait mendez modernoagoa den *egin* laguntzailea kanpoan uzten du, besteak beste *hautu* bezala tratatzen duelako. Zuloagaren (2020a: 530-531) arabera, XIII-XIV mende artekoa da *eginen* gramatikalizazioa eta $a + a > ea$ baino modernoagoa.

Antzera, *hautu* deitu izan direnak ere alde batera uztea erabaki izan du Zuazok (1998a: 192), eta horien artean ergatibo plurala *-ak / -ek* egitea eta *egin / *ezan / *iron* aditzetako laguntzaileak erabiltzea aipatzen ditu. Jakina, batzuk berrikuntzak dira eta besteak arkaismoak, guztiek ez dute kronologia bera eta, besterik gabe, batzuk eta besteak alde batera uzteak ez du oso egokia ematen.

Ene usterik apalenean, Zuazok ezin du ezta bere helburua ere bete —“ezaugarririk oinarritzkoenak eta esanguratsuenak erakustea” (Zuazo 2008: 16)— arkaismoak eta hautuak alde batera utzirik. Helburu horrek deskribapen itxura du eta, horretarako, arkaismo / berrikuntza (/ hautu) bereizketa itsua da; hau da, leku jakin bateko ezaugarriak deskribatzeko edo zerrendatzeko ez du axola berrikuntzak edo arkaismoak diren. Beste modu batean planteaturik: zer dira ezaugarririk oinarritzko eta esanguratsuenak eta zergatik ezin dira arkaismoak (edo, edozer direla ere, hautuak) oinarritzkoak eta esanguratsuak izan? Zergatik da hizkuntzalaritza historiko-konparatuko bereizketa bat, hau da, berrikuntza / arkaismo bereizketa, XXI. mendeko euskara zertan den deskribatzeko esanguratsua eta ezaugarri asko kanpoan uzteko irizpide bat?

Nolanahi ere den, hiru irizpide zehazten ditu *berrikuntzak* kontuan hartzeko: hedadura zabala izatea, emankorrek izatea eta egungo euskaran bizirik egotea. Horiek ere arazotsuak dira. Izan ere, zer da hedadura zabala izatea? Bizkaira edo Gipuzkoara mugatzea? Ekialde zabal osoan erabiltzen diren ezaugarriak? Horrek, adibidez, *egin* laguntzailea ez erabiltzearekin talka egiten duela ematen du; izan ere, *egin*ek garai batean zuen hedadura zabala galdu du, Araban euskara galtzean eta Gipuzkoako testuetan ikusten den atzerakadarekin, eta, hala ere, hartzen dituen zenbait ezaugarri baino hedatuago dago (Zuloaga 2020a).

Beste bi irizpideek beharbada arazo larriagoak dituzte. Zergatik dira garrantzitsuagoak emankorrek diren arauak edo prozedurak, ihartutakoak baino? Zergatik utzi behar da alde

batera, bere adibideetan, Nafarroan *oa-* > *goa-* (*ohartu* > *goartu*, *ohatze* > *goatze*, etab.) gertatu izana (Zuazo 2008: 20) mailegu modernoetan *oa-* bere horretan mantentzen delako (*oasi* > ***goasi*)? Berdin, zergatik kendu ditu arkaismo eta *hautuak* ezaugarriak egun bizirik egotea nahi badu? Arkaismoak ez daude egungo hizkeran bizirik? Eta, are larriago, zergatik hitz egiten du euskal dialektoen sorguneez eta jatorriaz (Zuazo 2003 eta 2008: dialekto bakoitzaren aurkezpenean; 2010a: 165tik aurrera; 2014: 49tik aurrera; 2017: 9tik aurrera) XXI. mendean *bizirik dauden prozesuak* aztertzen baditu? Prozesu horiek —eta dialektoak— betikoak dira? Edo zergatik sartzen ditu Arabako euskara (Zuazo 2003) eta Zaraitzu-Erronkarietako euskara XXI. mendeko euskarekin batera? Laburbilduz, zergatik ezabatzen du informazio historiko (ia) guztia eta zergatik saiatzen da ondorio historikoak ateratzen ikuspegi erabat sinkronista batetik egindako lan batetik?

Petitek (2007: 25) argudiatzen duen moduan, armeniera modernoa hartuko bagenu, aitzin-armeniera ere eransletako jotzeko arriskua izango genuke. Aldiz, lekukotasunek erakusten dute eransletasuna armeniera modernoko berrikuntza dela eta armeniera klasikoan horren arrastorik ez dagoela. Petiten (2007: 25) arabera:

Pour évaluer correctement les innovations de chaque groupe linguistique, il faudrait pouvoir fixer l'image des langues indo-européennes à une époque identique pour toutes les langues, idéalement à l'époque de leur différenciation initiale, mais notre documentation ne nous permet pas le faire avec précision.

Petitek gure metodoen —edo ezagutzeko ditugun aukeren— mugak azpimarratzen ditu, baina bistan da haren eta Zuazoren ikuspegi metodologikoaren arteko aldea erraldoia dela: Petitentzat, berrikuntza bakoitza bere garaian ebaluatu behar da. Zuazorendako, gaur egun bizirik dauden ezaugarriak erreparatu behar zaie. Erabaki horrekin, ordea, alderdi kronologikoa guztiz kanpoan gelditzen da, iragazki kronologikoa ez du inondik inora betetzen —lan honetan, §1.2.2.2—, atemporaltasuna erabatekoa da, metodologia horrekin ezin da inongo ondorio historikorik atera, eta XX. mendeko euskara aztertzeko ere hankamotz geldi liteke, hartutako erabaki metodologikoekin, (ahal duen) informazio historiko guztia ezabatzeaz gain, informazio sinkroniko biziaren zati handi bat kanpoan utzi duelako; adibidez, jada emankorrak ez diren prozesuak alde batera uztean edo bizi-bizirik dagoen *egin* laguntzailea bezalakoak kanpoan uztean.

Ikus dezagun, dena den, Zuazok EBZren hausturarako egiten duen proposamena gertuagotik. Haren arabera, EBZ mendebaldean hautsi zen, mendebaldeko euskara —kasu honetan ohiko edo Bonaparteren bizkaiera?— desberdinena delako, eten nabarmen bat dagoelako mendebaldeko mintzoen eta gainerakoen artean eta hizkuntz aldaketa gehien dituen delako. Hori, baina, neurri batean iritzi subjektiboa da eta Mitxelenak (1981: 298) Lacombe eta Uhlenbecki egindako kritikak ekar ditzake gogora:

Nunca se precisa para quién es tan diferente el vizcaíno [Zuazoren kasuan, mendebaldeko euskara = bizkaiera]. (...) Pero yo no tenía por aquel entonces, pongámonos por 1935-1937, la menor idea del suletino hablado (...). Habría que ver también, puesto que las consideraciones que se hacen son cuantitativas, si no hay manera de cuantificar las observaciones.

Antzeko zerbait esan liteke Zuazoren (2010a: 67) hitz hauez: “Desde el punto de vista del lingüista, hay únicamente dos dialectos que presentan una personalidad bien marcada, uno en cada extremo del país: el suletino, por un lado, y el occidental o vizcaíno, por el otro”.

Lan honen mugak direla eta, luzeegi joko luke Zuazok (1998a, 2014) ematen dituen ezaugarrietako bakoitza banan-banan aztertzeak, baina, ikertuago dagoen mendebalari erreparatuz gero, bistan da mendebal zabaleko ezaugarri markagarri zenbait falta direla Zuazoren lanean, hala nola *egin* laguntzailea indikatiboz kanpoko perifrasi iragankor eta ditransitiboetan —cf. Zuloagarendako (2020a) MEZ definitzeko duten garrantzia—. Bestetik, itxaron daitekeen moduan, ematen dituen ezaugarri horietako zenbait guztiz historikoak eta are berankorrek dira eta, berez, nekez erabil litezke dialektoen banaketa aztertzeko, iragazki kronologikoa (§1.2.2.2) zuzenean hausten delako.

Adibidez, goranzko diptongoak *ea > ia* disimilazioaren ondoren baizik ez da posible, eta bilakabide hori Euskal Herriko leku askotan lekukotu arren, ez da leku guztietan garai berean gertatu. Hori dela eta, gehiago du bilakabide poligenetikotik eta, beraz, ez da erabilgarria filiazioa aldarrikatzeko (Zuloaga 2020a: 267tik aurrera). Izan ere, nahiz eta bere tesi-lana, izatez, mendebaldeko —hots, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako— hizkeretan zentratu, Zuloagak *e > i / _V* eta *o > u / _V* aldaketen bilakabidea aztertzen du, baita Lapurdi kostaldekoa eta Nafarroa Garaiko hainbat lekukotasunetakoa, eta jatorri poligenetikoa izan behar dutela ondorioztatzen du. Ohar bedi, era berean, Zuazok ematen duen Urdiaingo adibidea, [nes.kja], *a + a > ea*, ondorengoa dela eta, beraz, hor behintzat berrikuntza nahiko zahar bat eta oso berri bat gurutzatzen dituela.²⁶

Antzekoa esan genezake mendebalean aditzoinik ez aurkitzearen inguruan. Aditzoina Euskara Zahar eta Klasikoan desagertzen da mendebalde zabalean (Mounole & Gómez 2018: 503) eta desagertu aurreko adibide ugari aurki daitezke. Informazio hori eta datu asko, gainera, Zuazo (1998a) bere zeregin honetan hasi zenerako eskuragarri zeuden, Lakarrak (1986: §5.22; 1997: 495) jaso eta aztertu baitzuten. Berdin, Zuazok (2008: 124) *egin* aditza

²⁶ Modu berean, Burundakoa (> Urdiaingoa) “tarteko hizkera”tzat hartzen du Zuazok (2010b). *Tarteko hizkera* deitura bilakabide diakronikorik gabeko marko batean besterik ezin da ulertu. Gerta liteke inguru bateko hizkerek hainbat lekutako eragin lektalak izatea, jakina. Aldiz, prozesu historiko baten ondorio dira, oso bestelako kronologia duten berrikuntzen ondorio, eta hori guztia nola gertatu eta garatu den argitu beharko luke dialektologo(-diakroniko)ak. Burundako euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorako ikusi Urrestarazu-Porta (prestatzen-1).

indargarri moduan erabiltzea *erdialdeko*, hots, gipuzkerako ezaugarritzat dauka. Lehen adibideak mendebal-mendebalekoak dira, XVI. mendearen amaierakoak; esaterako, Betolatzak (1596) *luxuriazko pekatuetan jausi ez eitea* dakar. Gipuzkoan, aldiz, XIX. mendetik honakoa da *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arabera eta, are gehiago, erabilerak XIX. mendearen amaieran baizik ez du gora egiten; bide batez, euskara Araban desagertu ondoren. Konpara bitez datu horiek eta, berriz ere, iragazki kronologikoak eskatzen duen berrikuntzak zaharrak izateko beharra.

Aurreko guztiak agerian uzten du Zuazok aldarrikaturiko mendebaldeko desberdintasun handiagoa atzera joan ahala asko txikitzen dela eta erabiltzen dituen ezaugarrietako asko ezin direla, inola ere, EBZren haustura mendebaldeko euskararen genesiak —Zuazoren kasuan, ohiko bizkaierarenak— eragin zuela argudiatzeko. Gure helburuetarako, erabiltzen dituen irizpide metodologikoak ikusirik, saiakerak antzua ematen du, berez, historia egiteko, baina baita sailkapen fenetiko-sinkronikoak egiteko ere.

3.3.1.2. Reguero-Ugarte (2012a, 2012b, 2013)

Zuazok bezala, Reguero-Ugartek (2012a, 2012b, 2013) EBZ osteko hizkuntz egoera bi eremutan bereizirik ikusten du. Aldiz, Reguero-Ugartek aurrerapauso metodologiko (oso handi) bat dakar Zuazoren lanekiko: Erdi Aroko onomastikatik abiatzen da eta, behintzat, XVIII. mendeko berrikuntzak milurte bat lehenagokotako hartzeko arriskua saihesten du. Bi eremu bereizten ditu Goi Erdi Aroan: Mendebaldekoan, Araba, Bizkaia, Errioxa eta Gipuzkoa eta Nafarroako mendebaldeko zati batzuk sartzen ditu —Zuloagak (2020a) definitzen duen MEZren oso antzekoa hedaduraz—; gainerakoak erdi-ekialdekoan sartzen ditu: Gipuzkoako ekialdea, Nafarroa Garaiko mendebaldeko muturra ez den beste guztia eta Pirinioaz bestaldeko Ipar Euskal Herri osoa.

Zatiketa hori egiteko, mend. *u-* (*huri*) : ek. *i-* (*hiri*), mend. *baltz* : ek. *beltz* eta mend. *barri* : ek. *berri* ezaugarrietan oinarritzen da. Horrez gain, gaineratzen du aurrekoen antzeko banaketa bat dutela ergatibo pluraleko mend. *-ak* : ek. *-ek* eta mend. *-tza* : ek. *-tze* atzizkiek, nahiz eta horiek ipar-ekialderago lekukotu. Esan bezala, Zuazoren lanarekiko aurrerapauso metodologikoa oso garrantzitsua da, lekukotasun zaharrak —Erdi Arokoak— aztertzen dituelako eta dagokion garai historikoan interpretatzen dituelako.

Aldiz, Zuloagarendako (2020a: 699) baztergarriak dira mend. *u-* : ek. *i-*, *barri* eta *baltz*. Mend. *u-* : ek. *i-* egokitasuna alde batean uzteko argudioen artean, Zuloagak (2020a: 172tik aurrera) aipatzen du hainbat jatorriko eta garaitako hitzak nahasten direla. Adibidez, (*h*)*uri* : (*h*)*iri* bikotea **her-i* formatik etorriko litzateke (Lakarra *et al.* 2019: xxxvi-xxxvii); *urten* : *irten* : *erten* edo *ule* : *ile* : *elle* hirukoteak **eurten* eta **eule* formatik etorriko lirateke hurrenez hurren. Hau da, *u-* : *i-* : *e-* < **e(C)u-* izango genuke (FHV: 465); baina, horrekin batera *u-* <

*eu- (< *eo) bilakabide orokor eta zaharragoa ere izango genuke: *unhain* : *ulhain* (< **enonani*; Lakarra 2011 [2014]: 190), *ugatz* (< **e-o-atz* < **edo(n)-hatz*; Lakarra 2011 [2014]: 190) eta *uda* (< **eguda*; Lakarra *et al.* 2019: 171). Hortaz, hori guztia bereizirik, item lexiko gutxi batzuei eragiten dieten hainbat bilakabide txiki izango genituzke, sistematikoak ez direnak, eta horrek gehiegizkoa ematen du EBZren haustura sakon bat planteatzeko.

Antzera gertatzen da *baltz* eta *barri* aldaera lexikoekin. Aldaera lexikoak dira eta, are, *e > a* oso ohikoa da, munduko hizkuntzetan, batez ere dardarkari aurrean (Zuloaga 2020a: 166-167). Hori dela eta berrikuntza horiek ez dute berezitasunik eta ez dute banaketa dialektal esanguratsu eta sakonak proposatzeko aproposak ematen. Laburbilduz, berrikuntza horiek ez dituzte §1.2.2.3n berrikuntzei jarri diegun hizkuntz iragazkiaren hertsapenak betetzen.

3.3.1.3. Aldai (2014)

EBZren haustura mendebaldean gertatu zela landu dutenen artean, Aldai (2014) ere sartu behar dela uste dut. Harendako mendebala zer den jakitea zaila izan daiteke, nahiko hedadura desberdina duten ezaugarriak tratatzen dituelako: batzuk egun EAE diren hiru probintzietan lekukotutakoak dira, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak alegia —cf. eremu hori eta aipatu berri dudana Reguero-Ugartek planteatzen duen eremu zabalagoa—; beste batzuk, ordea, Zuazoren mendebalera, hau da, ohiko (arabera-)bizkaierara mugatuago agertzen dira. Egia da ez duela *expressis verbis* esaten bere ustez EBZren haustura mendebaldeko dialektoen eraketarekin gertatu zela. Hala ere, *ex silentio* besterik ez bada ere, nire ustez Aldairen (2014: 222) hitzok nahiko argiak dira:

Si el origen de los dialectos vascos modernos hay que situarlo a partir de los siglos VI-VII, a más de uno le parecería que la historia de la fragmentación dialectal vasca debería ser bastante fácil de contar; es decir, que casi podemos llegar a abarcarla en el periodo histórico. Sin embargo, aunque efectivamente la dialectalización del euskera es mucho más reciente de lo que hasta hace poco se había llegado a imaginar, la cuestión sigue siendo muy compleja y desconocida.

Nolanahi ere den, lan horretan, Aldai (2014) mendebaldeko euskara —MEZ?— definitzen du zenbait hizkuntz ezaugarriren arabera —jarraian jaso ditut—, eta, hedadura- (zenbat eta hedadura zabalagoa, orduan eta zaharragoa) eta aldakortasun-irizpideetan (zenbat eta aldakortasun txikiagoa, orduan eta zaharragoa) mendebaldeko euskararen barruko lau periodo bereizten ditu. Honako kronologia erlatiboa planteatzen du, zaharrenetik berrienera ordenaturik:

- 1) *-ak* ergatibo plurala; *izanen* hirugarren pertsonako adizkietako *-a-*, *-ai* datibo plurala; eta geroaldiko *-ko*.
- 2) *a + a > ea* disimilazio morfonologikoa; eta *-adu* eta *-idu* partizipioak.


3) *egin* eta **edutsi* laguntzaileen gramatikalizazioak; *-j* bokalerdiaren ondoko palatalizazioa; eta *-eta* aditz-izenak.

4) *-keta* aditz-izenak, objektu zuzenaren pluraleko komunztadura falta; **edunen -u-* Arabako ekialdean.

Euskal hizkuntzalaritza historikoaren eta dialektologia diakronikoaren bide onaz hitz egiten du Aldaik (2014) duela sei urte zalantzazkoak zituen zenbait gauza argituz joan izanak. Adibidez, Aldaik (2014: 225-226) eztabaidatzen du ergatibo pluraleko *-ak* edo *-ek* zein izango den arkaismoa eta zein berrikuntza. Manterolak (2015) argitu duenez, berrikuntza ekialdeko *-ek* da eta, beraz, *-ak* MEZko arkaismo bateratzailetako har daiteke (Zuloaga 2020a). Halaber, Aldaik aipatzen dituenen artean, *a + a > ea* disimilazioaren eta *j* bokalerdiaren ondoko palatalizazioaren bilakabideak askoz hobekiago ezagutzen ditugu Zuloagari (2020a) esker, eta Erañak (2020a) objektu zuzenaren pluraleko komunztadurarik eza argitu du.

3.3.1.4. Abaitua (2018)

EBZren haustura mendebaldean gertatu zela defendatu dutenen artean azkena Abaitua (2018) izan da, eta gainerakoak baino harago joan da. Lehen haustura mendebaldean gertatu zela aldarrikatzeaz gain, Abaituak (2018) IV. mendetik XVI. menderako dialektalizazioa azaltzeko sailkapen bat proposatu du:



9. irudia: Euskararen dialektalizazioa Abaituaren (2018) arabera. Iturria: Abaitua (2018: 318).

Abaituaren (2018) proposamenean, EBZ (Abaituaren lanean, *VCA*, *Vasco Común Antiguo*) Erdi Aroko Mendebaldeko Euskararen (*VOcM*, *Vasco Occidental Medieval*) eta Erdi Aroko

Ekialdeko Euskaran (*VOrM, Vasco Oriental Medieval*). Bigarren hori, Erdi Aroko Ekialdeko Euskara, halaber, Erdi Aroko Erdialdeko Euskaran (*VCrM, Vasco Central Medieval*) eta, atzera ere, Erdi Aroko Ekialdeko Euskaran hautsiko litzateke. Bukatzeko, Erdi Aroko tarteko egoera horietatik etorriko lirateke dialekto historikoak, elkarren artean gurutzaturik. Hala ere, ez dut argi Abaituaren *VOcM —MEZ?*— zer den eta zer lurralde hartuko lukeen. Izan ere, Arabaz mintzo bada ere, ez du Arabako daturik.

Abaituaren (2018) lanari hainbat alderditatik heldu dakioke, baina kritika nagusiak metodo(logi)ari dagozkio. Larriena —eta gainerakoa alde batera uzteko modukoa— da Abaituak (2018) kontrako bidea egiten duela: kanpo-historiako eredu bat hartzen du (Pozo 2016) eta eredu horrekin bat egin dezakeena bilatzen du hizkuntzan.²⁷ Hizkuntzalaritzan bideak kontrakoa izan beharko luke: dauden hipotesiak egiaztatzeko hizkuntzaren azterketa serio batetik abiatu behar da, egin beharreko berreraiketak egin behar dira eta, ondoren baino ez, hipotesiak indartzeko jo daiteke hizkuntzaz kanpoko sistemetara. Izan ere, kontrakoak berekin dakar hizkuntzaren historian muina hizkuntza ez izatea, baizik eta hizkuntza egiten duen herria, eta eredu historikoa eroriz gero hizkuntzarena ere eroriko litzateke —cf. Barbero & Vigilen (1965) ereduan oinarriturik, EBZ v-vi. mendeetan kokatzeko Mitxelenaren (1981) proposamenarekin pasatakoa: jada ez dago EBZ v-vi. mendeetan kokatzeko (hizkuntzaz kanpoko) argudiorik, baina EBZren beharrak hor dirau—. ²⁸

Bestalde, Abaituaren (2018) lanak badu beste arazo bat: ez du euskal ondare filologikoarekin lan egiten, baizik eta 1980ko hamarkadan jasotako *EHHA*ko datuekin. Gorrotxategik (2013) Mitxelenaren (1963) *Lenguas y protolenguas* egindako iruzkin honek arazoa laburbiltzen duelakoan nago —ikus, halaber, Gorrotxategi 2001, (euskal) hizkuntzalaritza historikoa egiteko metodo eta baliabide estandarrez, eta datazioaren garrantziaz—:

[Q]uien quiera dedicarse a la prehistoria de una lengua y a la reconstrucción de sus fases más antiguas debe conocer perfectamente la historia documentada de esa lengua. Toda reconstrucción realizada por advenedizos, personas que no conozcan bien su historia, será deficiente y correrá el riesgo de proponer hipótesis aventuradas. (Gorrotxategi 2013: 615)

²⁷ Pozoren (2016) ereduan oso leku txikia gelditzen da euskalduntze berantiarrarentzat eta, beharbada horregatik, ez dago horren inguruko aipamenik Abaituaren lanean (cf. Abaitua 2017). Argigarria litzateke euskalduntze berantiarra baztertutzat jotzen duen edo proposatutako eskeman nolabait txertatzen duen.

²⁸ Kanpo-historian oinarriturik ere, badaude bitxiak egiten zaizkidan —eta azalpen luzeagoa beharko luketen— gauzak ere; adibidez, “Álava mira a Asturias y Pamplona a Córdoba” (Abaitua 2018: 317). Ez dakit horrekin zer esan nahi den: Nor zegoen begira? Gorte eta elite ekonomiko-administratiboak? Herri xehea? Hori (nola) froga daiteke? Hizkuntzan horren arrastorik gelditu da? Zer eragin du horrek hizkuntzaren barneko historian?

Ez dut uste euskal ondare filologikoaren eta dokumentazioaren gainetik ibili gabe ere Abaituaren (2018) hipotesiak (asko) aldatuko lirakeenik, kanpo-historiatik ateratakoak dira eta. Aldiz, 1980ko hamarkadan bildutako EHHako isoglosak, hots, datuak, iraganean bere horretan proiektatzen ditu, aldatu izan ez balira bezala: balio pankronikoa ematen die. Hau da, iragazki kronologikoa (§1.2.2.2) ez du inondik inora betetzen. Jauzi logiko hori —xx. mende bukaerako datuak iraganean komeni zaion garaian proiektatzea— metodologikoki onargaitza da berez, xx. mendearen amaierako datuak xx. mendekoak direlako, eta ez, VIII.enekoak, XIII.ekoak edo XVIII.ekoak, baina, gainera, hizkuntzaren barne-historiak oker dabilela erakusten du.

Adibidez, bere lanean 2. patroia x-xii. mendei lotzen zaie, zeintzuetan hau gertatuko litzatekeen: “la reconexión del núcleo de Pamplona con el área occidental” (Abaitua 2018: 302). Interpretazio hori egiten du, patroia hori duten *ezaugarriak* nahiko homogeneousak direlako: Iruñetik ezker mendebalde osoan forma bat agertzen da, eta Iruñetik ekialdera, beste bat. Besteren artean, “asko / anitz” eta “daukat / badut” mapak erabiltzen ditu Abaituak (2018: 294) mendebalde vs. ekialde banaketaren erakusgarri. Beharbada, *EHHA* egin zen garaian hori zen banaketa, baina errealitate historikoa oso bestelakoa da.

Lehenengoari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia*n begiratzuz gero, asko ia orokorra da, nahiz eta hegoaldekoan maizago erabili. *Anitz* iparraldeko eta Nafarroa Garaiko tradizioek berezkoa dute, baina, besteak beste, Lazarragak bazerabilen mendebaldean: *Biotzau jo deustazu anetx fletxaz* (Bilbao *et al.* 2020b: 219). Lekukotasunaren fidagarritasuna alde batera (cf. Urrestarazu-Porta prestatzen-3), Bonaparterendako itzuli zen Urdiaingo dotrinan ere *anitz* lekukotzen da, XIX. mendean eta EHHak dakarrena baino 40-50 kilometro mendebalderago. Antzera, **edunen* adizkiak ez dira ezezagunak izan mendebaldean duela erlatiboki gutxira arte; XIX. mendera arte bai behintzat. Esaterako, Lazarragarenean adibideak aurki daitezke: *ez dot entendimenduric* (Bilbao *et al.* 2020b: 89); baita *Arrasateko erreketan* ere (Mitxelena *TAV*: §3.1.7): *Gomiz Gonsalu[c]h bertan çan / Beragaz Presebalen caltean / Joanicoc eta beste ascoc / Eudela parte bertan.* (34-37); *Oyn arroc çiftujan luma / Oçætaco jaun gazteac;* (38-39); *Semea, çer doc orrelan?* (43).

Lazarragaren eskuizkribua 1567 eta 1602 artekoa da, XVI. mendearen amaierakoa alegia (Bilbao *et al.* 2020a: 40) —ikusi, halaber, Bilbao *et al.* (2020a: §2.3.3.) eskuizkribuaren datazioaren gorabehera guztien inguruen berri izateko—. Arrasate 1448. urtean erre zen (Mitxelena *TAV*: 81) eta, beraz, poema ezin da XV. mendearen erdialdearen aurrekoa izan. Gugandik are gertuago, 1825ekoa den *Antzuolako dotrinan* (Uribe-Etxebarria 2008) ere zenbait adibide aurki daitezke: —*Orrela badozu zuc Ayngueru Guardacua?* —*Bay, Jauna, badot,* (...) (22v). Hau da, Abaituak hartutako ezaguarri horiek EHHako banaketa

geografikoa badute, banaketa hori XVI. mendetik hona sortu da —XIX. mendetik hona?—, gutxien-gutxienez euskara zahar eta klasikoan (1600-1745), eta ez, Abaituak (2018) aipatzen dituen X-XII. mendeetan. Bestela esanda, EHHako XX. mendeko datu horiek ez dute garai historikoetarako balio eta, hortaz, are gutxiago balio dute historiaurreko edo, kasu honetan, protohistoriako (Lakarra 1997: §1.4; Mounole & Lakarra 2018: §1.1) garaien inguruan ondorioak ateratzeko. Hori guztia ikusirik, zilegi da Abaituaren (2018) mendebala (VOcM) zer den galdetzea, aipatzen dituen ezaugarriak ezin baditu berezkoak izan.

Gutxi balitz, Abaituaren (2018) lanak badu beste arazo bat: esan bezala, EHHako datuetan oinarritzen da, baina datu horiek ez dira beti fidagarriak. Izan ere, Zuazok (2020) eta Coyosek (2020) *Euskalkien Sailkapen Berriari* (Aurrekoetxea *et al.* 2019) egindako zentzuzko kritiketan ikus daitekeen moduan —gorago §2.1.1n ere aipatu ditud—, *EHHA* baliabide lagungarri eta interesgarria da, dokumentazioari dagokionez bederen, baina *Atlasa* egin zen garaiko ajeak ordaintzen ditu: besteak beste, *Atlasa* egin zenean euskal dialektologiaren ezagutza apal xamarra zen, agertzen diren datu asko ez dira fidagarriak eta inkestak egiteko jarraitu zen metodologiak hutsak (eragin) ditu. Abaituaren (2018) proposamenak, beraz, aurretik aipatutakoez gain, muga edo arazo horiek ere baditu datuetan.

Arazo horiek guztiak ikusirik garrantzia ere galtzen du Erdi Aroko Ekialdeko Euskara (VOrM) aldi berean *ama* eta *alaba* izateak, hots, bi garai desberdinetako eta bestelako ezaugarri linguistikoak izan beharko lituzketen bi hizkuntz egoerak deitura bera izateak.

Azkenik, metodologia bereko beste lan bat argitaratu berri du Abaituak (2020), Camino *et al.*en (2020) liburuan, *EHHAtik* ateratako Gipuzkoako zenbait berrikuntzaren inguruan. Metodologia berbera denez, kritika eta arazoak ere berberak dira. Metodologia ez ezik, datuak ere errepikatzen dira: adibidez, gorago iruzkindu ditudan “asko / anitz” eta “eduki / *edun” ditu mendebalde eta ekialde bereizteko ezaugarrien artean aipatzen ditu berriro ere (Abaitua 2020: 53), eta, beraz, errealitate historikoaren kontra jarraitzen du. Konpara bitez, helburuen, metodologiaren eta emaitzen aldetik, Abaituaren lana eta, Camino *et al.*en (2020) liburuan bertan, Ariztimuñoren (2020) eta Reguero-Ugarteren (2020) lanak; lehenengoak gipuzkeraren zenbait ezaugarriaren isoglosak nola aldatu diren aztertzen du — Abaituarenean ez du ematen horretarako aukerarik dagoenik ere—, eta bigarrenak goinafarrerako zenbait berrikuntzaren kronologia erlatibo-absolutua egiten du lekukotasunetan oinarriturik.

3.3.1.5. Lehen haustura gertatu zela defendatu dutenen laburpena

Erakutsi dudan moduan, euskararen lehen haustura dialektala mendebaldean gertatu zela hainbatek proposatu duten arren, oso talde heterogeneoa da eta benetan inork defendatu

duen ere galdegin liteke. Batetik, mendebala oso desberdin definitzen dute, hizkuntz ezaugarriak alde batera, ezta geografiaren aldetik ere. Zuazorendako (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014, 2017) *bizkaiera* da —Araba hor sarturik—. Abaituarendako (2018) Iruñea bertatik ezker hasten da. Reguero-Ugarterenak (2012a, 2012b, 2013) eta Aldairenak (2014) badu Zuloagak (2020a) definitu duen MEZren gutxi gorabeherako hedadura: Gipuzkoako ipar-ekialdetik eta Nafarroako mendebaldetik ezker.

Bestetik —eta larriago—, alde metodologikoak daude. Batzuek ez dituzte dialektologia diakronikoa egiteko irizpide metodologiko oinarritzkoenak betetzen: Abaituak (2018) datu guztiz modernoak hartu eta iraganean proiektatzen ditu, eta Zuazok (1998a, 2003, 2008, 2010, 2014, 2017) datu modernoak kimatu eta hortik iraganaren inguruko ondorioak ateratzen ditu. Reguero-Ugartek (2012a, 2012b, 2013) lekukotasun zaharrak erabiltzen baditu ere, hautatuko ezaugarriek ez dute aproposenak ematen §1.2.2 atalean jarritako hertsapenen aldetik, Zuloagak (2020a) markatu bezala. Antzera, Aldairen (2014) lana zaharkiturik gelditu da ezaugarriak xeheago aztertuz eta interpretazioak hobetzen joan diren heinean eta, batez ere, Manterolaren (2015) eta Zuloagaren (2020a) tesi-lanen ondoren. Horrez gain, gainerakoak ez bezala, nahiz eta zeinek bere modura egin, Aldai mendebaldera mugatzen da, gainerako eremuari gutxi erreparaturik.

3.3.2. Euskara Batu Zaharraren haustura ekialdean: Lakarra 2011 [2014] eta Camino 2011 [2014]

Esan bezala, EBZren hausturak bigarren aukera bat du: ekialdean izatea eta, hortik, Mendebal eta Erdialdeko Euskara Zaharra (MErEZ) eta Ekialdeko Euskara Zaharra (EkEZ) sortzea. Hipotesi horren aldeko dira Lakarra (2011 [2014]) eta Camino (2011 [2014]). Hala ere, Caminok (2011 [2014]) hipotesi hori aldeztzen duela ematen badu ere, ez da Lakarra bezain esplizitua eta §1en finkatu ditugun oinarri teoriko-metodologikoetatik ere zeresana egon liteke.

Izan ere, ezaugarri asko aztertzen ditu eta zer hedadura (izan) duten zehazten du. 140 ezaugarri, berrikuntza, arkaismo eta *hautu* artean, baina guztiek ez dute ez garrantzia ez zahartasun bera eta alderdi kronologikoa gutxi lantzen du. Kronologia urriak dira eta berrikuntzak noizkoak izan daitezkeen gogoeta gutxi dakar. Alde horretatik, nolabaiteko fenetikotasuna du, Zuazorenaren antzekoa: ezaugarri asko = banaketa zaharr(en)a. Jakina, Caminok (2011 [2014]) testuetarako gertatutako berrikuntzak lantzen ditu eta, alde horretatik, haren eta Zuazoren irizpideek ez dute zerikusirik, berrikuntzei jarritako irizpideak (§1.2.2) betetzen dituelako. Aldiz, hausturarako ezaugarri on batekin nahikoa da (Bower & Koch 2004), finkatu ditugun irizpideak gainditzen baditu behintzat, eta horretan saiatzen da Lakarra (2011 [2014]).

Lakarraren arabera, *n* eta *l* ondoren herskari ahoskabeak izatea (*T / n, l*) EkEZ definitzeko berrikuntza oso zaharra da, 300. urtearen ingurukoa hain zuzen. Lakarrak (2011 [2014]) defendatzen duen hipotesiaren abiapuntua Mitxelenaren (FHV: 355) hitzok dira:

Hay dos maneras de interpretar estos hechos [hau da, *T / n, l*]. Las más natural parece pensar que en vascuence se ha llegado a neutralizar la oposición sorda / sonora detrás de nasal y *l* sonorizando en esa posición las oclusivas sordas con posterioridad a la introducción de los primeros préstamos latinos: *ronc.* y *sul.* serían por tanto dialectos arcaizantes que han conservado mejor el antiguo estadio de cosas. Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclusivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o *l* + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino [uler bedi EkEZ, hots, erronkarieta eta zuberera eman zituen aitzin-dialektoa] los dialectos que primero abandonaron esta práctica. Esto quiere decir, naturalmente, que *alte* y *galte* p.ej. eran palabras complejas que habría que analizar *al-te* y *gal-te* del mismo modo que según toda probabilidad *igante* era *igan-te*.

Lakarraren (2011 [2014]: 205-206) arabera, Mitxelenak proposatzen dituen balizko bi interpretazioetan bigarrena da ona, nahiz eta ez zuen bide hori inoiz garatu. Hitz barruan fonologikoki ahulak ziren herskariak jatorriz AEn fonetikoki ahostunak zein ahoskabeak izan, *fortis / lenis* sistematik ahostun / ahoskabe sistemara igaro ondoren, ahostunak ziren. Aldiz, txistukari ondoren ahoskabetuko lirakeke —eta beharbada diptongo ondoren—: *D > T / S_*.

Ahoskabetze hori orokorra da euskaraz, baina, EkEZn, txistukariaren eraginez ahoskabeturiko forma horiek oinarrizko morfematzat jo, eta gainerako testuinguruetara hedatuko lirakeke, baita *n* eta *l* ondora ere. Horrela ikusirik, berrikuntza berezia genuke, eta ez hots-aldaketa arruntzat hartu beharko litzatekeen *T > D / n, l* gertatzea. Izan ere, Blevinsen (2004: 109) hots-aldaketaren teoriarik koartikulazioaren eraginez gertatutako hots-aldaketa fonetikoki *naturala* litzateke herskari ahoskabeak ahostuntzea.²⁹ Nahiz eta nik ere

²⁹ Sudurkari ondoko ahostuntzeari dagokionez, Coetzee & Pretorius-en (2010: 405) arabera, ahosabai-errezela beste organo artikulatzaile batzuekin alderaturik poliki mugitzen da eta, beraz, normala litzateke ondoko herskaria ebakitzen hasterako oraindik itxi gabe egotea. Berdin, ahots-kordek ez diote bat-batean dar-dar egiteari uzten eta hori ere ondoko herskaria ahostuntzearen alde doa. Coetzee & Pretoriusen sudurkari ondoko herskariaren ahoskatze kasu bat izan daitekeen bilakabide bat aztertzen dute, tswana hizkuntzan; tswana Botswanan, Nambian, Zimbabwen eta Hego Afrikan hitz egiten den hizkuntza hego-bantu bat da. Hizkuntza horretan, ahoskabeak garatzen direla aldarrikatzen dute egileek, nahiz eta niri prozesu fonetiko edo fonologikoa dela sinesgaitza egiten zaidan, besteak beste morfema mugan gertatzen delako eta idatziak eragindako aldaketa izan daitekeelako ikertzen dutena <mp> idazten baita —ikus, halaber, Coetzee & Pretoriusen laneko erreferentziak sudurkari ondoko ahostuntzearen eta balizko zenbait ahoskabetzeren berri izateko—. Era berean, Azler Gartzia

berritu eta *n* eta *l* ondoko ahoskabeak garatu dituen uste dudan, nire iritziz, Lakarraren interpretazioa beharbada ez da guztiz zuzena eta pentsatu baino berriagoa izan liteke.

3.3.2.1. Ekialdeko euskararen zahartasunaz

Auzia, berez, ozen ondoko herskariengatik ingurukoa izan arren, ekialdeko zenbait ezaugarri berrikustea jakingarria izan daitekeelakoan nago. Dakidalarik, ekialdeko euskararen iraganiaren inguruko lanik sakon eta osoena Caminorena (2011 [2014]) da, eta honela mintzo da ekialdeko edo, zehatzago, Zuberoako euskararen zahartasunaz (Camino 2011 [2014]: 147-148):

Nortasun berezi hau Zuberoako euskarak noiz garatu zuen zail da jakitea, hau da, Euskara Batu Zaharra izan zen garaitik honat noiztsu hasi zen gauzatzen, baina beharbada ez dagokio hain aldi zaharrari, beharbada uste dugun baino berriagoak dira Zuberoa alderdiko hainbat eta hainbat berrikuntza, baina inolaz ere, ez da aise noizkoak diren xuxen jakitea.

Caminok (2011 [2014]) ez dakar kronologian aurrerapen handirik eta maila desberdineko berrikuntza askoren sorrera-garaiaz ari da, baina ikusten du uste baino berriagoak izan daitezkeela Zuberoa eta inguruko berrikuntza batzuk —asko bearnesaren ukipenari zor zaizkio gainera—. Ikerketak aurrera egin eta zenbait kronologia finkatu ahala, horren aldeko ebidentzia pilatzen ari dela ematen du.

Adibidez, atzeko bokalaren aurreratzea ($u > y$) bearnesaren eragintzat jotzen du Egurtzegik (2017: §3.2). Aldiz, aldaketaren jatorria frantsesean legoke —nahiz eta hizkuntz barneko murriztapenen arabera gertatu— eta hizkuntza horretan IX. mendean abiatu zen. Frantsesetik okzitanierara egin zuen, okzitanieratik gaskoierara eta, azkenik, gaskoieratik zubererara. Egurtzegiren (2017: §4) arabera XIII. mendetik gertu kokatu beharko litzateke, eta ez askoz goizago.

Antzera, nahiz eta gaskoieraren eraginetik kanpo, $i-u > u-u$ (*ithurri > uthurri*) asimilazioak ere ez du ematen denboran oso atzera eraman daitekeenik. Peillenen (1992: 256 *apud* Camino 2011 [2014]: §6.1.1.1) arabera, XIV. mendeko oikonimoetan ez da agertzen, nahiz eta toponimoak gordetzailleak izateko joera izan. Orpustanek (1994: 74-76 *apud* Egurtzegi 2017: 340) XIV. mendean horren adibide bakan batzuk aurkitu ditu. Beraz, pentsa daiteke asimilazioa ordukoa dela, baina ez askoz lehenagokoa.

Aurrekoekin loturik, diptongoetako $au > ai$ eta $eu > ei$ bilakabideek ere oso modernoak ematen dute (Egurtzegi 2017: 348), lehen pentsa zitekeenaren aurka —cf. Lakarra 2011 [2014]: 207-208, nahiz eta harendako ere diptongoetako bilakabide horren zahartasuna zalantzarria izan—. Izan ere, Etxarten eta Rosen arteko gutunetan (Lakarra *et al.* pres-

eskerrak eman nahi dizkiot, lan honetan aipatu ez ditudan *n* eta *l* ondoko ahoskuntzearen beste zenbait lanen berri emateagatik.

tatzen) Rosek ez du bilakabidearen adibiderik eta Etxartek *aizo* ‘auzo’ besterik ez du (vs. *gauza* eta *gauaz*). Horregatik, Egurtzegik (2017: 348) diptongoetako bilakabidea XVII. mendearen hasieran kokatzen du.

Aurreko berrikuntzek nahiko data ziurra dute. Beste batzuek, ordea, ez dute halakorik oraingoz, baina zenbait gaskoierarekin lot daitezke eta, beraz, hortik ere izan liteke zer atera. Adibidez, ekialdeko azentueraren garapena gaskoieraren eraginarekin egon daiteke loturik Egurtzegiren & Elordietaren (prestatzen: 27) arabera.

Berrikuntza modernoagoak ere badaude, aldaketa historikoak alegia eta, beraz, oso bestelako kronologia dutenak, hala nola bearnesaren eragintzat jo izan diren Zuberoako *-i* partizipioak (Camino 2011 [2014]: 126; Padilla-Moyano 2017: §3.5; 2018). Lehen adibidea Oloroeko katiximan agertzen da (1706) agertzen da eta, ematen duenez, hedatzen joan den berrikuntza da, geroz eta forma gehiagotan agertzen delako, nahiz eta dozena bat aditzi baino gehiagori ez dion eragin (Padilla-Moyano 2017: §3.4; 2018). Esaterako, Belapeireren lanean *estekatü* dena ondoren *esteki* <estequi> da.

Aipatu berri ditugun berrikuntza horiek lagin bat besterik ez dira, eta gehiago ere badira, hala nola mendebalderantz hedatuago dagoen *-a* galdera-morfema.³⁰ Nolanahi ere den, bost berrikuntza horiek oso modernoak dira, azentuaren aldaketaren datarik ezean, gainerakoak MEZ sortu ondokoak dira, eta gaskoiera bearnesak ekialdeko euskaran izan duen eragina salatzen dute. Alde horretatik, zaila da pentsatzea Zuberoa-Erronkari (eta inguruak) berri-tzaileak zirela eta bereizirik zeudela IV. menderako, eta, ondoren, gainerakoekin —euskal dialekto zein erromantzeekin— hartu-eman handietan aritu ondoren, garai hartako bereizgarriari eutsi diotela.

3.3.2.2. *n* eta *l* ondoko herskari ahoskabeen zahartasunaz

Esan bezala, Mitxelenak proposatzen dituen interpretazioen artean —ekialdeko *n*, *l* ondoko ahoskabeak arkaismoak edo berrikuntzak izatea—, Lakarrak (2011 [2014]) bigarrenarekin egiten du bat; hots, ahostunak zaharrak dira, eta ahoskabeak, aldiz, berrikuntza. Ni ere ikuspegi horrekin eta Lakarrak (2011 [2014]) eskaintzen dituen argudioekin bat nator.³¹

Lehen argudioa *Trasken* (1995) lege deitu izan dena da. Hiru alomorfok *-TV* & *-(D)V* (adibidez, *dute*, *daude*, *due*) banaketa dutenean, alomorfo zaharra zein den erabakitzeko irizpidea da eta zaharra ahostuna dela dio. Beraz, *Trasken* legeari kasu egiten badiogu,

³⁰ *-a* galdera-morfema Zuberoan, Erronkari-Zaraitzuetan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin (Itsasutik Luhosora) erabiltzen da Caminoren (2011 [2014]: 125) arabera. Adibidez, Oihenarten (1657) “*Erranen duta?*”.

³¹ Hualdek (2017) ere Erronkariko *n* eta *l* ondoko ahoskabeak berrikuntzak edo arkaismoak diren eztabaidatzen du, baina, funtsean, ez dakar Lakarraren (2011 [2014]) eta, lehenago, Mitxelenaren (FHV) ikuspegiarik. Aldaketarik.

lenisen ondorengoak.³² Aurreko adibide horretan (*dau(d)e & dute & due*), ordea, alomorfoak bokalarlean daude eta aztergai dudan kasu honetan, kontsonante ondoren eta, zehazki, *n* eta *l* ondoren doaz. Hor, baina, aukerak mugatuak dira, *n* eta *l* ondoren ahostunaren alde neutraltzen delako oposaketa eta txistukari ondoren, ahoskabearen alde.

Zerbaitek gakoren bat ematekotan, *-r* ondokoek eman beharko lukete. Igurzkariei begiratuz gero, frikariak dira ekialdean, ez afrikatuak, eta beraz *lenisen* ondorengoak: (*bertze* <) *berze* < **ber-ze*. Herskarien kasuan, itxuraz, ahostuna da zaharrena: adibidez, *ardi* eta *hordi*;³³ berdin, *l* ondoren ahostuna duten lexema zenbait orokorrak izateak horien zahartasunaren alde egiten du, hala nola *zaldi*. Interpretazioa zuzena bada, bokalartekoak —sortzen direnean sortzen direla— ahostuna izan behar du eta, ondoren, txistukari ondokoaren analogiaz ahoskabetuko litzateke. Bilakabide oso hori, ordea, komuna litzateke, euskal lurralde osokoa, hau da, haustura gertatu aurrekoa —edo berrikuntza paralelo berriagoa—.

Horren alde doa Lakarrak (2011 [2014]: 206tik aurrera) dakarren hirugarren argudioa: euskal substratua duten gaskoieraren eta (mendialdeko) aragoieraren lekukotasuna. Izan ere, Rohlfesen (1977: 445etik aurrera) arabera, *lt, nk, mp > ld, ng, mb* bilakatu ziren hurrenez hurren. Esango nuke gaskoieraren bilakabidea landu duten ikertzaile guztiek aipatu dutela uneren batean. Rohlfesen aurretik, Saroïhandyk (1913) artikulu bat eskaini zien bokal artean ahoskabe mantendutako eta *n* eta *l* ondoren ahostundutako herskariei. Ondoren, Baldingerek (1958a, 1958b), Corominesek (1972), Allièresek (1995) eta Chambonek & Greubek (2002) aipatu dute: lat. *altam* > gask. *hàudo*; lat. *bancum* > arag. *bango*, bearn. *bangòt*; lat. *campum* > arag. *cambo*, bearn. *Cambòt*. Ondoren, hiperzuzenketaz, ahostun(dutako)ak ahoskabetu ziren. Hiperzuzenketatako hartzen da bilakabide hori, eta ez aldaketarik ezizat,

³² Ez dakit zer puntura arte behar duen honek ere bere azalpena. Izan ere, (aitzin)euskara garai batean CVC monosilabiko isolatzaile egitura bazuen, ez dago hitz barruko kontsonanteetarako lekurik —garai zahar-zaharretan bederen—. Kontsonante horiek hitz-hasierako *lenisetatik* etorri beharko lukete eta, itxuraz, hitz-hasierako fonologikoki *lenisak* fonetikoki ahoskabeak ziren (Martinet 1950, Egurtzegi 2019). Iruditzen zait *lenisetatik* datozen hitz-barruko ahostunak bi modutara interpreta daitezkeela: a) hitz-hasierako *lenisak* ahostundu ondoren gramatikalizatu ziren atzizkiak; edo b) ahostuntzeak *lenis* guztiei eragin ziela, hitz-hasieran zein barruan egon; bestela esanda, *lenisak* —guztiak— fonetikoki ahoskabeak ziren eta, AEtik EBZra *ahotsa hasteko denbora* (ingelesez, *Voice Onset Time, VOT*) murriztuz, fonetikoki ahostun bilakatu ziren. Nik bigarrenaren alde egingo nuke, fortis / lenis sistema fonologikoa iraupenaren arabera homogeneoagoa egingo lukeelako. Hala ere, uste dut gaia fonetikoki zer zehaztasunez ezagutu dezakegun ikusteko dagoela. Izan ere, Jaeger-en (1983) arabera, fortis/lenis oposizioko hizkuntzetan iraupena esanguratsuagoa da VOT baino.

³³ Rohlfesen (1977: §449) arabera, *n* eta *l* ondokoak ez ezik, dardarkari ondokoak ere ahostundu ziren gaskoieraz. Hala ere, Rohlfsek adibide bakarra baino ez dakar: lat. *sortem* > arag. *suarde* —Saroïhandyk (1913) dakarren berbera—. Adibidea, gainera, aragoierazkoa da, ez gaskoieraren muin-muinekoa eta, beraz, *n* eta *l* ondoko ahostuntzearekin parekatzeak arriskutsua ematen du —cf. lan honetan, 36. oin-oharra—.

jatorriz ahostunak zirenak ere ahoskabetu zirelako: lat. *caldariam* > gask. *caudèro* & *cautèro*; lat. *linguam* > gask. *lengo* & *lenco* (Rohlf 1977: 139).

Datazioari dagokionez, Guiteren (1989: 800) kronologia saioan, *mp* > *mb* III. mendearen erdialdean gertatu zen, eta *nt* > *nd*, IV. mendearen lehen erdian. Gaskoierarako, horrenbesteko zehaztasunik gabe, baina 600. urterako gertaturik zeudela ondorioztatzen dute Chambonek & Greubek (2002: 490). Lakarraren (2011 [2014]: 216-217) arabera, EkEZ bereizirik legoke ahostuntze horiek gertatu zirenerako eta, beraz, III-IV. mendea baino lehen bereiziko litzateke gainerako euskal eremutik. Hain zuzen hor ikusten dut arazoa.

Zaharrak ahostunak badira eta berritzailea EkEZ bada, berrikuntza egoera komunaren ondorengoa da, hots, III-IV. mendeen ondorengoa, eta ez horren aurrekoa. Hortaz, noizko berrikuntza den da argitu beharreko galdera. Ene ustez, ez pentsatu izan den bezain zaharra, eta bi motatako argudioak ikusten ditut hori pentsatzeko: hizkuntz ukipenekoak eta, beraz euskaraz kanpokoak, eta euskara barne-barnekoak.

Esan bezala, ekialdeko euskarak eta gaskoiera-bearnesak hartu-eman sakona izan dute eta, gaskoieraren barruan, gutxien-gutxienez Zuberoa-Erronkarirekin mugan dauden Aspe eta Baretetze eremuetan izan da bearnesera gordetzailen, baita Aragoi Pirinioetatik gertuen dauden haranetan ere (Saroïhandy 1913; Rohlf 1977). Haran horiek Zuberoaren hego-ekialdean eta Erronkariren (ipar-)ekialdean daude eta han eutsi zaie hobekien bokalarteko herskari ahoskabeei, nahiz eta garai batean hedatuago zeuden (Rohlf 1977: §445); forma hiperzuzenduak eremu zabal batean lekukotzeak erakusten du garai bateko hedadura zabalagoa. Halaber, oso esanguratsua da eremu horretan bertan gorde direla hobekien ozen (*n*, *l*, *r*) ondoko herskari ahostunduak (Rohlf 1977: §449).

Ematen duenez, “l’influence de l’ancien substrat indigène”arengatik (Rohlf 1977: §451; iritzi berekoa da Saroïhandy 1913), hots, euskal substratuagatik, mantendu ziren latineko bokalarteko ahoskabeak bere horretan eta ahostundu ziren *n* eta *l* (eta dardarkari) ondorengoak gaskoieraz. Ondoren, baina, ukipenaz, ipar-ekialderagoko erromantzeekin berdinduz joan da gaskoiera eta euskal lurraldeetatik gertuen dauden eremuetan baino ez zaie eutsi gaskoierazko ahoskera zaharrei (Saroïhandy 1913). Gorago aipatu hiperzuzenketa okzitanierarekiko berdintze(-nahi) horren ondorioztat hartu behar da nire ustez.

Jakina, aukera bat izan daiteke hiperzuzenketa oraindik ere substratua zen euskal mintzoen eragina izatea; hau da, Euskal Herriko ekialdeko mintzoak jada *n* eta *l* ondoren ahoskabeak garatzen ibiltzea —edo hiperzuzenketaz garatzea— eta gaskoierara igarotzea. Hala ere, ez dut uste hala denik. Batetik, hiperzuzenketaren adibideak Zuberoa eta haren ingurutik nahiko urrun ere lekukotzen dira, hala nola Baionan eta Bigorran (Baldinger 1958b). Beharbada urrunegi ere bada Euskal Herriko ekialdeak han eragina zuela pentsatzeko, Lapurdin eta

Nafarroetan eraginik izan gabe; are gutxiago, gaskoierak ekialdeko muturretik harago Iparraldeko euskara osoan eragina izan duenean (Padilla-Moyano 2017), baita Nafarroa Garaiko euskararen ere, eta Zuberoa eta Erronkarirekin egiten duten inguru erromantzatuetan oraindik ere ahostunari eutsi bazaio.

Beste bi argudioak askoz apalagoak dira, ebidentziarik ezan oinarritzen direlako neurri handi batean. Batetik, ez dut ekialdean hiperzuzenketaren adibiderik aurkitu, baina, jakina, hango lekukotasunak nahiko modernoak dira eta, beraz, garai bateko forma hiperzuzenduak gaskoierazko moldera egokitu zitezkeen, arrastorik utzi gabe. Bestetik, aurkitu ditudan gaskoierazko adibideak XIII. mendeaz geroztikoak dira (Baldinger 1958b), baina ez dakit zergatik den, aurretik ez direlako dokumentatzen edo aurretik dokumentaziorik ez dagoe-lako.³⁴

Aldiz, uste dut zuberera-erronkarieraz *n* eta *l* ondoko ahoskabeak (horren) zaharrak izan balira —IV. mendekoak?—, handia izango litzatekeela inguruko gainerako euskal hizkeren eta bearnesaren eraginez ahostuntzeko aukera, edo, alderantziz, Aspe eta Baretetzen errazago sartuko liratekeela ahoskabeak gaur egun iraun duten ahostunen lekuan. Biak batera ikusirik, Bearnoko inguru horretan latineko bokalarteko ahoskabeei eta *n* eta *l* ondoko ahostunei eusten lagunduko luke ekialdeko euskararekin harremanak eta, berriki baino ez, ipar-ekialde(rago)tik letorkeen presioak eragingo luke ekialdeko euskararen *n* eta *l* ondoko ahoskabeak garatzea. Saroïhandy (1913: 495) ere uste horretakoa da, Uhlenbecki jarraituz: “le souletin a remplacé la sonore primitive par la sourde, et l'on est à peu près obligé d'admettre que ce changement s'est fait sous l'influence des parlers de la Plaine béarnaise”.

Gauzak horrela interpretaturik, oso garrantzitsua ematen du hiperzuzenketa denboran kokatzeak, ekialdeko berrikuntza datatzen lagun dezakeelakoan. Zinez saiatu naiz hiperzuzenketaren data bilatzen, baina ez dut inon aurkitu, nahiz eta hiperzuzenketa hamaika lanetan aipatu. Corominesen (1972: 311) “la habitual ultracorrección bearnesa” hitzen kidekoak aurki daitezke Baldingeren (1958a, 1958b), Rohlfesen (1977), Allièresen (1995) edo Chambon & Greuben (2002) lanetan; hiperzuzenketa horren datazio(-saiakera)rik, tamalez, ez.³⁵

³⁴ Eskerrak eman nahi dizkiot Asier Gonzalez Baldinger (1958b) eta Allièresen (1995) lanak Konstantzako Unibertsitatean bilatu, eskaneatu eta bidaltzeko hartutako lanagatik.

³⁵ Jean-Pierre Chambonekin harremanetan jarri nintzen, berak dataziorik ezagutzen ote zuen galdetzeko. Oso galdera interesgarria iritzi zion, baina ez zuen horrelako lanik ezagutzen eta Thomas Field eta Jean-Louis Massourerengana bidali ninduen. Horiek ere Chambonekin bat egin zuten: auzia interesgarria bazen ere, ez zuten saiakerarik ezagutzen. Eskerrak bihoazkie hirurei, nire mezu eta galderak gogo onez eta adeitasunez erantzuteagatik.

Inbasio bisigotiko germaniarren ondorengoa izan behar du —edo ondoren indarrean jarraitu behar du, behintzat—, mailegu germaniar batzuetan ere *nd > nt* gertatzen delako (Ronjat 1930-1941: §339, *apud* Chambon & Greub 2002: 479, 25. oin-oharra). Beraz, *post quem* 418 da, mailegua inbasio bisigotikokoa bada; frankoen inbasiokoa bada, are beranduagokoa litzateke. *Ante quem* ere finka daiteke, hiperzuzenketak *l > u* bokalizazioaren aurrekoa izan behar duelako; itxuraz, *Pal > Pau* XII. menderako dokumentatzen da (Rohlf 1977: 152), baina Baldingerek (1958b: § 6) dakartzan datu apurrak horren ondorengoak dira; adibidez, *lonque* (< lat. *longus*) 1273?, *alincar* (< lat. *elongare*) 1273?; *carca* (< lat. *carricare*)³⁶ 1270. Baldingerena da, dakidalarik, gaskoieraz gertatutako hiperzuzenketa guztiei eskainitako lanik osoena, eta hor ere ez dut datazio-proposamenik aurkitu. Hori dela eta, finkatu dudan denbora tartearekin jarraitu behar dugu.

Tarte horretan, ordea, 600 bat urte doaz gutxienez.³⁷ Gainera, denbora-tarte hori ez da nolana hiko, horren barruan MEZ banatzen (hasten) delako eta, beraz, eragina izan dezakeelako. Izan ere, ekialdeko *n* eta *l* ondoko ahoskabeak IV. mendekoak ez, baina VII-VIII. mendeen ingurukoak badira, ekialdeko berrikuntza lehena izaten jarraituko luke. Aukera hori guztiz baztergarria ez bada ere, datu gehiago agertzen ez den bitartean, iruditzen zait dokumentatzen diren garaitik XIII. hasieratik gertuago egon daitezkeela, garai horretan gaskoieraz forma hiperzuzenduak agertzen direlako, eta ez gainerako erromantzeekin berdindutakoak.

Zuzen banabil eta ekialdeko *n* eta *l* ondoko ahoskabeak gaskoieraren prozesu analogoarekin lotuz gero, jada (ekialdeko) euskararen zeuden latin-erromantzeetako maileguetan egokituko lirateke *n* eta *l* ondoren ahoskabeak lehenik. Berez, gaskoieraren bilakabideak egokitze hori gerta daitekeela erakusten du, okzitanierarekin berdindu baitziren, eta euskal eremuan ere gertatu zela pentsatzeko aukera ematen du.

Bestalde, euskararen barruan antzeko egokitze-prozesuak ere aurki daitezke. Adibidez, Egurtzegik (prestatzen) antzeko prozesu bat ikusten du Goizuetako euskararen gertatu diren zenbait azentu-aldaketatan: “ez dirudi pentsaezina mailegu zaharrak diren baina egungo gazteleraizko hitzen antza duten mailegu zenbaiten azentu klaseen arteko migrazio bat

³⁶ Azken horrek zalantzarriagoa ematen du, jatorrizko latinezkoak *c* ahoskabea zuelako eta, beraz, bokal-galarekin nahikoa izan liteke: *carrica > carca*. Bestela, baldin eta gaskoieraz latineko bokalarteko herskari ahoskabeak bere horretan mantendu badira, honelako segida bat beharko genuke: *carrica(re) > aitzin-gask. *carga > carca*. Tarteko egoera ez dago lekukoturik eta, 33. oin-oharrean esan bezala, Rohlfsek dardarkari ondoko ahostuntzearen adibide bakarra dakar eta aragoierazkoa da: lat. *sorten > arag. suarde*.

³⁷ Hiperzuzenketa Rohlfsek (1977: §451) aipatzen duen moduan prestigioagatik gertatu bazen, horrek gizarte-baldintza jakin batzuk eskatzen ditu, gaskoiak okzitaniarren mende egotea alegia —kulturalki bederen (eta beraz ekonomikoki?)—, eta horregatik ez dut uste hori oso garai zaharretan gerta zitekeenik.

gertatu izana —1. eta 2. klasetik 3. eta 4. klaseetara, hurrenez hurren (adibidez, *eskóla, *árima > *eskòla, àrima*)”.

Kidekoa ere izan daiteke, beharbada, hortzarteko igurzariaren (/θ/) sarrera euskal jatorriko abizenetan, erdal ahoskeratik: eus. Iturriotz > gaz. *Iturrioθ* >> eus. *Iturrioθ*. Sudurkari eta albokari ondoko ahoskabeetara itzulirik, maileguen egokitze horren ondoren, murriztapen fonotaktikoa desagertuko litzateke eta euskal morfemen aldaera ahoskabeak oinarrizko morfematzat hartu eta heda zitezkeen testuinguru horietan.

Hala ere, kasu honetan morfologizatutako morfemez ari gara eta, beraz, horrek ere izan lezake, bere aldetik, murriztapen fonotaktikoa gainditzeko indarra. Hau da, behin aurreko txistukari baten eraginez ahoskabea duen morfema oinarrizko formatzat jo eta paradigma osora heda liteke, beharbada, murriztapen fonotaktikoa desagerraraziz.

Nolanahi ere den, euskal ondarekoak berranalizatzeko eta analogiaz beste testuinguruetara hedatzeko informazioa eskuragarri dago, baita gaur egun ere; hau da, gardenak dira. Adibidez, ekialdeko euskaran izen-morfologian agertzen diren *n* eta *l* ondoko ahoskabeak, neurri batean, baita itxarongarriak ere badira, han-hemen, Euskal Herri osoan agertzen direlako, nahiz eta oro har (oso) modernoak izan. Informazioa eskura egoteak, berez, datazio edo kronologia arazo bat ekar dezake berekin, informazioa eskura egonik, benetako lekukotasunik ezean ez daukagulako noiz gertatu diren argudiatzeko modu handirik.

Aipatu bezala, herskari ahoskabea duen alomorfoa oinarrizkotzat jo eta aurretik alomorfo ahostuna zuten testuinguruetara heda zitezkeen, *n* eta *l* ondoren herskariak izateko muga fonotaktikoa gaindituz, baina uste dut maileguen bidez murriztapen fonotaktikoa gainditzeak edo ahultzeak prozesua errazagoa egiten duela eta hori dela azalpenik errazena. Beharbada, maileguen azterketa sakonak euskaran zer datatan sartu ziren ezar lezake eta, horrekin, murriztapena noiz desagertu zan jakin liteke. Izan ere, behin murriztapen fonotaktikoa gainditurik, lehenik maileguen bidez desagertu edo, zuzenean, ahoskabea zuten morfemak oinarrizkotzat jo eta beste testuinguruetara zabalduta ere, esperatzekoa litzateke mailegu berriak erdal konfigurazioari eustea, eta *n* eta *l* ondoko erdal herskari ahoskabeei eustea, eta ez ahostunekin ordezkatzea.

Euskal Herrian han hemen aurki daitezkeen *n* eta *l* ondoko ahoskabeetara itzuliz, OEHren arabera, *hementik* dago Orozkon eta Ultzaman gutxienez.³⁸ Gonzalezek (2020) ez du horren adibiderik aurkitu, baina Bedian (*h*)*emenko* agertzen da behin (Etxeberria Ayesta 2016: 438, *apud* Gonzalez 2020: 110). Bizkaiko ipar-sartaldean, halaber, *-n* eta *-l* hotsez amaitutako

³⁸ Eskerrak eman nahi dizkiet datu horiek egiaztatzeko OEHko iturria bilatzen lagundu zidaten Blanca Urgell, Ricardo Gómez-López, Borja Ariztimuño eta Eneko Zuloagari.

aditzetan, predikatiboa *-ta* da, eta ez kide ahostuna (Zuazo 2017: 106); besteren artean, Getxoko adibideok ematen ditu Zuazok (2017: 106): *ilte* ‘hilda, hilik’, *emónta* ‘emanda, emanik’, *yánta* ‘janda, janik’.³⁹ Forma analogiko horiek guztiak oso modernoak izan behar dira, besterik ez bada predikatiboa *-ta* delako, eta ez *-(r)ik*, baina ekialdean ikusten dugun fenomeno beraren kidetzat har daitezke. Antzera, Nafarroa Garai erdialdean geroaldiko *-ko* morfema aurretik geroaldian *-en* morfemaren bidez egiten zuten testuingurutara hedatu da, hau da, *-n* eta *-l* bukatzen diren aditzetara: *etorriko*, *eginen*, *izanen* >> *etorriko*, *eginko*, *izanko*. (Camino 2003a: 453-454, §13.4; Camino 2003b: 87, §6.5.8).⁴⁰

Horrekin ez dut esan nahi ekialdeko *hementik* edo *hemenko* aipatu ditudan forma analogiko berri horiek bezain modernoak direnik, baizik eta beharbada ez direla pentsatu izan den bezain zaharrak, euskara historikoan antzeko prozesuak gertatzen ikus ditzakegulako —guztiak erdarekin harreman handiko inguruetan?—. Beharbada Etxart-Ros gutuneriak ere hori pentsatzen laguntzen gaitu. Gutun horietan *n* eta *l* ondoko herskari ahoskabeak ez dira ekialdeko muturrean beranduxeago diren beste. Adibidez, *hemenguo* (Etxart 1616-06-13) *gendec* (1606-07-26), *nongo* (Ros 1616-08-19) eta *emendi* (Ros 1616-11-30). Ahoskabeen berritasunaren aldeko ebidentziatako har badaitezke ere, kontuz hartu eta aztertu behar direla irizten diet. Izan ere, ahostuna dutenekin batera, ahoskabea dutenak ere badaude, batzuetan forma berean ere: *hementic* (Etxart 1616-06-13), *genteac* (Ros 1616-07-26), *gente* (x2; Ros 1616-12-13), *genten* (Ros 1616-12-13). *Gente*, ordea, mailegua da, jatorrian ahoskabea du eta, beraz, ez da euskal ondarekoak bezain esanguratsua; alde horretatik, *gendec* ere lekukotzea esanguratsua izan daiteke, erromantzekoa ez den *-nd-* duelako.

Bestalde, begiratu beharreko beste alderdietako bat ahoskabearen aldeko joeraren sistematikotasuna da, badaudelako ahoskabea eta ahostuna duten adibideak. Esaterako, *altere*kin batera, *alde* ere aurki daiteke Zuberoan. Belapeirek *alde* darabil, eta ez *alte* (Camino 2011 [2014]: §4.1.2.6), eta Belapeirerena lekukotasunik zaharrenetako bat da. Toponimian ere, biak aurki daitezke; adibidez, *elizalde* eta *elizalte* (Orpustan 2019: 151). Berdin, toponimo bera bi eratara idatzita aurki daiteke: *Uhalde* / *Uhalte* Altzürükun (Orpustan 2019: 305), *Uhalde* / *duhaut* (gaskoitua) Atharratzen (2019: 311). Beharbada ez dira hizkuntzan bizi-bizirik dauden (izen-)morfologiako morfemak bezain gardenak eta, beraz, ebakitzen eta analogiaz hedatzen errazak, baina bi azalpen posible ikusten ditut: a) gaskoierak dakarren hiperezketak eragin zezakeen ahostunak ahoskabetzea; b) toponimian oso ugaria den *artek* ere —aditz-izenetan hedatzen ari zen *-terekin* batera?— ahoskabea analogikoki

³⁹ Informazio horren berri Asier Gonzalez esker izan nuen lehenik eta Azler Garciak ere iritsarazi zidan.

⁴⁰ Lana prestatu ondoren, Urgellen (2006) lana berriz irakurtzen, nago horren lehen adibidea aditz-izenetako *-te* ez ote den, Euskal Herri osoan ahoskabea duena; beharbada, *galde* (< * *gal-de*) bezalako fosiletan gorde da ahostun zaharra —cf. Mitxelena (FHV) eta Lakarra (2016)—.

hedatzen lagun zezakeen. Nolanahi ere den, ene ustetan, lan handia dago toponimoak mapan kokatzen eta toponimo bakoitzaren bilakabidea (dokumentazioak uzten duen neurrian) ikertzen —horren eta oro har ekialdeko *n* eta *l* ondoko ahostunen eta ahoskabeen inguruan, ikusi Urrestarazu-Porta (prestatzen-2)—.

Orain artekoa laburbilduz, hasiera batean, gaskoieraz ere, euskal substratua zela eta mantenduko lirateke lat. T / V_V , eta ahostunduko ozen ondoko ahoskabeak ($T > D / n, m, l, r_$). Hori guztia VII. mende aurrekoa litzateke euskaraz (Lakarra 2011 [2014]) eta gaskoieraz (Chambon & Greub 2002); Rohlfen (1977) arabera III-IV. mendeetako litzateke. Ondoren, gaskoiera inguruko erromantzeetara hurbilduko litzateke: bokalarteko ahostunak bere egingo lituzke eta ozen eta dardarkari ondoko ahoskabeak ere hartuz joango litzateke. Egokitze horretan hiperzuzenketak gertatuko lirateke. Dena den, inguruko erromantzeekiko berdintzea ez zen bat-batekoa eta aldi berekoa izan eremu osoan, baizik eta iparraldetik eta ipar-ekialdetik hegoaldera hedatuz joan zen.⁴¹ Azkenik, Zuberoara eta inguruetara igaro zitekeen, maileguetan lehenik eta euskal ondareko morfemetan ondoren. Honela laburbilduko litzateke:

1. AE? - v. mendea Akitania osoan:

lat. T / V_V gorde

D / V_V ; $n, m, l, r_$

(* $D >$) $T / S_$

2. 411. urtearen eta XII. mendearen artean, finkatu gabeko uneren batetik aurrera:

Gaskoieraz, (ipar-)ekialdetik hego-mendebaldera, okzitanieraren eraginez:

occ. D / V_V >> gask. D / V_V .

$D > T / n, m, l, r_$ (hiperzuzenketa) >> okzitanierarekin berdintzea.

3. Gaskoiera erromantzeekin nahikoa berdindu ondoren, EkEZ:

Jatorriz latineko maileguak zirenetan: $D >> T / n, m, l, r?$). Horrek murriztapen fonotaktikoa hautsiko luke.


4. Aurrekoaren ondoren:

⁴¹ Aztertzeke gelditzen da uhin-moduan edo hierarkikoki gertatu zen; hala ere, hiperzuzenketa “rustiques et vulgaires”tako jotzen ziren formak saihesteko gertatu bazen (Rohlfen 1977: §451), aukera handiak daude hierarkikoa izateko. Hau da, goi-mailako gizarteak Gaskonia kanpoko ereduak imitatuz hasiko litzateke, Gaskoniako gune garrantzitsuetan, eta hortik maila apalagoko gizartera eta inguruko gune demografiko-ekonomiko ez hain garrantzitsuetara.


Euskal morfemetan txistukari ondoren sortutako alomorfo ahoskabe-duna oinarritzko morfematzat joko litzateke eta gainerako testuinguruetara hedatuko litzateke: $D \gg T/n, m, l$.

Nolanahi ere den, n eta l ondoko herskari ahoskabeak noizkoak diren gorabehera, lehen haustura ekialdean sortu zen hipotesiak bi oztopo dauzka, nahiz eta gaindiezinak ez diren. Batetik, beste hipotesian, itxuraz, ErEkeZ berreraiki daiteke —lan honetan, §3.3.3n—. Lehen haustura ekialdean sortu zen hipotesian, ordean, ez du ematen MErEZ berreraiki daitekeenik, nahiz eta horrek gutxienez bi azalpen izan ditzakeen. Batetik, orain arte berreraiki ez izana izan daiteke benetan ErEkeZ existitu zelako, eta ez MErEZ; baina ikertzailearen hutsa ere izan daiteke, horretan asmatu ez duelako —alde horretatik, ikertzailearen hutsa eta ikertzailearen arazoa, eta ez errealitate historikoarena litzateke—, hizkuntzan gordetako informazioa erabiltzeko gauza ez delako edo, hizkuntza aldatu ahala, lan hori egiteko informazioa estalirik gelditu delako —edo horretan ez delako nahikoa saiakerarik egin—.

Bestetik, izan liteke EkeZ bereizi horren denbora gutxi igaro izana, MErEZ berezko hizkuntz ezaugarriak garatzeko; hori, zuhaitzean, banaketa hirutar bezala irudikatuko litzateke, eta ez bitar moduan, baina, gorago esan bezala —lan honetan §1.2—, optimoak banaketa bitarrak dira. Are gehiago, zuhaitz hirutarrak proposatzen direnean gaia behar beste ikertu ez den seinale izaten da. Bestetik, izan liteke EkeZ lehenik bereizi eta ondoren EkeZren eta ErEZren artean konbergentzia aldi batek mintzoak berdindu izana. Edozein kasutan, bigarren aukera horrek konplexutasun handiagoa dakar berekin, uneren batean erdialdeko eta ekialdeko mintzoen artean konbergentzia prozesu bat egongo litzatekeelako. Hona hemen aipatu berri ditudan aukeren zuhaitz-diagramak:



10. irudia: EBZren haustura mendebaldean, baina ondoren ErEZren eta EkeZren arteko berdintzea



11. irudia: EBZren haustura hirutarra

Bistan denez, 10. eta 11. irudiak gorago aurkeztutako bi aukeren zuhaitzarekin alderatuz gero —lehen haustura ekialdean 7. irudia, eta lehen haustura mendebaldean, 8. irudia—, konplexuagoak dira eta, posible badira ere, aldeko ebidentzia handiagoa izan beharko lukete ontzat jotzeko.

3.3.3. Atzera ere lehen haustura mendebaldean?

Aurreko ataletan, EBZren hausturaz egin diren lan nagusiak iruzkindu ditut. Batetik, erakutsi dut lehen haustura mendebaldean gertatu zela dioen hipotesia ez dela behar den zuhur eta zurruntasun metodologikoaz ikertu. Horretan, oso bestelakoa da lehen haustura ekialdean dioen hipotesiari nola eutsi zaion. Aldiz, hipotesi horrek izan ditzakeen kronologia-arazoak azaleratu ditut eta argudiatu dut uste baino nahiko modernoagoa izan daitekeela.

Beharbada saihetsak definitzea eta ikertzea errazagoa denez, MEZ nahikoa definiturik eta azterturik dago, batez ere Zuloagaren (2020a) tesi-lanaren ondoren. Hori, ordea, hipotesiaren aldeko ebidentziaren zati bat baino ez da eta, are, zati *erraza* da. Izan ere, lehen haustura mendebaldean zein ekialdean izan, lehen hausturak saihetsetan izango dira, bataren eta bestearen arteko ordena edozein dela ere. Horregatik, saihetsetako dialekto zaharrak definitzeaz harago, gainerakoak osatuko lukeen dialekto zaharra —ErEkEZ edo MErEZ— berreraikitzea funtsezkoa da. Ikus dezagun, bada, ErEkEZ berreraikitzeke zer ebidentzia bil daitekeen.

3.3.3.1. Hasperena

Euskara historikoan ditugun lekukotasunetan, euskal hasperenak tradizio indoeuroparrean *Grassmannen legea* (Grassmann 1863) deitzen den hots-aldaketa jasan ondorengo egoera

batean aurkitzen dugu.⁴² Hots-aldaketa horretan, hitz berean bi hasperen daudenean, lehena galdu egiten da: $h_1-h_2 > \emptyset-h_2$; adibidez, *hil + herri > ilherri*. —(euskarazko) Grassmannen legearen atzean egon daitezkeen arrazoi fonetiko-fonologikoetarako, ikusi Egurtzegi (2019)—. Grassmannen legea, bestalde, bigarren silabako azentuarekin lotu izan da (Mitxelena FHV: 406; Egurtzegi & Elordieta 2013: 175-176; Hualde prestatzen) —beherago itzuliko naiz azentuarearen gaira— eta azentuera hori eta ondoriozko Grassmannen legea lirateke hasperen historikoaren egoeraren erantzuleak: hasperen bakarra lexemako eta hasperen hori lexemaren lehen edo bigarren silaban baino ez; vs. akitanieraz eta mendebaldean Erdi Aroan aurkitzen dugun egoera: hainbat hasperen hitzeko eta bigarren silabatik aurrera (Mitxelena FHV: §11.8, §11.11; Ariztimuño 2011).

Aipatu izan da (Mitxelena FHV: 211-212, 215; Reguero-Ugarte 2012b: 118) euskara historikoko hasperenari eragiten dizkioten bi murriztapen horiek, lexemako hasperen bakarra eta bigarren silabatik hasperenik eza, *berandura* arte (XIV. mendera arte bederen) iraun zeza-ketela. Baieztapen horri, aldiz, galdera bat egin behar zaio hasteko: non? Izan ere, hasperen bat baino gehiago duten adibideak mendebaldekoak dira oro har, non egoera zaharra leku-kotzen den Erdi Aroan ere, hala nola: *Hurizahar*, *Harhazua* (Araba, 1025) eta *Olhabeeçahar* (Elorrio, 1013) (Reguero-Ugarte 2012b: 118) edo *Hagurahin*, *Harhaia*, *Hereinzguhin* eta *Bahaheztu* (Mitxelena FHV: 211, 17. oin-oharra).

Esaten badugu mendebaldean egoera gordetzailea zela, eta ekialdean, aldiz, berritzailea eremu bakoitzean egoerak noiz arte iraun duen finkatu beharko genuke —cf. Egurtzegi 2014: §4.3, gutxienez—. Beharbada, mendebaldean XIV. mendera arte iraun zuen egoera zaharrak eta zuzenean desagertu zen: /h/ > \emptyset . Ekialdean, ordea, “hitz bat - hasperen bat” murriztapena indarrean aurretik zegoela pentsatu behar dugula uste dut. Horren alde joan daitezke Egurtzegik (2014: §4.3.2) ematen dituen zenbait adibide; XII. mendean, Baionan (<f> = /h/): *Fondarraga* (< **Hondarhaga*; XIX. mendean *Hondarraga*), *Ferriete* (< **Harriheta*; XIX. mendean *Harrieta*) eta *Ferriague* (< **Harrihaga*; XIX. mendean *Harriaga*).

Ez dut kontradibiderik aurkitu, eta, aurkituko bagenu ere, kontuz analizatu beharko litzateke-elakoan nago; adibidez, gorago aipatu ditudan mendebaldeko adibideak harturik, ez dut uste hirutik bik hitzeko bi hasperen baino gehiago daudela pentsatzeko lekuri uzten dutenik; esaterako, (*h*)*uri za(h)ar* bi lexema dira gaur ere eta, beraz, ez dago zertan lexema bakarra zirela pentsatu, nahiz eta guri hitz bakarrean idatzirik iritsi zaigun.

⁴² Ematen duenez, *Grassmannen lege* deitu ohi den $h_1-h_2 > \emptyset-h_2$ prozesua bitan gertatu da: behin akitanieraren garaian, III. menderako burututakoa (cf. *otso* < **hoh-so* < **hor-so*); eta bigarrena, aipatzen ari garen azentu-aldaketak eragindakoa eta, itxuraz, mendebaldean eragin ez zuena (Ariztimuño 2011: §4.1; eta, haren bidetik, Lakarra 2015: 359, 21. oin-oharra).

Izan ere, euskaraz, dakigularik, idazteko ohiturarik ez zegoen garai batean —ez ohiturarik ezta eredurik ere— toponimo bat hitz bakarrean idaztea eta orduko euskaldunendako hitz bakarra —lexema bakarra— zirela pentsatzeari oso arriskutsua irizten diot, are gehiago osagaiak oso argi bereiz ditzakegunean.⁴³ Hori da, hain zuen, bigarren silabatik aurrera ere hasperena ageri izan dela esateko erabili diren ekialdeko zenbait adibideren inguruan esan daitekeena. *Irigoyhen* eta *Echeçahar* (XIV-XV. mendekoak) bezalakoak aipatzen dira (Ciervide & Santano 1989 *apud* Reguero-Ugarte 2012b: 118). Bigarren silabako hasperenaren adibidetzat har daitezke, ordea, toponimook ezagutzen ditugun lexemetan bereizten baditugu: “(h)iri + goihen” eta “etxe + zahar” (cf. *Gastehiz* edo *Hagurahin*).

Ideia horien guztien argitan, are garrantzitsuagoa ematen du hasperenak Nafarroa Garaian izan duen bilakabidea berrikustea, berrikusi eta sakonago ezagut badaiteke behintzat. Ikuspegi tradizionallean (Mitxelena FHV: §11.3.), hasperena Nafarroa Garaian hasi zen galtzen, XI. menderako galera buruturik zegoen, eta hortik mendebaldera hedatu zen (Reguero-Ugarte 2012a). Dagoeneko ikusi da, aldiz, XIII. mendetik aurrera ere hasperenak ageri direla Nafarroa Garaian (Reguero-Ugarte 2012b, 2013b), gehienak erakusleetaoak diren arren, eta Manterolak (2015: 506 eta hurrengoak) baita XVII. mendean ere aurkitu du, besteak beste Beriainen lanetan —nahiz eta Beriainenak, oro har, erakusleetaoak izan eta, beharbada, kontu handiz tratatu behar diren—. Reguero-Ugartek (2019: 404-405), halaber, XVII. mendera arte gutxika desagertzen eta saihetsetan irauten doan ezaugarritzat dauka. Nik, Salaberri-Zaratiegirekin (2018: 323-324) bat, gaiak azterketa sakona behar duela uste dut: lekukotasun guztiak bildu, garaia eta geografiaren arabera antolatu eta hortik zer atera daitekeen ikusi. Izan ere, gorago ikusi dugun moduan (§1.2.2.3), berrikuntza negatiboa izanik ez du filiaziorako balio.

Grassmannen legea, aldiz, berrikuntza positibotzat joko nuke, ez delako hasperenaren galera hutsa ($h > \emptyset$), baizik eta baldintza jakin batzuetan gertatzen den galera ($h_1 - h_2 > \emptyset - h_2$), eta, ematen duenez, azentuaren aldaketaren ondorio izan liteke.⁴⁴ Horregatik, Nafarroa Garaian desagertu aurretik hasperenak zer egoera zuen ezagutzea funtsezkoa da, azentuera-aldaketa ErEkEZrekin lotu eta lehen haustura mendebaldean gertatu zela dioen hipotesia indartzeko balio dezakeelako.

⁴³ Mitxelenak (FHV: 175) antzeko ideia bat iradokitzen du zenbait salbuespen azaltzeko: “Las excepciones, poco numerosas, se explican o porque los componentes no han llegado a perder su autonomía hasta el punto de constituir un verdadero compuesto (...)”. Ariztimuño (2011: 82) ere bide berean mintzatu da: “AEz zein Erdi Aroko euskara zaharraz (orobat cf. *Reja de San Millan* delakoaz, TAV) esan ohi den hitzeko *h*-murriztapen ezaz hausnartzera garamatza zeren ez dugun, beharbada, hitz batean bi hasperen, baizik eta morfema garden eta konposizioan diren hitz autonomo bana”.

⁴⁴ Beharbada, oinarritzat sintagma zuen azentuera batetik oinarritzat hitza zuen batera igarotzeari zorko litzaioke Grassmannen legea (Egurtzegi & Elordieta prestatzen: §3.2; Egurtzegi prestatzen: §4.2) —cf. Igartua (2001)—.

Gainera, hasperenak badu abantaila bat, landuko ditudan beste ezaugarriek ez dutena (adib. -ek ergatibo morfema edo aditz laguntzaileetako formak); hasperenak, ahoskatzen baziren, toponimian agertzea esperoko genuke, nahiz eta <f> bezala agertu, eta ez genuke perpausik edo testu luzeagorik beharko. Oraingoz adibide gutxi batzuk besterik ez ditut aurkitu, baina ez dute balio hasperenaren egoera zertan zen ikusteko. Esaterako, Iratxeko *Eleiçaeuehea* (XI. mendea; Reguero-Ugarte 2019: 404) toponimoan agertzen den lekuan agertzea besterik ezin da itxaron.

3.3.3.2. Azentu-aldaketa

Aurreko atalean esan bezala, euskara historikoan aurkitzen dugun hasperenaren banaketa Grassmannen legearen ondorio da eta argudiatu izan da Grassmannen legea bigarren silabako [+2] azentuera batek eragindakoa dela (Mitxelena FHV: 406; Egurtzegi & Elordieta 2013: 175-176; Hualde prestatzen). Bestalde, aspalditik eztabaidatu da (aitzin-)euskarak zer nolako azentuera zuen, nola aldatu den eta zein den zein baino zaharragoa (Martinet 1955, 1981; Mitxelena 1958a, 1972, FHV; Hualde 1995, 2003, 2007, prestatzen; Martinez-Areta 2004; Elordieta 2011; Egurtzegi & Elordieta 2013, prestatzen; Egurtzegi prestatzen). Gainera, esango nuke azken urteotan gaia gehien landu duten egileak (Hualde, Egurtzegi eta Elordieta) oro har bat datozela, xehetasun fonetiko-fonologikoak gorabehera, eta lan honetarako interesekoak diren gaietan ados daudela.


Egurtzegi & Elordietak (2013: 164-166) egungo euskaran hiru azentuera bereizten dituzte: Bizkaiko iparraldekoa, erdi-mendebaldekoa⁴⁵ (Bizkaiko hego-ekialdean, Gipuzkoa gehienez eta Nafarroako mendebaldean egiten dena) eta ekialdekoa (Zuberoko, Erronkari, Zaraitzu eta ingurukoa). Erdialdeaz, ordea, ez dute ezer esaten, nahiz eta, Hualdek (prestatzen) bezala, egun ekialdeko muturrean lekukotua garai batean hedatuago zegoela aipatzen duten. Horietan zaharretako Bizkaikoa dute, eta berrienetako, ekialdekoa.

Hualdek (prestatzen) eta Egurtzegi & Elordietak (prestatzen) bi aitzin-sistema proposatzen dituzte, Bizkaiko iparraldean lekukotutik eratorriak:⁴⁶ erdi-mendebaldekoa (*proto-Western-Central* Hualderenean) eta ekialdekoa (*proto-Eastern-Basque* Hualderenean). Lehena Bizkaian, Araban, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian Bidasoatik ezker egingo litzateke eta, bigarrena, ekialdekoa, Bidasoatik eskuin, Ipar Euskal Herri osoa barne. Mendebaldekoa, itxuraz, nahiko ongi doa MEZarekin eta, beharbada, ekialde zabal hori ErEkeZtzat har liteke.

⁴⁵ Hualderen (prestatzen) eta Egurtzegi & Elordietaren (prestatzen) erdialdea Zuazoren erdialdearekin egiten du bat, eta ez lan honetan darabildan Lapurdi, Nafarroa Behere eta Nafarroa Garai ingurua.

⁴⁶ Hualderen (prestatzen) arabera, Bizkaiko iparraldekoa EBZ sistema litzateke, baina beheranzko tonua galdurik. Egurtzegi & Elordietak (prestatzen) ez dute beheranzko tonuaren beharrik ikusten.

Hona hemen Egurtzegik & Elordietak (prestatzen: 30) dakarten azentueren bilakabidearen inguruko proposamenaren laburpena:



12. irudia: Euskal azentueren bilakabidea. Iturria: Egurtzegi & Elordietak prestatzen: 30.

Egileok bat datoz EBZk sintagma-mailako azentuera lukeela (Hualde 1955, 2003, 2007, prestatzen; Egurtzegi & Elordietak 2013, prestatzen). eta, hortik, [+2] azentuera sortuko litzateke, mendebal zabalean lekukotutako sistema sortuz. Nire ustez, ordea, hemen arazo bat dago, ez bilakabidearen azalpen fonetiko-fonologikoan, baizik eta bilakabidea geografiarekin gurutzatzean. Hasteko, ekialdekoa hortik eratortzen dute, baina ez dute aipatzen horretarako inguru horretan ere azentuera [+2] izan behar zela eta, beraz, lan horiek zuzen interpretatzen banabil, eremu osoan gertatuko litzateke [+2] azentuera, Bizkaiko iparraldean izan ezik. Bestetik, batetik, egile horiek guztiak, aurrekoek bezala, [+2] azentuera Grassmannen legearekin lotzen dute —Egurtzegi & Elordietaren (prestatzen) eta Egurtzezin (prestatzen) lanetan, azentu-aldaketarekin batera lexemek garrantzia fonologikoa hartu behar dute—, baina [+2] azentuera duten mendebaleko eremuan, ez zen Grassmannen legea gertatu.

Ez dakit nola interpretatu behar den hori guztia, baina, beharbada, honelako zeozer planteia liteke —uste edo susmotik harago joateko asmorik gabe bada ere—: [+2] berrikuntza erdi-ekialdean (ErEkEZn) gertatu zen eta horren ondorioz Grassmannen legea gertatu zen; horrek hasperen historikoaren egoera azalduko luke. Ondoren, mendebal zabalean erdi-ekialdeko [+2] azentuera hedatuko litzateke, baina Bizkaiko iparraldera iritsi gabe; bestalde, berrikuntza paraleloa ere izan liteke. Hala izan edo, ziurrenik, ez izan, azaltzeko dago zergatik ez duen hasperenak bilakabide bera printzipioz [+2] azentuera lukeen eremu osoan.

Hedadura eta bilakabidea zein izan den alde batera, azentueren bilakabideak kronologia erlatibo bat eratzen du EkEZren eta aurreko egoeraren artean. Izan ere, bigarren berrikuntza bat gertatuko litzateke: erdi-ekialdeko [+2] silaba-azentua berranalizatu eta [-2] bezala interpretatuko litzateke (Hualde, prestatzen; Egurtzegi & Elordietak 2013: 176tik aurrera, prestatzen), hiru silabako hitzetan sortuko litzatekeen anbiguotasunetik abiatutik. [-2] azentuera

hori izango EkEZk eta hortik etorriko lirateke, ñabardurak txikiekin, zuberera, erronkaria eta zaraitzua modernoetako azentuerak —cf. Mitxelena FHV—.

Are gehiago, berranalisia azentu-sistemaz kanpoko berrikuntzekin lotu izan da (Mitxelena FHV; Egurtzegi & Elordietak 2013, prestatzen; Hualde prestatzen): artikularekin. Izan ere, konposizioaren eta atzizkitzearen bidez sortutako hiru silabako hitzez harago, oso ugariak ziren eta diren bi silabako lexemei artikulua gehitzean hiru silabako hitzak sortzen dira eta hori da, hain zuzen, anbiguotasuna eta berranalisia eragin zituen testuingurua.

Horrez gain, ekialde murriztean [-1] azentuera ere aurkitzen da eta, horretarako, Egurtzegi & Elordietak (prestatzen) bearnesaren eragina proposatzen dute, azentuera hori baitu (Rohlf 1977), euskara barruko kontrakzioekin batera. Kontrakzio horiek 2. silabatik aurrera hasperena galtzeak sortutako diptongoak —eta bokal bilkurak— soiltzetik etorriko lirateke: 1. garaian (ErEkEZ), [+2] litzateke: *akhér, akhéra, alhába, alhábaa*. Ondoren, 2. garaian (EkEZ), azentua egokitzeko araua berranalizatu eta [-2] egingo litzateke: *ákher, akhéra, alhába, alhabáa*. 3. garaian, kontrakzioen, eratorpenaren eta beste prozesu batzuen ondorioz, [-2] eta [-1] izango litzateke: *ákher, akhéra, alhába, alhabá*.

Bukatzeko, Hualderen (prestatzen) proposamenean, erronkarierak hirugarren berrikuntza bat egingo luke, eskusiboa, berriagoa, [-2, -1]arekiko: beharbada hiato eta diptongoen silabizazio-aldaketa baten ondorioz, azentua berranalizatu eta analogia bidez hedatuko litzateke, baita kontsonantez bukatzen diren hitzetan ere. Hona hemen Hualdek dakarren adibidea:

Hots-aldaketa: *méndi, mendía > méndi, méndja*⁴⁷

Hedatze analogikoa: *gízon, gizóna > gízon, gízona*

Gauzak horrela, ematen du azentueraren bilakabideak EBZtik erronkarierara arteko berrikuntza-kate bat eratzeko balio dezakeela eta, bide horretan, ErEkEZ eta EkEZ defini ditzakeela. Egurtzegi & Elordietak (prestatzen: 30) honela mintzo dira aldaketaren norabideaz:

In addition, it is worth mentioning that, according to the relative chronology proposed in this paper, the new major kinds of accentuation were developed eastwards. According to these general isoglosses, the most archaizing phrase-level systems are maintained in the western varieties, while more recent patterns involving word-level accent developed in the central (+2) and eastern dialects (-2), the most recent major kind of accentuation being developed in the easternmost dialects of Basque.

Horrez gain, kronologiaren aldetik esanguratsuak izan daitezkeen bi ohar dakartzate Egurtzegi & Elordietak (prestatzen: 28). Batetik, esan bezala, bearnesaren azentuerekin lotzeak garaian kokatzen lagun dezake; hala ere, ez diote —datarik ez dutelako aurkitu?—

⁴⁷ Goranzko diptongo horiek Nafarroako hainbat lekutan gertatu dira, Erronkarin barne (Mitxelena FHV: §9.1; Hualde & Gaminde 1998).

bide hori ustiatzen. Bestetik, singularreko determinatzailea eta pluraleko determinatzailea gramatikalizatu artekoa litzateke EkEZko berrikuntza hori, leku-kasuetako -é-k azentua dutelako (-étan, -étako), baina ez erakusleen gramatikalizazioen ondorio diren kasuetako pluralek.

Gainera, azentu-sistema artikularekin loturik, euskararen bilakabide osoaren kronologia erlatibo-absolutuan hobekiago koka daiteke, eta ezin da oso zaharra izan: Zuloagaren (2020a: 683) arabera artikularen garapenak *post* eta *ante quem* datak ditu: *post* VIII. mendea eta *ante* XI.a, eta hortik azentuerak garatu, eta EkEZra iristeko zenbait berrikuntza behar dira. Bestalde, hori arazo bat izan daiteke datak asko atzeratzeak banaketak gertatu ondorengo garaietara eraman gaitzakeelako.

Laburbilduz, zuzen banabil, azentu-sistema arkaikoago bat gorde liteke mendebaldean — beharbada, MEZk gordetako beste arkaismo bateratzaile bat izan liteke, nahiz eta ondoren berrikuntza negatibo bat egin—. Erdialde-ekialdean fonologiako berrikuntza zahar, eksklusibo, berezi eta, beraz, esanguratsu bat izan genezake ErEkEZ definitzeko, gerora gainera beste aldaketa bateratzaile batzuk eragin zitzakeena, hala nola hasperenaren Grassmanen legea. Horrek are garrantzi eta berezitasun handiagoa emango lioke. Ondoren, ErEkEZko patroï berritu horrekiko beste berrikuntza bat izango genuke ekialde murrizagoan, ErEkEZ hautsi eta EkEZ definitzeko —baita, ondoren, erronkarietarako ere—. Hori guztia artikularekin lotzeko aukerak iradokiko luke, gainera, azentuerei dagokienez EkEZ MEZ ondokoa dela gutxienez, baita, ziurrenik, ErEkEZ ondokoa ere.

3.3.3.3. *edunen 3. pertsonako *da(d)u > du monoptongazioa

Euskal Herria hainbatetan banatzen duen ezaugarrietako bat da *edunen adizkiek zer forma hartzen duten (Zuazo 2014: 233): mendebal zabalean forma gordetzailea (*dau(-)*) aurkitzen dugu edo forma gordetzaile horren gaineko berrikuntza zaharrago edo berriagoak (*do-* & *de-*): *dau*, *dogu*, *dezu*, *daude*, *debe*, etab.; ekialde zabalean, aldiz, forma monoptongatua besterik ez dugu: *du(-)* (eta > Zub. *dü-*) (Reguero-Ugarte 2019: 443): *dut*, *duk*, *du*, *dugu*, *etab.*⁴⁸

Guztiak ere, **da-du(-)* batetik datozke (Mitxelena 1964: 36). Bistan denez, *dau-* gordetzaileagoa da, *du-* monoptongatua baino. Urgellen (2020: 715-716) arabera, MEZ definitzen duen arkaismo bateratzailetako har daiteke 3. pertsonako forma monoptongatu gabea. Horrek

⁴⁸ Regueroren (2019: 443) arabera, *de-* hasten diren formak ere lekukotzen dira Nafarroan. Aldiz, testu horiek Nafarroako mendebaldekoak dira, eta XVIII. mendeaz gerokoak. Reguerok ohartarazten duenaren arabera, *-u-* duten formekin batera agertzen dira eta azken horiek dira nagusi. Beharbada Gipuzkoatik hedatzen ari ziren formak izan daitezke, edo ordura arte lekukotu gabeko *dau-* > *deu-* > *de-* segidaren bilakabidea, Gipuzkoako zenbait ingurutan gertatu bezala.

esan nahi du, ordea, berritu duen forma batekiko gordetzailea dela, hau da, *dau* Mendebaldeko Euskara Zaharra definitzen duen arkaismoa da gainerakoak —edo aldamenekoak— berritu duelako.

Gaur egun, forma monoptongatuak inoiz baino mendebalderago lekukotzen dira, EHHAk erakusten duen moduan:

1329. Mapa: *EDUN [+orain, hark-hura]

GALDERA: 90730



13. irudia: *edunen 3. pertsona singularreko formak EHHAn

Lekukotasunek, ordea, iragana bestelakoa izan dela erakusten dute. Are gehiago, Gipuzkoan lekukotzen diren *du* formak Lehen Euskara Modernotik hona hedatu dira mendebaldera. Adibidez, Azkoitia-Azpeitietan singularreko forma *du* dela dakar EHHAk, baina Larramendiren Azkoitiko Sermoian (1737) *deu* da forma (Lakarra 1985: 254). Gainera, Nafarroa Garaiko mendebaldean lekukotzen diren *do* formek iradokitzen dute forma monoptongatu gordetzailea Nafarroako mendebalderaino, nahiz eta *dau* > *deu* (> *dou*?) > *do* bilakabidea izan, eta, beharbada, Gipuzkoako ipar-ekialderaino iristen zela, duela gutxi arte.

Horregatik, **edunen* 3. pertsonako formak ErEkEz definitzeko beste berrikuntza (txikiago) bat izan daiteke, MEZko *dau* arkaismo bateratzailearen ondoan. Horrek, gainera, ErEkEzren barruan kronologia erlatibo bat egiteko ere balio lezake: 1. *dau* > *du* monoptongazioa ekialde zabalean.⁴⁹ 2. *du* arkaismo bateratzailea erdialdean eta *du-* > *dü* berrikuntza ekialdeko muturrean, hau da, Zuberoako euskara ekialde zabaleko adarretik bereizirik.

⁴⁹ Bilakabide arrunt xamarra izan daiteke fonetikoki *au* > *u* monoptongazioa. Aldiz, ez du ematen euskaraz hotsaldaketa erregular bat denik, *au* diptongoak, oro har, bere horretan mantendu direlako —cf. Labov (2020) hotsaldaketa erregularren erregularitasunaz—: *gauza* > ***guza*; *gau* > ***gu*; *hau* > ***hu*. Bokalen galerak eta murrizteak ohikoagoak dira maiztasun handiko hitzetan, maiztasun txikiagoa dutenetan baino (Bybee 2007: §2.4) eta, beharbada, 3. pertsonako formak ohikoagoak izateak azal lezake zergatik dauden horren adibide gutxi euskaraz. Hala ere, hori corpus-azterketa batean egiaztatu beharko litzateke. Bestalde, 3. pertsona singularretik gaine-

3.3.3.4. *Izanen* (iraganeko) adizkietan -e-

Aurrekoen antzeko banaketa dauka *izanen* adizkietan zer agertzen zaigun: -a- (*zan*) edo -e- (*zen*). Txandatze hori (-a- / -e-) iraganeko 3. pertsona singularreko formez harago ere agertzen da (adibidez, *dala / dela*, baina horren maparik ez dut aurkitu), baina banaketa ez da bera. Hona hemen *EHHA*k ematen duen duela hogeita hamar bat urteko banaketa:

1282. Mapa: IZAN [+iragan, hura]

GALDERA: 90100



14. irudia: **izanen* iraganeko 3. pertsona singularreko formak EHHAn

Aurreko ezaugarrien antzeko banaketa bat daukate horiek. Nafarroako mendebaldearen eta Gipuzkoako ekialdearen artean dago muga, eta, aurrekoekin bezala, Nafarroako Burunda ingurua mendebaldearekin batera ageri da eta Gipuzkoako ipar-ekialdea ekialde zabalarekin batera.

Bietako zein den berrikuntza eta zein arkaismoa, ematen du gordetzaillea mendebaldeko *zan* dela, eta berritzaillea, aldiz, erdialdeko *zen*. Izan ere, *izanen*, erroa *zan* da eta ekialdean ere *zan* horren arrastoak aurki daitezke, partizipiotik harago. Adibidez, “Etxeparek Mosen Bernat Etxeparere kantua” poemako 12. lerroan hau dakar: *Ene contra falseria bethi cinhexi **çaten***. Laguntzaileari begiratu gero, *izanen* 3. pertsona iraganekoa da, baina erroaren eta iraganeko denbora-morfemaren artean -te- dauka: *za-te-n* cf. halaber *Refranes y Sentenciaseko ax < *(h)aiz*: *axate < *(h)aizate* (Lakarra 1996). Horren lekukotasun zahar batean, -te- morfemak erroa eta iraganeko morfema elkarrengandik bereiztean erroan *za-* gelditzea nahiko da pentsatzeko zaharra *zan* dela, eta -e- duten formak berrikuntzak direla. Horrek,

rakoetara analogiaz heda zitekeen —cf. *Watkinsen* (1962: 92) *legea* deitu izan dena: “the development (...) or presence (...) of a zero ending in the 3sg, and the spread of this 3sg form to other members of the paradigm”—.

aurrekoekin bezala, MEZ definitzeko arkaismo bateratzaile bat utziko liguke batetik (*zan*), eta, bestetik, ErEkeZkotako har genezakeen berrikuntza bat erdi-ekialdean (*zen*).

Berrikuntzei jarri dizkiegun hertsapenetatik begiraturik, *izanen* adizkietako erroko bokalen banaketak iragazki geografikoa betetzen du eta, itxuraz, zaharra ere izan beharko luke; edo testuen aurrekoa da gutxienez. Aurrekoak bezala, ordea, hizkuntz iragazkiak sortzen ditu zalantzak. Izan ere, **ae* > mend. *a*, ek. *e* bilakabide fonetikoak ez du berezia izateko ziurtasun handirik ematen. Aldiz, morfema desberdinen ondorio bada (ek. **zaen* > *zen* vs mend. **zaan* > *zan*), esanguratsuagoa izango litzateke, baina horrek beste galdera bat sortuko luke, garai bateko bi dialekto bereizteko garrantzitsuagoa: noiz eta nola sortu dira mend. *-an* eta ek. *-en*? Nolanahi ere den, beste berrikuntza txiki bat izan daiteke, aurreko biekina batera, ErEkeZ definitzeko eta MEZtik bereizteko.

3.3.3.5. *-ek* ergatibo plurala

Euskal hizkera bat zuzenean mendebaldean edo ekialdean kokatzeko beste ezaugarri bat da izen sintagmako ergatibo pluraleko morfema zein duen: mendebaldeko *-ak* edo ekialdeko *-ek*. Aldiz, non begiratzen zaion eta autoreak ez datoz bat zein hedadura duten batak eta besteak. Aldaik (2014) eta Reguero-Ugartek (2019: 423) antzeko eremua esleitzen diete **edunen* mend. *dau* : ek. *du* eta ergatiboko mend. *-ak* : ek. *-ek* morfemei: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa gehienez *-ak* agertzen da; aldiz, Gipuzkoako ipar-ekialdean, Nafarroa Garaian, Nafarroa Beherean, Lapurdin eta Zuberoan, *-ek* litzateke morfema. Hala ere, Nafarroa Garaiko mendebaldean badaude *-ak* duten adibideak (Reguero-Ugarte 2019: §3.2.1.7) eta Zuazok (2010b: 7) dakarren (xx. mendeko egoeraren) mapan ere *-ak* morfemak hedadura zabala du:



15. irudia: Ergatibo pluraleko *-ak* morfemaren hedadura. Iturria: Zuazo (2010b: 77).

Zuazok (2010b) dakarren mapan ikus daitekeen moduan, *-ek* morfema ekialderago hasiko litzateke. Gipuzkoako ipar-ekialdeko testu zaharrak aurkitzea ez da erraza, baina Aita Satrustegik (1979) argitaraturiko Hondarribiko 1778ko platican *-ak* da morfema: *bestiac tentazen zuten Christo gure Jauna* (8); *serengatic Hebreoac confesazen zuten Apostoluac botazen zistutela* (11). Berdin, Pasaian egun ere *-ak* omen da ergatibo pluraleko morfema (Agirretxe-Mitxelena *et al.* 1998: 80). Hortaz, ematen duenez, *-akek* beste zenbait lanetan aitortu zaion baino hedadura handiagoa dauka, eta *-ekek*, aldiz, txikiagoa. Ez du ematen, bestalde Nafarroa Garaiko lekukotasun zaharrek Zuazoren mapa asko alda dezaketarik, Reguerok (2019: §3.2.1.7) *-ak* eta *-ek* morfemen arteko trantsizio-gunea Nafarroa Garaiko mendebaldean eta ipar-mendebaldean kokatzen baitu, Gipuzkoa eta Arabatik gertu. Hala ere, morfemak zein diren baino, pluralean ergatiboa eta absolutiboa bereizten diren izan daiteke esanguratsuen, ekialdeko *-ek* bereizkuntza hori absolutibo / ergatibo bereizkuntza lehenik erakusle sisteman gertatu eta ondoren gramatikalizatzearen ondorio baita.

Hedadura txikiagoa badu ere, Aldaik (2014) —beharbada, duen baino hedadura handiagoa esleiturik— *-ak* MEZ definitzeko ezaugarri zahartzat dauka, nahiz eta ezin duen erabaki *-ak* edo *-ek* zein den berrikuntza eta zein arkaismoa. Ematen duenez, *-ak* arkaismoa da, eta *-ek*, aldiz, berrikuntza (Manterola 2015: 280tik aurrera, 363). Honela laburbiltzen du Manterolak (2015: 363):

Erakusleetatik eta izenordainetatik kanpo, ordea, argudiatu beharra dago berrikuntza dela ekialdeko izenaren deklinabide mugatu erg. *-ek*, erg./abs. *-ak* zahar eta inoiz orokorragoaren aldean: izenordainetako eta erakusleetako *-ek* atzizkiaren aldean, bazter batekoa baizik ez da, ekialdekoa bakarrik, eta, inportanteagoa dena, balio bakarrarekin espezializatuta ageri da, ergatiboarekin, erakusleen jatorrizko eta berezko bereizketa eza galduta; erakusleetatik urruntzen duen ezaugarri honek du salatzen bere berritasun erlatiboa.

Bestalde, Manterolak berak esaten duen moduan, geografikoki mugatuago dago ek. *-ek*, Iruñetik eskuin ia-ia ez baita lekukotzen, eta, beraz, hori diakronikoki nola interpretatu behar den pentsatu behar da. Zuloagaren (2020a: 703) arabera, *-ak* MEZko arkaismo bateratzailea izan liteke. Ni ere bat etor ninteke Zuloagarekin, baina berrikuntza horri ez diot horren argia irizten, ErEkEZ definitzeko bederen. Izan ere, berrikuntzei ipinitako hertsapen gehienak betetzen dituen arren, baliteke bateratzailea ez izatea edo, behintzat, aurrekoek baino hedadura txikiagoa du. Neolinguisten (Bartoli 1925) IV. hatsarrearen arabera, hedadura zabalagoa duten ezaugarriek aukera handiagoak dituzte zaharragoak izateko, hedadura txikiagoa dutenek baino. Ergatibo pluraleko morfemen banaketa ere horrela interpretatu behar bada, ErEkEZren azken berrikuntzetako bat izan beharko litzateke *-ek*. Bestalde, oso deigarria egiten zait, ustez eta horren garrantzitsua izan zen Iruñetik ezker ia-ia ez lekukotzea —cf. lan honetan §3.5n, Iruñeren garrantziaz—.

Bukatzeko, azentuera-aldaketarekin aipatu dudan arazo bera izan genezake honekin. Pluralaren gramatikalizazioa singularrekoaren ondorengoa da; hau da, erakusle pluralak denbora luzeagoz izan ziren morfema autonomo(ago)ak (Manterola 2015). Beraz, berrikuntza hori mendebaldean $a + a > ea$ ondorengoa bada, noizkoa da? XI, XII, XIII. mendeetakoak? Garai historikotik gertu-gertukoa? Ordura arte ez zegoen halako haustura handirik erdialdeko eta ekialdeko hizkeren artean? Gorago azaldu bezala (§3.3.2.1), ekialdeko zenbait berrikuntza ($u > y$; $i-u > u - u$; are beranduago au , $eu > ai$, e) horren ondokoak edo garai bertsukoak izan daitezke —eta noizkoak dira n eta l ondoko ahoskabeak?—, eta horrek suposatuko luke oso denbora gutxi edo, are, ia garaikideak izango liratekeela hurrenez hurren ErEkeZ eta EkeZ definituko lituzketen berrikuntza zahar bereizleak.

3.3.3.6. Hipotesiaren abantailak eta arazoak

EBZren haustura horrela azaltzeak baditu zenbait abantaila. Batetik, MEZ, ErEkeZ eta, ondoren, EkeZ berreraiki, eta hizkuntz ezaugarrien bidez definitzeko aukera ematen du. Era berean, EBZren haustura trinkoago geldi liteke, besteak beste Zuloagak (2020a: 701) nabarmendu bezala, Lakarraren (2011 [2014]) proposamenean lauzpabost mendeko jauzi bat izango genukeelako mendebaldean, identifika dezakegun berrikuntzarik gabe.⁵⁰ Izan ere, Pozori (2016) kasu eginez gero, VII-VIII. mendeak esanguratsuagoak izan litezke, eta ez Mitxelenak (1981) proposatutako V-VI. mendeak; gauzak horrela, EBZ VII-VIII. mendeetan hasiko litzateke hausten —edo are beranduxeago—, guregandik apur bat gertuago, eta haustura prozesua jarraituagoa litzateke, hainbat mendetako etenik gabea: ErEkeZ eta MEZ gutxi gorabehera garaikideak lirateke eta erlatiboki denbora gutxian gertatuko litzateke dialektalizazioa.

Bestalde, ez dakit zer puntura arte izan daitekeen esanguratsua, baina, Janhunen (2009) uralikoaren ikerketarekin alderatuz gero, hipotesi honen berritze-norabideak —zenbat eta ekialderago, orduan eta berritzaileago— eta Janhunenak bestelakoak ematen dute. Janhunen (2009: §8) arabera, uralikoaren aitzin-aberria Asian zegoen eta hizkuntza familiako adar berriak mendebalderantz gertatutako migrazioen bidez azal litezke: hausturak aurrekoaren mendebaldean gertatzen dira, giza talde batek mendebalderago migratu zuelako. Hemen, hausturak ekialdean sortzen joan badira, ez du ematen migrazio-mugimenduekin lot daitekeenik. Migraziorik ezean, beharbada gune demografiko berriak sortzearekin lotu beharko litzateke. Nolanahi ere den, familia uralikoan milaka kilometrotako hedaduraz ari gara eta gurean, aldiz, hedadura askoz txikiagoa da.

⁵⁰ Beharbada hainbat mendez berrikuntzarik ez izatea ez da arazo (larri) bat eta zenbait gauzari zor dakiok: gure ezintasuna berrikuntza horiek identifikatzeko, orduko berrikuntza horiek ezin identifikatzea estalirik gelditu direlako, gauzak *nahastu* zituen konbergentzia-prozesuren bat, eta abar.

Aldiz, lehen haustura mendebaldean gertatu zen hipotesiak ere zailtasunak izan ditzake. Izan ere, aipatu bezala, berrikuntzak gugandik oso gertu kokatuz gero, aldaketa asko eta asko gertatuko liriteke oso denbora txikian, horren denbora gutxian non EkEZ definitzen duten berrikuntzak ErEkEZ aurrekoak ere izan litezkeen edo ErEkEZ eta horren hausturatik sortu beharko litzatekeen EkEZ garaikideak liritekeen.

3.4. Eredu historikoa: Pozo (2016)

EBZren haustura mendebaldean gertatu eta hausturatik MEZ eta ErEkEZ sortu izanak bat egin lezake, neurri batean, Pozok (2016) planteatzen duen eredu historikoarekin. Eredu horretan, Baskonian bi hiri garrantzitsu leudeke erromatar garaian.⁵¹ Veleia egungo Araban eta Iruñea egungo Nafarroan. Lehenak, aldiz, v. mendean behera egin zuen eta hustu omen zen⁵² eta Iruñea gelditu zen Erromatar inperioaren gainbehera gaudituz eta egun arte iraun duen hiri garrantzitsu bakar moduan (Pozo 2016: 32). Hirigune garrantzitsu bakarra izateak EBZ garaiko berrikuntzen sorleku eta epizentro bezala identifikatzeko aukera ematen du.

Are, VI eta VII. mendeetako Baskonian nahikoa barne-kohesio, komunikazio eta hierarkizazio egongo litzateke (Pozo 2016: 401), eta, beraz, haustura VIII. mendera atzeratu ahalko litzateke. Gainera, barne-kohesio horren argitan, ez guke Mitxelenak (1981) planteatzen duen bateratze-prozesurik behar, baizik eta oraindik ere —noiztik?— baturik zegoen egoera baten jarraipena. Pozoren (2016) datak nahiko ondo bateratzen dira Zuloagak (2020a: 684) MEZren hasierarako planteaturiko IX-X. mendeak. Garai horretan, Arabako lautadak garrantzian gora egingo luke berriz ere, nahiz eta aurretik Dulantzín elizako presbiteroak egon (Pozo 2016). Horrek, beharbada, lau bat fase edo garai bereizten lagun gaitzake:

1) VIII. mendera arte: Iruñea zen EBZ egituratu zuten berrikuntzen sorleku eta hedagunea; hau da, Iruñea Taeldemanek (2005: 276) hirietarako proposatzen dituen hiru ereduetan lehenengoan sartuko litzateke —lan honetan, §1.3.2—. Arabako lautadak bigarren ereduaren arabera jokatu luke: Iruñetik datozen berrikuntzak bere egiten ditu, eta konbergentzia eragiten du eremu osoan.

2) VIII-IX (edo -XII?) mendeak: Gasteiz (edo Arabako lautadak) garrantzian gora egin zuen eta Iruñetik hedatzen jarraitzen zuten berrikuntzak hartzeari utzi zion; ekialdean sortu eta mendebaldera hedatu ez ziren berrikuntzak izan daitezke goian tratatutako azentu-aldaketa eta, ondorioz, Grassmannen legea; ergatiboko 3. pertsonan *dau* > *du* monoptongazioa; eta *izanen* 3. pertsonako iraganean -e- garatzea. Horrek ErEkEZ definituko luke, baita MEZ gordetzailerik eta bateratu bat mendebaldean. Izan ere, difusio hierarkiko batean pentsatuz

⁵¹ Hala ere, Pozoren lana hegoaldeari buruzkoa da eta hori, neurri batean, muga handia izan daiteke, guretzat behintzat, ezagutzen ez duguna benetan ez zela interpretatzeko arriskua dugulako.

⁵² “*IIDA IAN LO*”ren ajeak, nonbait.

gero, aurreko garaian, Iruñetik Arabako lautadara edo Gasteizera egin beharko lukete berrikuntzek, eta handik MEZtako defini dezakegun eremura; Gasteizek Iruñeko berrikuntzak egiteari uzteak, aldiz, berrikuntza horiek mendebaldera hedatzea etengo luke eta MEZ egituratzen hasiko litzateke. Hau da, Taeldemanen (2005: 276) eredueta, Gasteiz bigarren eredutik, hots, beste nonbaiteko berrikuntzak bere egitetik, hirugarrenera igaroko litzateke: ez lituzke berrikuntzak bere egingo eta, beraz, dibergentzia sortuko luke.

3) x-xI. mendeetan: hasten dira MEZko berrikuntza propioak; adibidez, $a + a > ea$. Hala bada, Taeldemanen (2005: 276) hirugarren ereduko jokaera izateaz gain, lehen ereduko jokaera ere izango luke, berrikuntzen sorleku eta abiaburu bezala.

4) x(II?)-?: Garai honetan, Iruñean sortuko lirateke berrikuntzak ekialdeko muturrera iristeari utziko liokete —hala ere, ikusi §3.5 Iruñeren garrantziaz—; esaterako, ergatibo pluraleko *-te* **edunen* adizkietan (*dute*, eta ez *-(d)e*). Horrek gauza bat eskatu beharko luke gutxienez: ekialdeko muturrean (hiri)gune garrantzitsu bat garatzea, erdialdeko berrikuntzen eraginari eusteko modukoa batetik, eta bestetik, EkEZeko berrikuntza propioak hedatzeko; besteak beste, [+2] > [-2] azentuera-aldaketarako.

3.5. Iruñeren lekuaz

Bukatzeko, badago azken gogoeta bat aipatu gabe utzi nahiko ez nukeena: zer garrantzia izan du Nafarroa Garaiko Iruñeak (eta Iruñeko eta Nafarroako erresumek) euskal dialektoen sorrera eta garapenean? Zuazoren eta Abaituaren ustez, EBZren sorburu izan zen lehenik. Honela mintzo da Zuazo (2010a: 166) Iruñeaz eta haren garrantziaz:

Pamplona es, sin duda, la ciudad vasca más importante de la antigüedad. Ya para el siglo VI se había constituido allí un obispado (véase Larrea 1996), y fue un importante centro de comunicaciones desde fecha muy temprana (...) y, en definitiva, Pamplona mantuvo su hegemonía dentro de Vasconia hasta el siglo XIV aproximadamente.

Es posible que las innovaciones lingüísticas vistas en el capítulo anterior, que han afectado a la totalidad de los dialectos vascos, tengan su origen en Pamplona. Se trata con toda seguridad de procesos puestos en marcha en época muy temprana. Hay otros, sin duda más modernos, que han cubierto un área más pequeña.

Abaituak (2018) ideia bera adierazten du, eta beharbada zuzen dabilta. Izan ere, kokapen geografikoari dagokionez, Euskal Herri historiko ezagunaren erdialdean dago eta, ematen duenez, gune soziologiko garrantzitsua izan da antzinatetik hona (Larrea 1996 *apud* Zuazo 2010a: 166; Pozo 2016).

Nolanahi ere den, EBZ ondoko garaian jarri nahiko nuke arreta, hor hasten direlako gauzak iluntzen eta Zuazok eta Abaituak bat etortzeari uzten diotelako. Zuazoren (2010a: 166) arabera, Iruñetik hedaturiko beste berrikuntza batzuk daude “sin duda más modernos, que han

cubierto un área más pequeña”. Horien artean, hauek aipatzen ditu: $-a + a > -a$ (*alaba + a > alaba* vs mend. *alabea*, ek. *alabá*), ergatiboko 3. pertsonaren pluralgilea *-te* izatea (*dute* vs. *-e*) eta *-tzen* morfema partizipio burutugaberako (*ibiltzen* vs *ibiltzen*). Lehen biek antzeko hedadura dute: Gipuzkoako ekialdetik Behe Nafarroara.

Abaituaren (2018) arabera, Erdialdeko Erdi Aroko Euskararen sorburua ere izango litzateke Iruñea —gorago aipatu bezala (lan honetan §3.3.1.4) metodologiak ez du egokiena ematen horrelako ondorioak ateratzeko—. Ongi interpretatu badut Abaituaren lana, hark “#2” zenbaitzen duen patroia lotu behar da Iruña sorburu izango lukeen Erdialdeko Erdi Aroko Euskarekin, x-xii mendeetan, eta lexema eta hizkuntz ezaugarri hauek proposatzen ditu horren erakusle: mend. *ziraun* : ek. *sugeitsu*, mend. *asko* : ek. *anitz*, ergatibo plurala mend. *-ak* : ek. *-ek*, eta mend. *daukat* : ek. *badut* (Abaitua 2018: 291etik aurrera). Ezaugarri horiek islatzen duten ekialdea Iruñetik ekialdera doa Pirinioez bestaldeko eremu osoa barne.

Ez dut ezaugarri horiek egokiak diren hemen berriro eztabaidatuko; demagun onak direla — cf. berriz ere lan honetan §3.3.1.4, kritika metodologikoaz, *asko / anitz* formen banaketaz, mend. *daukat / ek. badut* banaketaren zahartasunik ezaz, eta egungo hedaturak besterik gabe iraganean proiektatzeak dakartzan arriskuez eta hutsez—. Aldiz, Zuazoren eta Abaituaren proposamenak kontrajarriak dira, nahiz eta biek ere sorgune bezala Iruñea ikusi. Bataren zein bestearen hipotesiek arazoak dituzte, ezaugarriek hedadura bitxiak izango litzakeelako Iruñetik hedatzeko.

Zuazoren (2010a: 166) arabera Iruñea Euskal Herriko hiririk garrantzitsuena izan da, gutxienez vi. mendetik xiv. mendera. EBZ egituratuko luketen berrikuntzak handik hedatuko lirateke Euskal Herri osora eta, beranduago, ematen duenez, eragina izaten jarraituko luke. Zuazok proposatzen dituen berrikuntza horiek nahiko ongi doaz —gauzak sakonago ikertzen ez diren bitartean— Erdialdeko Euskara Zaharra definitzeko hautagai bezala, baina Iruñetik hedatu izanari eztabaidagarria irizten diot. Adibidez, 3. pertsonako ergatibo pluraleko *-te* morfemak ez du hedatuegia ematen Nafarroako mendebaldean —ezta ekialdean ere—: Reguero-Ugarteren (2019: §3.2.2.2.13.2.) arabera, Intzako epaiketa batean, 1610an *çaitue* agertzen da eta, 1611n, *due*, birritan. Leitza inguruan ere *due / zuen* ‘zuten’ zen xviii. mendearen bigarren erdiaren inguruan. Berdin, Aralar inguruko herrietan ere (gaur egun) *-e* da morfema (Zuazo 2013: 83-86 *apud* Reguero-Ugarte 2019: §3.2.2.2.13.2.). Ulergaitza egiten zait nola heda zitekeen berrikuntza bat Iruñetik, gune demografiko garrantzitsu bezala, eta Iruñetik mendebaldera horren gutxi hedatzea. Beharbada, garai batean

hedatuago zeuden mendebalderantz eta gero atzera egin eta lekua galdu zuten. Ez dut horren aldeko ebidentziarik aurkitu.⁵³

Abaituak (2018) ergatibo pluraleko *-ek* proposatzen du Iruñetik hedatu berrikuntzatako. Ezaugarria ekialde zabalean lekukotzen da, Iruñeraino. Aldiz, Zuazok duen arazo berarekin egiten du topo. Posible da “[e] vasco oriental medieval (VOrM), con centro en Pamplona” (Abaitua 2018: 318) izatea eta “centro” horretatik hedaturiko berrikuntza bat Iruñetik ezker ez agertzea? Iruña horren garrantzitsua izan bada —horren garai modernoetan bederen—, nolatan ez zen han sortu berrikuntza bat Iruñetik mendebalderantz 20 km-ra ere ez dauden inguruetara iritsi? Ergatibo pluralean *-ek* egiteko berrikuntza Iruñean sortu bazen, nola ez zen Baztan osora ere hedatu Ipar Euskal Herri osora hedaturik?

Bi aukera ikusten ditut, eta batean ere ez du Iruñeak pentsatu nahi izan den beste indar euskal munduan ErEkEZ edo, beranduago, ErEZ eratu ziren garaian —indar politiko-administratibo eta ekonomikoak erdaldun(du)ak zirelako?—: indar txikia zuen eta, beraz, han sortu berrikuntzak ez ziren mendebaldera gehiegi hedatu; edo Iruñeak horren indar txikia zuen beste nonbait —(ipar-)ekialderago?— sortutako zenbait berrikuntza bere egin zituela, baina handik ezker ez zirela hedatu. Esango nuke bi aukera horiek ere aztertu beharrekoak direla. Oraingoz ez dut bataren edo bestearen alde egiteko argudiorik, susmoak besterik.

Izan ere, ematen du ekialdeko muturra berritzaileena dela hainbat ezaugarritan. Lan honetan azentua eta ergatibo pluralean absolutiboaren eta ergatiboaren arteko bereizketa sistema osora hedatzea aipatu dira. Beharbada, interpretazioaren arabera, geroaldiko morfemen banaketa gehi liteke. Mendebaldean *-go / -ko* da, erdialdean *-en / -ko* eta ekialdean *-en / -ren*. Bi interpretazio egin daitezke gutxienez: zaharra ekialdekoa da, eta mendebaldekoa berriena; erdialdean tarteko egoera izango genuke. Aldiz, kontrakoa ere izan liteke: mendebaldekoa da zaharrena eta ekialdekoa berriena, Zuloagak (2020a: 703-704) iradokitzen duen moduan.

Zuloagaren arabera, interpretazio horren alde joan daitezke batetik Nafarroan lekukotu *esango, egingo* eta *izango* formak (Reguero 2019: §3.2.2.2.9), nahiz eta urriak izan; eta, bestetik, *-(r)en* genitiboaren gramatikalizazioarekin loturik dagoela aipatzen du Zuloagak, eta *-n* duten genitiboak konparatiboki berriagoak direla. Horren alde doa 1131ko *laun Ortire Semea* lekukotasuna, baita posesiboak ere *-n* gabekoak izatea ere, *zuen* salbu; aldiz, *zuek* eta, beraz, *zuen* gainerakoak baino modernoagoa da eta *zu* singularreko izenordain bezala berrinterpretatu ondoren baizik ez da posible. Horrela, bada, ekialde berritzaile bat egongo

⁵³ Urdiainen 1597ko epaiketa batean agertzen da *dute: ay! gora, gora, gendeac! yl dute hene senarra*. Nik ere Santaziliarekin (2018: 429) bat egiten dut eta eskribauak, bertako hizkera baino, berea edo “prestigiosko aldaera” bat erabili zuela uste dut (cf. Urrestarazu-Porta prestatzen-1).

litzateke berriro eta hango berrikuntzak erdialdera hedatuko liriateke, non eredu zaharraren eta berriaren arteko lehia genukeen. Eredu hori ez da Iruñea berritzaile eta euskal gizartearendako garrantzitsu batekin oso bateragarria.

4. Ondorioak

Lan honetan, dialektologia diakronikoaren alderdi teoriko-metodologikoak landu ditut lehenik: dialektologia diakronikoa zer den, zer helburu dituen eta zer metodo eta irizpide erabil ditzakeen azaldu dut. Horretan, berrikuntzek eta arkaismoek duten pisua eta horiek nola interpretatu behar diren laburbiltzen saiatu naiz eta, esangura historikoren bat izateko, berrikuntzek bete behar dituzten iragazki geografikoa, iragazki kronologikoa eta hizkuntz iragazkiak azaldu ditut. Gainera, filiazio-hipotesien garrantzia eta horiek irudikatzeko zuhaitz genealogikoek duten lekua eta garrantzia nabarmendu ditut, *uhin-teoria* deitu izan denetik bereiz. Izan ere, *uhinen teoria* berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzeko hipotesi bat da, eta ez dakar berekin dialektoen filiazio-hipotesien inguruko kontsideraziorik.

Ondoren, euskal dialektologia diakronikoaren ibilbidea laburbildu dut, Mitxelenaren aurreko garaietatik ekarpenik modernoenetara. Euskal dialektologia diakronikoak denbora luze behar izan du garatzeko, eta Mitxelenaren obra handian ere berankorra da. Aldiz, azken hamarkadan loraldi handia bizi du eta 2020. urtean goia jo du eta inoiz baino biziago dago.

Bukatzeko, EBZren hausturari heldu diot. Lehenik eta behin, EBZren behar linguistikoa justifikatu dut. Izan ere, Mitxelenaren AE(M) garaia ereduaren ondoren ere, dialektoek hainbat berrikuntza partekatzen dituzte maila fonologiko zein morfologikoan eta, beraz, euskal dialektoak sortzen hasi aurreko azken egoera bateratua eta AE(M) linguistikoki bestelakoak ziren. Horrekin batera, azaldu dut kanpo-historian oinarriturik proposatu zuela Mitxelenak (1981) EBZ v-vi. mendeetako hizkuntz egoera izan zela, baina eredu hori jada ez dago indarrean (Pozo 2016). Beraz, EBZ edo behintzat bere haustura erromatarrak etorri ondoko garai batean kokatu behar da, baina ez nahitaez v-vi. mendeetan. Horrek EBZ hizkuntza ezaugarrien bidez osatzeko —eta justifikatzeko— beharra areagotu besterik ez du egiten. Halaber, erakutsi dut zergatik ez den oreka puntuatua (Dixon 1997) bezalako eredu bat euskararen historiarako aplikagarria. Batetik, Dixonek Australiako hizkuntzetarako proposatu zuen, hizkuntzalaritza estandarren metodoak aplikatu ezin zirelakoan; aldiz, hango hizkuntzen ikerketa diakronikoa, zailtasunak zailtasun, aurrera doa, ohiko metodo eta prozeduren bitartez (Bower & Koch 2004). Horrez gain, hizkuntzak etengabe aldatzen ari dira, hainbat ikerketa modernok erakutsi bezala (Harrington *et al.* 2019; Labov 2020), eta horrek sinesgaitza egiten du hizkuntzak denbora luzez aldatu gabe egon direla proposatzea. Gainera, euskara barruan ere dialektoen arteko maileguen adibideak nahiko bakanak ematen dute, garai batean *estandarra* zirela pentsatzeko.

Ondoren, EBZren lehen hausturaren inguruko bi hipotesien inguruan esandakoak berrikusi ditut. Lehen haustura mendebaldean gertatu zela dioen hipotesiari dagokionez, erakutsi dut ez dela batere hipotesi homogeneoa, mendebaldearen definizioan, baina, batez ere, ez delako beti dialektologia diakronikoak eskatzen dituen zuhurtzia eta metodoen arabera egin. Adibidez, Zuazoren (1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014) eta Abaituaren (2019) lanak xx. mendeko datuetatik abiatzen dira —Zuazoren kasuan, xx. mendeko datu kimatuetatik gainera— eta horrek anakronismo handiak sortzen ditu, oso berrikuntza edo banaketa dialektal modernoak betikoak izango balira bezala proiektatzen dituztelako; hau da, berrikuntzek bete beharreko irizpide kronologikoa hausten dute. Reguero-Ugartek Erdi Aroko lekukotasunak hartzen ditu eta, horien arabera, berak ere bi eremu dialektal bereizten ditu lehenik eta, ondoren, erdialde berritzaile bat. Reguero-Ugartek erabiltzen dituen hizkuntz ezaugarriak ($e > a / _r$; $u- / i-$ banaketa duten hitzak; hasperenaren galera $h > \emptyset$ mendebaldean), ordea, ez dira egokienak, berrikuntzek gairitu beharreko iragazkiak ez dituztelako betetzen. Adibidez, hasperenaren galerak ez du filiazio-hipotesietarako indar handirik, berrikuntza negatiboa delako.

Bestalde, lehen haustura ekialdean sortu zela dioen hipotesiaren inguruan esandakoak ere berrikusi ditut. Nik ere Lakarrarekin (2011 [2014]) —eta Mitxelenarekin (FHV)— bat egin dut, ekialdean agertzen diren n eta l ondoko herskariak berrikuntza bezala interpretatuz. Aldiz, argudiatu dut berrikuntza hori aurretik pentsatu baino berriagoa dela eta ErEKEZ sortu ondokoa izan daitekeela. Gaskoieraz latineko n eta l ondoko ahoskabeak, euskal eremu osoan bezala, ahostundu ziren eta, ondoren, okzitanieraren eraginez mendebaldeko gaine-rako erromantzeekin berdinduz joan ziren, hiperzuzenketa garai bat tartean. Gaskoieraren ikerketak, ordea, ez dakar berdintzearen eta horren aurretik gertatu zen hiperzuzenketa-rendako datazio absoluturik, baina lehen berriak XIII. mendekoak dira.

Proposatu dut ekialdeko n eta l ondoko ahoskabeak gaskoieraren eta okzitanieraren arteko berdintze horren ondorengo bezala ulertu behar direla: euskaraz, mailegu zaharretako n eta l ondoko ahoskabeak ahostundu ziren —edo fonetikoki ahostunak ziren jatorriz—; ondoren, berrikiago, erromantzeetako ahoskabeekin berdinduko lirakeke ekialdean, eta, azkenik, euskal ondareko morfemetan sartzen hasiko lirakeke n eta l ondoko ahoskabeak, txistukari ondoko alomorfo ahoskabeak oinarrizko formatzat interpretatu eta testuinguru guztietara hedatuz. Hala ere, esan dudana bezala, hizkuntza barneko logika hutsak apur lezake, beharbada, n eta l ondoren herskari ahoskabeak ezin izateko murriztapen fonotaktikoa, herskari ahoskabea duten alomorfoak oinarrizkotzat jo eta testuinguru guztietara hedaturik. Agian, maileguen eta mailegu-geruzen azterketa xeheak erakuts lezaken noiz hasten diren n eta l ondoren erromantzeko jatorrizko ahoskabeak ahoskabe mantentzen.

Halaber, lehen haustura ekialdean sortu zela dioen hipotesiak balizko MErEz berreraikitzeo *ezintasuna* du oztupo. Horren aldeko berrikuntzak aurkitzen saiatu naiz, baina ez dut halakorik aurkitu. Dena dela, hori ikertzailearen hutsa eta arazoa izan daiteke, eta ez errealitate historikoarena. Horrez gain, izan liteke ekialde hertsiko mintzoak garai batean bereizirik egotea, ondoren, garai batez erdialdekoekin bat biltzea, baina aurretik egindako *n* eta *l* ondoko ahoskabeei eutsiz, azkenik atzera ere bereizirik ibiltzeko. Aukera logiko bezala, posible bada ere, beste hipotesiak baino konplexutasun handiagoa suposatuko luke eta, horregatik, aldeko ebidentzia gehiago behar du.

Ondoren, MEZ nahiko ongi aztertutik dagoenez, ErEkEZ bezalako hizkuntz egoera bat berreraiki daitekeen aztertzen saiatu naiz. Ikusi ahal izan denez, EBZrekiko eta MEZ gordetzaille batekiko zenbait berrikuntza zahar, komun eta bereizle identifika daitezke ekialde zabal batean: azentu-aldaketa, Grassmann legea, *dau > du* monoptongazioa *edunen* 3. pertsonan, *izanen* 3. pertsonan *-e-* (*zen, dela*) eta, beharbada, absolutibo eta ergatibo pluralak bereiztea *-ek* berrikuntzaren bidez. Horietako batzuek, gainera, ErEkEZrekiko berrikuntzak identifikatzeko aukera uzten dute; izan ere, Zuberoa eta Erronkariko azentuera(k) erdialderagoko azentueratik dator (Egurtzegi & Elordieta prestatzen) eta Zuberoako *dü* (ErEkEZko) *du* zaharrago batetik dator.

Gainera, hipotesi hori ongi doa kanpo-historian egun indarrean dagoen ereduarekin (Pozo 2016). Horren arabera, euskal lurraldeetan barne-kohesio eta -batasun handia egon zen VIII. mendera arte. ErEkEZ berreraikitzeo aukeraz harago —eta hori da hipotesi horren indargune nagusia—, hipotesiak badu beste abantaila txikiago bat: sinpleagoa da eta, dialektaliazioa abian jartzen denetik, hau da, EBZren fragmentazioa hasten denetik, etengabeko prozesu bezala gelditzen da, hainbat mendetako jauzirik gabe, MEZ VIII-IX. mendeetan sortzen hasten baita (Zuloaga 2020a). Horrez gain, lehen haustura III-IV. mendeetan ekialdean sortu izan balitz, ondoren erdialdeko hizkerekin batera joango litzateke ErEkEZrako aipatu ditudan berrikuntzak bere eginez, baina aurretik eginik izango lukeen berrikuntzari eutsiz. Hala ere, hor ere kronologiak, ahal den neurrian, finduz joan beharra dago, gerta litekeelako ErEkEZrako eta EkEZrako garai bereko berrikuntzak proposatzen aritzea eta, printzipioz, amak (ErEkEZ) eta alabak (EkEZ) garai desberdinak izan beharko lituzkete.

Bukatzeko, Iruñeren ustezko nagusitasunaren eta garrantziaren inguruko ohar batzuk egin ditut. Izan ere, zenbait lanetan, EBZren gune garrantzitsuena izateaz gain, ondorengo garaietan ere izaera pribilegiatua esleitu izan zaio (Zuazo 1998a, 2003, 2008, 2010a, 2014; Abaitua 2018), hau da, berrikuntzen sorgune eta hedagunetzat hartu izan da. Aldiz, ustez Iruñetik hedatuko liratekeen zenbait berrikuntza Iruñetik iparraldera eta ekialdera baizik ez

dira lekukotzen, hala nola erg. pluraleko *-ek* eta **edunen* 3. pertsonako *du* monoptongatua. Nire ustez, bitxia da berrikuntza horiek Iruñean sortu baziren mendebalderantz horren gutxi hedatu izana eta, beraz, Iruñeren garrantzia birpentsatu behar dela iradoki dut.

Azkenik, ez dut lan hau osatzeko gelditzen diren zenbait ikerlerro aipatu gabe utzi nahi. Batetik, EBZ —eta beste asko— linguistikoki berreraiki beharra dago, ondorengo banaketak horren arabera epaitzeko. EBZri egotzi izan zaizkion ezaugarrien ingurukoak bildu behar dira, elkarren artean bateragarriak diren eta zer kronologian ezar daitezkeen ikusteko. Hori interesgarria da berez, baina, gainera, haustura nola gertatu zen hobekiago ulertzen lagun dezake, berrikuntzak baloratzeko euskarri bat eskaintzen duelako. Horren barruan sar liteke herskarien eta, oro har, kontsonanteen bilakabide fonetiko-fonologikoaren nondik-norakoak, itxuraz AEMtik EBZra bitartean igaro zelako *fortis / lenis* sistema fonologikotik ahostun / ahoskabe sistemara.

Bestalde, ekialdeko *n* eta *l* ondoko ahoskabeen inguruko zahartasuna ikertzen jarraitu beharra dago. Horrek bi bide edo lan eskatzen ditu. Batetik, ikertu behar da gaskoierazko $D > T/n, l$ hiperzuzenketa noizkoa den jakin daitekeen eta aldaketa nola hedatu zen. Bestetik, ekialdeko datuak ikertzen jarraitu behar da, garai historikokoak zein protohistoriako toponimo, oikonimo eta antroponimoak. Uste dut forma bakoitza non eta noiz lekukotzen den azterturik bilakabidearen inguruko zehaztasun berriak ondorioztatuko ditugula eta horrek EkEZren genesisia hobekiago ezagutzen lagunduko gaituela.

Bukatzeko, balizko ErEkEZaren aldeko —eta kontrako— beste zer ebidentzia bil daitekeen aztertzeko dago, baita ondorengo banaketak ere. Izan ere, nahiz eta lan honi ekin genionean gure helburua izan, Erdialdeko Euskara Zaharrak, lapurterak, goi-nafarrerak eta behe-nafarrerak izango luketen jatorri komunagoak, ikertu gabe jarraitzen du.

5. Erreferentziak

- Abaitua, Joseba K. 2017. La historia interna de la vasconización tardía: préstamos y neologismos. In Emiliana Ramos & Ander Ros (arg.) *Onomastika, hizkuntza eta historia. Ricardo Cierbideren omenezko estudioak*. Bilbo: Onomastika Elkarte. 293-314.
- . 2018. Patrones geolingüísticos, áreas dialectales y cronologías absolutas del EHHA. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta* 126. 283-322.
- . 2020. Periodización dialectal y cronologías de algunos guipuzcoanismos del EHHA. In Camino *et al.* (arg.). 33-56.
- Agirretxe-Mixelena, Joxe Luix; Lersundi-Ayestaran, Mikel; & Olaetxea-Rodriguez, Ortzuri. 1998. *Pasaiako hizkera*. Eskuragarri hemen: <https://www.pasaiia.eus/documents/90521/349297/Pasaiako+hizkeria/e68dcb0d-d386-49f2-a235-8159cdb9a5bf>. [Azken kontsulta: 2020-10-18].
- Allières, Jacques. 1995. Okzitanische Skriptaformen V. Gaskogne, Béarn. Les scriptae occitanes V. Gascogne, Béarn. In Günter Holtus, Michael Metzeltin & Christian Schmitt (arg.) *Lexikon der Romanistischen Linguistik (LRL) V. Die einzelnen romanischen Sprachen und Sprachgebiete vom Mittelalter bis zur Renaissance*. Tübingen: Max Niemeyer Verlag. 450-466.
- Anthony, David. 2007. *The horse, the wheel and language. How Bronze-Age Riders from the Eurasian Steppes shaped the Modern World*. Princeton: Princeton University Press.
- Ariztimuño, Borja. 2011. *Antzinateko euskal idazkunak eta aitzineuskararen berreraiketa: corpora, analisisa eta ondorioak*. UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- . 2013. Finite Verbal Morphology. In Mikel Martínez-Areta (arg.) *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 359-427.
- . 2016. Euskararen dialekto zaharrak aztertzeko saioa: aitagureen *Mithridates* baten deskribapena. In Aurrekoetxea *et al.* (arg.). 21-40.
- . 2018. SENI eta LOHI (sudurkari galduaren bila). In Joseba A. Lakarra & Blanca Urgell (arg.) *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi (ASJU 52: 1-2)*. Gasteiz: UPV/EHU. 19-31.
- . 2020. Gipuzkoako euskara zaharre(ta)tik *erdialdeko euskarara*: isoglosen diakroniaz. In Camino *et al.* (arg.). 57-66.

- Atutxa, Udane. 2011. *Txistukarien neutralizazioa mendebaleko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean*. UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- . 2013. Txistukarien neutralizazioa mendebaldeko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean. In Gómez-López *et al.* (arg.). 61-75.
- Aurrekoetxea, Gotzon; Makazaga, Jesus Mari & Salaberri, Patxi (arg.). 2016. *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*. Leioa: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Aurrekoetxea, Gotzon; Gaminde, Iñaki; Ormaetxea, José Luis; & Videgain, Xarles. 2019. *Euskalkien sailkapen berria*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Bakker, Peter. 2020. Review. *Advances in Proto-Basque Reconstruction with Evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis. Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta* 130. 563-592.
- Baldinger, Kurt. 1958a. La position du gascon entre la Galloromania et l'Ibéroromania. *Revue de linguistique romane* 22. 241-292.
- . 1958b. Die hyperkorrekten Formen als Konsequenz der Scripta im Altgaskognischen. In Heinrich Lausberg & Harald Weinrich (arg.) *Romanica. Festschrift für Gerhard Rohlf*s. Halle an der Saale: Max Niemeyer Verlag. 57-75.
- Bartoli, Matteo. 1925. *Introduzione alla Neolinguistica (Principi - Scopi - Metodi)*. Geneva: L.S. Olschki.
- Bilbao, Gidor; Gómez-López, Ricardo; Lakarra, Joseba A.; Manterola, Julen; Mounole, Céline & Urgell, Blanca. 2020a. *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ; —; —; —; — & —.. 2020b. *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. II. Testua*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Blevins, Juliette. 2004. *Evolutionary phonology. The emergence of sound patterns*. Cambridge: Cambridge University Press.
- . 2018. *Advances in Proto-Basque Reconstruction with Evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis*. London & New York: Routledge.
- & Egurtzegi, Ander. 2017. Unexpected obstruent loss in initial obstruent-sonorant clusters: an apparent example from Basque. *Phonology* 34. 507-522.
- Bloomfield, Leonard. 1933. *Language*. New York: Henry Holt & Company.

- Boberg, Charles; Nerbonne, John; & Watt, Dominic (arg.). 2018. *The handbook of Dialectology*. Oxford: Willey Blackwell.
- Bonaparte, Luis-Lucien. 1863. *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres.
- Bowern, Claire. 2006. Punctuated equilibrium and language change. In Keith Brown (arg.) *Encyclopedia of Language and Linguistics*.
- . 2010. Historical linguistics in Australia: Trees, networks and their implications. *Philosophical Transactions of the Royal Society of Biological Sciences* 365. 3845-3854.
- Bowern, Claire & Koch, Harold. 2004. Introduction: Subgrouping methodology in Historical Linguistics. In Claire Bowern & Harold Koch (arg.) *Australian languages. Classification and the comparative method*. Amsterdam: John Benjamins. 1-16.
- Brugmann, Karl. 1967. *Einleitung und Lautlehre: vergleichende Laut-, Stammbildungs-, und Flexionslehre der indogermanischen Sprachen*. Berlin, Leipzig: Walter de Gruyter. [Lehen argitalpena 1886].
- Bybee, Joan. 2007. Word Frequency and Context of Use in the Lexical Diffusion of Phonetically Conditioned Sound Change. In Joan Bybee *Frequency of Use and the Organization of Language*. Oxford: Oxford University Press. 235-264.
- Camino, Iñaki. 2003a. Hego-nafarreraren egituraz. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 94. 427-468.
- . 2003b. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Zerbitzua.
- . 2008a. Dialektologiaren alderdi kronologikoaz. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 108. 209-247.
- . 2008b. Nafarroa Behereko euskara zaharra. *ASJU* 42 (1). 101-170.
- . 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- . 2011 [2014]. Ekialdeko euskararen iraganaz. In Irantzu Epelde (arg.). 87-153.
- . 2013. Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia. In Gómez-López *et al.* (arg.). 77-140.
- ; Artiagoitia, Xabier; Epelde, Irantzu & Ulibarri, Koldo (arg.). 2020. *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

- Campbell, Lyle. 2006. Language and Genes in Collaboration: some Practical Matters. In Bernard Comrie (arg.) *Language and genes*. Cambridge: Cambridge University Press.
- . 2013. *Historical linguistics: An introduction*. Edinburgh: Edinburgh University Press. [1. argitalpena: 1998].
- Chambon, Jean-Pierre & Greub, Yan. 2002. Note sur l'âge du (proto)gascon. *Revue de linguistique romane* 66. 473-495.
- Coetzee, Andries W. & Pretorius, Rigardt. 2010. Phonetically grounded phonology and sound change: The case of Tswana labial plosives. *Journal of Phonetics* 38. 404-421.
- Coromines, Joan. 1972. De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 12. 299-319.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2020. Erreseina: *Euskalkien sailkapen berria*. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 129. 301-314.
- Egurtzegi, Ander. 2017. Phonetically conditioned sound change. Contact induced /u/-fronting in Zuberoan Basque. *Diachronica* 34 (3). 331-367.
- . 2019. Metathesis of aspiration as the source of anticipatory voicelessness in Basque. *Journal of French Language Studies* 29. 265-279.
- . Prestatzen. Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren azentuera zehazteko: proposamenen ebaluazioa.
- & Elordieta, Gorka. 2013. Euskal azentueren historiaz. In Gómez-López *et al.* (2013). 163-186.
- & —. Prestatzen. A history of the Basque accentual systems.
- Elordieta, Gorka. 2011. Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak. *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzara: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina [Iker 26]*. 989-1014.
- Epelde, Irantzu (arg.). 2011 [2014]. *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJUren gehigarriak 69)*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Eraña, Ane. 2020a. *Arabako euskararen dialektalizatorantz: aditz-morfologia aztergai*. UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- . 2020b. *Jagin* aditz laguntzaile ditransitiboa aztergai. In Camino *et al.* (arg.). 229-244.

- Euskaltzaindia [EHHA]. *Sine anno. Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Forni, Gianfranco. 2013. Evidence for Basque as an Indo-European Language. *The Journal of Indo-European Studies* 41 (1-2). 39-180.
- Garrett, Andrew. 1999. A new model of Indo-European subgrouping and dispersal. In Steve S. Chang, Lili Liaw & Josef Ruppenhofer (arg.) *Proceedings of the Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistic Society*. Berkeley: Berkeley Linguistics Society: 146-156.
- Gómez-López, Ricardo; Gorrotxategi, Joakin; Lakarra, Joseba A.; & Mounole, Céline (arg.). 2013. *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Gonzalez, Asier. 2020. *Orozkoko euskara, mendebaldeko hizkeren artean*. UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- Gorrotxategi, Joakin. 2001. Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara. In Eusko Ikaskuntza (koord.) *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*. Donostia, Iruñea, Baiona: Eusko Ikaskuntza. 103-114.
- . 2013. Sobre *Lenguas y protolenguas*. In Gómez-López *et al.* (arg.). 613-642.
- & Lakarra, Joseba A. 2013. Why Basque Cannot be, Unfortunately, an Indo-European Language. *The Journal of Indo-European Studies* 41 (1-2).
- Gorrotxategi, Joakin; Igartua, Iván & Lakarra, Joseba A. 2018. *Euskararen historia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Grassmann, Hermann. 1863. Über die Aspiraten und ihr gleichzeitiges Vorhandesein im An- und Auslaute der Wurzeln. *Zeitschrift für vergleichende Sprachforschung auf dem Gebiete des Deutschen, Griechischen und Lateinischen* 12 (2). 81-138.
- Greenberg, Joseph H. 1957. The problem of linguistic subgroupings. In Joseph H. Greenberg *Essays in Linguistics*. Chicago: University of Chicago Press. 46-55.
- Guitier, Henri. 1989. Elementos de cronología fonética del vascuence. *ASJU* 23. 797-800.
- Harrington, Jonathan; Gubian, Michele; Stevens, Mary & Schiel, Florian. 2019. Phonetic change in an Antarctic winter. *The Journal of the Acoustical Society of America* 146. 3327-3332.

- Hernández-Campoy, Juan Manuel. 1999. *Geolingüística: modelos de interpretación geográfica para lingüistas*. Murcia: Universidad de Murcia.
- Hickey, Raymond. 2018. Dialectology, Philology and Historical Linguistics. In Charles Boberg, John Nerbonne & Dominic Watt (arg.). 23-38.
- Hock, Hans H. 1991. *Principles of Historical Linguistics*. Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- Hockett, Charles F. 1958. *A course in modern linguistics*. New York: MacMillan Company.
- Hualde, José Ignacio. 1995. Reconstructing the ancient Basque accentual system: evidence and hypotheses. In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.) *Towards a History of Basque Language*. Amsterdam: John Benjamins. 171-188.
- . 2003. From phrase-final to post-initial accent in Western-Basque. In Paula Fikkert & Haike Jacobs (arg.) *Development in prosodic systems*. Berlin: Mouton de Gruyter. 249-281.
- . 2007. Historical convergence and divergence in Basque accentuation. In Tomas Riad & Carlos Gussenhoven (arg.) *Tones and tunes*. Berlin: Mouton de Gruyter. 291-322.
- . 2017. Erronkarieraren garapen fonologiko dialektalaz. In Aitor Iglesias & Ariane Ensunza (arg.) *Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. 175-194.
- . Prestatzen. Accent shift and the reconstruction of Old Common Basque accentuation.
- & Gaminde, Iñaki. 1998. Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. *Studies in the Linguistic Sciences* 28 (1). 41-77.
- Igartua, Iván. 2001. La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico. *ASJU* 35 (1). 185-213.
- Jacques, Guillaume & List, Johann-Mattis. 2019. Save the trees: Why we need tree models in linguistic reconstruction (and when we should apply them). *Journal of Historical Linguistics* 9 (1). 128-166.
- Jaeger, Jeri J. 1983. The fortis / lenis question: evidence from Zapotec and Jawoñ. *Journal of Phonetics* 11. 177-189.
- Janhunen, Juha. 2009. Proto-Uralic — what, where, and when?. *The Quasquicentennial of the Finno-Ugrian Society*. 258. 57-78.
- Labov, William. 2020. The regularity of regular sound change. *Language* 96 (1). 42-59.

- Lacombe, Georges. 1924. La langue basque. In Antoine Meillet & Marcel Cohen (arg.) *Les langues du monde*. Paris: Librairie Ancienne Édouard Champion. 319-326.
- Lakarra, Joseba A. 1985. Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Sermoia (1737). *ASJU* 19 (1). 235-281.
- . 1986. Bizkaiera zaharra euskalkien artean. *ASJU* 20 (3). 639-682.
- . 1996. “Refranes y sentencias” (1596): *Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia
- . 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31 (2). 447-535.
- . 2003 [2008]. Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción. *ASJU* 37 (1). 261-391.
- . 2011. Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 113. 5-114.
- . 2011 [2014]. Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In Epelde (arg.). 155-241.
- . 2015. Hiru hasperen haboro. In Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez-López (arg.) “*Eridenen du zerzaz kontenta*”: *sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. 349-378.
- . 2016. Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak. In Aurrekoetxea *et al.* (arg.). 175-192.
- . 2020. Berreraiketa zabalduz eta familia erroiztueto hitz arrotzak senidetuz: *banen* urruneko hondar batzuk. In Camino *et al.* (arg.). 335-366.
- & Hualde, José Ignacio (arg.). 2006. *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask / R.L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz (ASJU 40:1/2)*. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- & Ruiz Arzalluz, Iñigo (arg.). 2011. *Luis Michelena. Obras Completas. ASJUren Gehigarriak*. 15 liburuki. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia; Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- , Manterola, Julen & Seguro, Iñaki. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- ; Bilbao, Gidor; Manterola, Julen; Mounole, Céline; & Urgell, Blanca. Prestatzen. “*Etxart-Ros gutuneria*” *bilduma*. Kontsultagarri hemen: <http://www.ehu.eus/monumenta/tz/?b=1>
- Leturiaga, Olatz. 2020a. *Gipuzkoa erdialdeko testuetan barrena: aditz-morfologiako ezaugarri batzuen azterketa*. UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- . 2020b. Gipuzkoa erdialdeko pluralgileen azterketa. In Camino *et al.* (arg.). 367-402.
- . Argitarabidean. Gipuzkoako osagarri pluralen adizki tripertsonalen erroez. *ASJU*.
- Manterola, Julen. 2006. -a euskal artikulatu definituaren gainean zenbait ohar. In Joseba A. Lakarra & José Ignacio Hualde (arg.). 561-676.
- . 2009. Euskal artikulatuak euskalki eta autoreetan. *Oihenart* 24. 237-256.
- . 2015. *Euskararen morfologia historikorako: artikulatuak eta erakusleak*. UPV/EHUko Doktorego Tesi argitaragabea. Zuz. Joseba A. Lakarra.
- . 2020. Erdi Aroko onomastika eta euskal lexikoaren berreraiketa: *Zuazoren sustriaiak*. In Camino *et al.* (arg.). 511-534.
- Martinet, André. 1950. De la sonorisation des occlusives initiales en basque. *Word* 6. 224-236.
- . 1955. *Économie des changements phonétiques*. Berna: A. Franck.
- . 1981. La phonologie synchronique et diachronique du basque. In *Iker 1: Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Bilbo: Euskaltzaindia. 59-74.
- Martinez-Areta, Mikel. 2004. El acento proto-vasco. *ASJU* 38 (1). 135-206.
- McConvell, Patrick & Bowern, Claire. 2011. The Prehistory and Internal Relationships of Australian Languages. *Language and Linguistics Compass* 5 (1). 19-32.
- Meid, Wolfgang. 1975. Probleme der räumlichen und zeitlichen Gliederung des Indogermanischen. In Helmuth Rix (arg.) *Flexion und Wortbildung V*. Wiesbaden: Reichert. 204-219.
- Meillet, Antoine. 1984. *Les dialectes indo-européens*. Paris: Librairie Honoré Champion. [1. argitalpena: 1908].

- Mitxelena, Koldo. 1951. La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet. *BAP* 7. 571-582. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) VII. 33-46.
- . 1958a. A propos de l'accent basque. *Bulletin de la Société de Linguistique* 53. 204-220. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) VII. 123-152.
- . 1958b. N. Landuchio, Introducción al "Dictionarium Linguae Cantabrigiae". Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) XII. 202-232.
- . 1961 [FHV]. *Fonética histórica vasca*. Donostia: ASJU. (2. argitalpena: 1977). Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) VI.
- . 1963. *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Acta Salmanticensia. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) I. 1-98.
- . 1964. *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Editorial Auñamendi. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) V. 1-116.
- . 1964 [TAV]. *Textos arcaicos vascos*. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) XII.
- . 1972. A note on old Labourdin accentuation. *ASJU* 6. 110-120. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) VII. 163-176.
- . 1981. Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 291-313. Berrarg. in Lakarra & Arzalluz (arg.) VII. 517-544.
- Mounole, Céline. 2007. Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria. *ASJU* 41 (1). 67-138.
- . 2011. XVI. mendeko euskal aditza: Lazarraga eta gainerakoak parez pare. In Joseba A. Lakarra, Joakin Gorrotxategi & Blanca Urgell (arg.) *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Gasteiz: UPV/EHU. 127-148.
- . 2018. *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique* (ASJU 48). Bilbo: UPV/EHU.
- & Lakarra, Joseba A. 2018. Euskara arkaikoa. In Gorrotxategi et al. (arg.). 345-468.
- & Gómez-López, Ricardo. 2018. Euskara Zahar eta Klasikoa. In Gorrotxategi et al. (arg.). 469-541.
- Ohala, John. 1993. The phonetics of sound change. In Charles Jones (arg.) *Historical Linguistics: problems and perspectives*. Londres: Longman. 237-278.

- Ondartza, Iker. 2020. *Zenbait ezaugarri araberaren definiziorako*. UPV/EHUko Gradu Amaierako Lan argitaragabea.
- Orpustan, Jean-Baptiste. 2019. *Les noms de maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baigorri: Izpegi.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI-XIX. mendeak*. UPV/EHUko & Université Bordeaux Montaigneko Doktorego Tesi argitaragabea. Zuz.: Blanca Urgell (UPV/EHU) eta Bernard Oyharçabal (CNRS).
- . 2018. *Feitacespravi dutuçu*: partizipio sail berri bat Zuberoan. *ASJU* 52 (1-2). 629-646.
- Pagola, Rosa Miren. 1990. Larramendi eta dialektologia. In Joseba A. Lakarra (arg.) *Manuel Larramendi: hirugarren mendeurrena (1690-1990)*. Andoain: Andoingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia. 247-265.
- Peterson, David. 2009. La cronología del vascuence al sur del Ebro. In David Peterson *Frontera y lengua en el Alto Ebro, siglos VIII-XI. Las consecuencias e implicaciones de la invasión musulmana*. Logroño: Instituto de Estudios Riojanos. 293-367.
- Petit, Daniel. 2007. Archaïsme et innovation dans les langues indo-européennes. In Alain Lémarchal & Jacques François (arg.) *Tradition et rupture dans les grammaires comparées de différentes familles de langues*. Paris: Mémoires de la Société de Linguistique de Paris. 13-55.
- Pozo, Mikel. 2016. *Vasconia y los vascones de la crisis del Imperio romano a la llegada del Islam (siglos V-VIII). Evolución sociopolítica y génesis de la "gens effera"*. UPV/EHUko Doktorego Tesi argitaragabea. Zuz.: Juan José Larrea.
- Reguero-Ugarte, Urtzi. 2012a. *Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenerantz*. UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- . 2012b. Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik. *ASJU* 46 (2). 63-160.
- . 2013. Euskararen dialektalizazioaren hastapenatarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan. In Gómez-López *et al.* (arg.). 431-444.
- . 2015. Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi- nafarrera zaharren azterketa diakronikorantz. In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.) *Ibon Sarasola, gorazarre*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. 587-598.
- . 2019. *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

- . 2020. Euskara nafarrari diakroniatik begira. In Iñaki Camino *et al.* (arg.). 617-630.
- Ringe, Don. 2009. The linguistic diversity of aboriginal Europa. *Language Log* blogean. Eskuragarri hemen: <https://languagelog.ldc.upenn.edu/nll/?p=980>. [Azken kontsulta: 2021-01-08].
- & Eska, Joseph F. 2011. Beyond comparative reconstruction: subgrouping and “long-distance” relationships. In Don Ringe & Joseph F. Eska *Historical Linguistics. Towards a Twenty-First Century Reintegration*. Cambridge: Cambridge University Press. 256-290.
- Rohlf, Gerhard. 1977. *Le Gascon. Études de philologie pyrénéenne*. Tübingen: Max Niemeyer Verlag. [1. argitalpena: 2933; 2. argitalpena: 1970].
- Salaberri-Zaratiegi, Patxi. 2011. Pirioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak. In Andoni Sagarna, Joseba A. Lakarra & Patxi Salaberri-Zaratiegi (arg.) *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra*. Bilbo: Euskaltzaindia. 1019-1048.
- 2018. Euskara Erdi Aroan. In Gorrotxategi *et al.* (arg.). 287-344.
- Santazilia, Ekaitz. 2018. *Gora, gora, jendeac!* Euskal testu berriak XVI. eta XVII. mendeetako justizia auzibide nafarretan. *Euskara* 63 (2-1). 419-460.
- Saroïhandy, Jean-Joseph. 1913. Vestiges de phonétique ibérienne en territoire roman. *RIEV* 7 (4). 475-497.
- Satrustegi, José María. 1979. Plática vasca del año 1778 en un proceso de Fuenterrabía. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 32. 287-302.
- Schmidt, Johannes. 1872. *Die Verwandtschaftsverhältnisse der indogermanischen Sprachen*. Weimar: Hermann Böhlau.
- Schuchardt, Hugo. 1900. *Über die Klassifikation der romanischen Mundarten. Probevorlesung gehalten zu Leipzig am 30. April 1870*. Graz: Styria.
- Trask, Robert L. 1995. On the history of the non-finite verb forms in Basque. In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.) *Towards a History of Basque Language*. 207-234.
- Uhlenbeck, Christianus C. 1947. La langue basque et la linguistique générale. *Lingua* 1. 59-76.

- Ulibarri, Koldo. 2015. *Dotrinazko Sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. UPV/EHUko Doktorego Tesi argitaragabea. Zuz.: Blanca Urgell.
- . 2020. J.P. Ulibarriren lan ezezagun bat: *Gueure Anra Mariaren Otoitze*. In Camino *et al.* (arg.). 673-700.
- Unzueta, Antonio. 1982. Nuevos datos sobre el reformador de ermitaños y poeta vasco Juan de Undiano. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 39. 329-338.
- Urgell, Blanca. 2006. Para la historia del sustantivo verbal en vasco. In Joseba A. Lakarra & José Ignacio Hualde (arg.). 921-948.
- . 2020. Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenez. In Camino *et al.* (arg.). 701-736.
- Uribe-Etxebarria, Oxel. 2008. "Euskerazko doktrina Anzuelako berba moduan". *ASJU* 42 (2). 139-209.
- . 2020. Debagoieneko euskararen iraganaz gehiago. In Camino *et al.* (arg.). 737-754.
- Urrestarazu-Porta, Iñigo. 2019. Erdialdeko Euskara Zaharraren bila abiatzen. In Urgell (antolatzailea) "*Monumenta Linguae Vasconum*" 5en III. jardunaldiak: *periodizazioa eta kronologia*. "Monumenta Linguae Vasconum V" ikerketa-proiektuak antolatutako jardunaldian egindako hitzaldia, 2019ko abenduaren 20an. Vitoria-Gasteiz.
- . Prestatzen-1. Tarteko hizkerak diakroniatik desegiten: Urdiaingo euskararen kasua.
- . Prestatzen-2. Ekialdeko ozen ondoko ahoskabeen zahartasunaz.
- . Prestatzen-3. Epaiketa Burundakoa da; eta euskara?.
- Watkins, Calvert. 1962. *Indo-European origins of the Celtic verb*. Vol I. *The sigmatic aorist*. Dublin: Institute for Advanced Studies.
- Wichmann, Søren. 2010. Internal language classification. In Silvia Luraghi & Vit Bubenik (arg.) *The Continuum Companion to Historical Linguistics*. Londres / New York: Continuum Books. 70-86.
- Zuazo, Koldo. 1995. Bonapartez geroztiko euskal dialektologia. In Gómez-López, Ricardo & Joseba A. Lakarra (arg.) *Euskal Dialektologiako kongresua (ASJUren gehigarriak 28)*. Bilbo: UPV / EHUko Argitalpen Zerbitzua. 13-43.
- . 1998a. Euskalkiak gaur. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 78. 191-234.

- . 1998b. Arabako euskara. In Henrike Knörr & Koldo Zuazo *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta testuak*. 125-189.
 - . 2003. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
 - . 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
 - . 2010a. *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania.
 - . 2010b. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua; Bilbo: Euskaltzaindia.
 - . 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
 - . 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.
 - . 2020. Euskalkien sailkapen berriaz zenbait ohar. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 129. 269-291.
- Zuloaga, Eneko. 2013. Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta *Viva Jesús* testuaren jatorriaz. In Gómez-López *et al.* (arg.). 593-610.
- . 2017. Beheko bokalaren asimilazioaren historiarako: mendebaldeko datuak. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 123. 167-199.
 - . 2020a. *Mendebaldeko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. UPV/EHUko Doktorego Tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra & Iñaki Camino.
 - . 2020b. Bizkai sartaldeko eremu linguistikoez: lexikoa. In Camino *et al.* (arg.). 755-775.